

The book cover features a complex, layered design. At the top, a dark, gnarled tree trunk with sparse leaves is superimposed over a background of a grid pattern. Below the tree, a white, ornate chair with a high back and decorative carvings is visible. The bottom half of the cover is dominated by a large, intricate, repeating geometric pattern in white and dark tones, resembling a woven textile or a decorative screen. The overall aesthetic is a blend of natural and architectural elements.

**ZUZENTZA ETA  
ESKUBIDEA  
EUSKARAREN  
OROITZAN**

Félix Zubiaga

Zuzentza ta  
Eskubidea  
euskararen oroitzan

Felix Zubiaga

*Liburu honek Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura  
Sailaren diru laguntza izan du*

© Felix Zubiaga Legarreta

Azalaren diseinua eta maketazioa: Felix Zubiaga Legarreta  
Ekoizpena: Erroteta - [www.erroteta.com](http://www.erroteta.com)

ISBN: 84-934030-4-0  
Lege Gordailua: SE-4270-2004

Inprimaketa: Publicaciones Digitales, S.A.  
Liburu honen bertsio elektronikoa deskargatzeko:  
<http://www.todoebook.com/Erroteta/>

Autorearekikoa (para dirigirse al autor)  
Teléfono: 94 673 04 86./48340-Amorebieta, Orue (Bizkaia)  
[edo/o\\_felixzubiaga@padrespasionistas.e.telefonica.net](mailto:edo/o_felixzubiaga@padrespasionistas.e.telefonica.net)

**AURKIBIDEA**

SARRERA.....	9
I. EUSKARA ETA HERMENEUTIKA.....	11
1.1. Hermes eta hizkuntza.....	11
1.2. Jainko izenak eta hizkuntzaren arketipoak.....	12
1.3. Kosmologia zaharra eta jainko arketipoak.....	17
1.4. Kosmologia zaharra eta giza arketipoak.....	19
ONDORENA.....	22
II. JAINKO ZUZENTZA, JATORRIZKO LEGEA .....	23
2.1. Jainkoen auzia Sumerren.....	23
2.1.1. Emakumea eta bizi eskubidea.....	27
2.1.2. Gilgamesen bizi-burruka.....	28
2.1.3. Jainkoen auzia gizakiei egotzia.....	30
2.4. Nektuaren auzia bere Jainkoarekin.....	32
2.1.5. Lan eskubidea.....	34
2.1.6. Eskontza eskubidea .....	35
2.2. Jainkoen auzia Egipton.....	37
2.2.1. Erra jainkoaren arrazioak.....	38
2.2.2. Erra eta Errensugearen arteko auzia.....	41
2.2.3. Maat eta Mariren aginduak .....	42
2.2.3. Horus eta Seth anaien arteko epaia.....	44
2.2.3. Zuhaitza eskubideen sinboloa.....	45
2.3. Jainko nausi eta jainko gizatuen auzia Ugariten.....	46
2.4. Euskaldunen jatortasuna.....	50
ONDORENA.....	52
III. GIZA JOKABIDEA HERRIEN JAKINDURIAN.....	53
3.1. Sumerreko gizabide eskola.....	54
3.1.1. Sumerreko eduba eta jakinduria.....	56
3.1.2. Egiptoko idazkola eta jakinduria.....	58
ONDOREA.....	61

IV. GIZA ZUZENTZAKO LEGEAK ETA FORUAK.....	62
4.1. Sumer eta Akadeko legegileen aginpidea.....	64
4.2. Zintzoei ta biurriei zegokien saria edo zigorra.....	68
4.3. Sumerreko Legeen edukina.....	71
4.4. Errege-Legeen aurkako herri-erabakiak.....	74
4.5. Auzilarien kexuak Egipton .....	78
4.6. Norbere eskuz hartuneko "zuzentza" .....	80
ONDORENA.....	86
V. HITZEN ANALOGIAKO JAKINDURIA.....	87
5.1. An analogia sorguaren magala.....	88
5.2. Utu analogia sorguaren soloa.....	91
5.3. Erra analogia sorguaren arloa.....	93
5.4. Ilu analogia sorguaren alorra.....	96
5.5. Ka analogia sorguaren kaizua.....	97
5.6. Ba analogia sorguaren barrutia.....	99
5.7. As analogia sorguaren esparrua.....	101
ONDORENA.....	104
VI. HIZKUNEA ETA HITZAREN HERMENEUTIKA.....	105
6.1. An arketipoko hizkuneak.....	108
6.2. Utu arketipoko hizkuneak.....	114
6.3. Erra arketipoko hizkuneak.....	119
6.4. Ilu arketipoko hizkuneak.....	122
6.5. Ka arketipoko hizkuneak.....	124
6.6. Ba arketipoko hizkuneak.....	126
6.7. As arketipoko hizkuneak.....	128
ONDORENA.....	132
ONDORENAK.....	133
JUZO-ESKUBIDEEN HIZTEGIA.....	134
BIBLIOGRAFIA.....	139

1° laburgoa: Oihuzko deiak arketipoen arabera.....	15
2° laburgoa: Zuzenbide-erruen kalitateak arketipoen arauz.....	16
3° laburgoa: Eskubide-zain ahaldunak arketipoen arabera.....	17
4° laburgoa: Neurriak eta baloreak arketipoz arketipo.....	19
5° laburgoa: Zenbaki, izen-aditzlagun, konparagailuak.....	21
6° laburgoa: Ulermen aditzak arketipoz arketipo.....	27
7° laburgoa: Sentzu aditzak arketipoz arketipo.....	29
8° laburgoa: Erran aditzak arketipoz arketipo.....	33
9° laburgoa: Lege akatsak arketipoz arketipo.....	36
10° laburgoa: Kanon ganorak arketipoz arketipo.....	67
11° laburgoa: Gaiztakeriak eta zigorrak arketipoen arabera.....	69
12° laburgoa: Jakinduriatzko berdinketa-bereizketen hizkuneak.....	109

**SIGLA BATZUREN IRAKURKETA**

(s) sumeriera, (a) akadiera (et) etiopiera, (ur) urartio, (hu) hurrita, (u) ugaritiera, (e) egiptiera, (hat) hatiera (hitita), (am) amortarera, (ara) aramaiera, (h) hebraiera, (arb) arabiera, (ber) bereber, (g) gerquera, (l) latina, (f) frantsesa, (al) alemaniera, (i) ingelesa, (it) italianoa, (ca) catalana, (ga) gai legoa.

## SARRERA

Euskaldunek zuzentzaz eta eskubidez izan duten historia sakona egin ahal izateko, euskarak gaiok gordetzen dituen hitz multzoa aztertzea dagokigu. Halatan, historia bera baino zindoagoa den barne historia agertuko zaigu. Aztertu, beraz, zuzentasun fisikoa edo etikoa aipatzeko erabilten dituen hitzak: *itera, doi, duxto, zuzen, artez, zindo, auzu*, etab. edo hatan burubidezko diren *onu, itun, juzo, aieru, aholku, ogar, aburu, epai*, etab., edo gizarteak hatarako gei ezagutzen dituen *su, auzo, herri, esku, eskualde*, etab., eta gizaldietan zehar onartu izan dituen idatzi gabeko edo idatzitako *ekandu, ohitura, bide, foru, arau, lege, aginduak* edo bideko *ogen, auzi, auste, eten, zigor* eta eskarmeduetan izan dituen erakundeak: *jujek, udalak, merioak, ahaldunak* eta *jaurleak*, herri *un-goaren, bakearen, askapenaren, baimenaren, solturaren* edo *libertadearen* lorpenean. Hiztegi aberatza euskararena, oroitzza zabalak euskaldunena, eta izenak eurak kontatzen dituzten barne historiaren aldiak: lege zaharreko zuzentza eta berezko eskubideen unetik hasi eta gizarteak arauturiko zuzentza eta eskubideen aldiraino.

Herriko legeak herriko jakinduriaren parte dira. Euskaldunok jakinduriazko esakerak gorde eta idatzira eman izan ditugunarren, ahozko lege zaharrak erderara aldatu ziran. Idazlari zaharrak, Foruko azalpen zehatzak baino errezago izan zuten esakera laburrak euskaraz idaztea. Ahoz-ahozko kulturari ohiturak berak eusten dio eta euskarria galtzean, kultura kinkan dagoke, haren sostengu den hizkuntzarekin batera. Halatan ulergarria da Iztueta historigilearen ardurak *Gipuzkuko Provintziaren Kondairan* (VI,18) Foruak aipatzean, euskara bera ere, ohiturekin batean, zenbaterainoko sostengu den ulertzeko: “zergaitik alkarri laztandurik arras itsatxiak aurkitzen diran, batak bestea ezin laga dezaken moduan”<sup>1</sup>, bata galtzeak bestea galtzea dakarkelako edo F. Arrese Beitiak

1 *Diccionario de Autoridades Retana*, o. c., “laga”.

Foruen galpena *Ama euskararen azken agurrak* (1879) olerkian min abestu zituan bezala: “Umezurtz batzuk gelditu gara bilotsik foru bagiak,/izan bagina eurak legetxe euskerearen zaliak/oso ta garbi gordeko ziran ohitura hain miragarriak”.

Foru kultura erdarazko idatziari ematean, euskaldunek euren eskubideak erdaldunei erakusteko egin zuten, jakinen gainean errespeta zezaten. Une berean euskaraz ere idatzi izan bazuten, euskal terminologia garbigoa eta aberatzagoa gorde ahal izango genduen ziur, oso zaila bai-da XIII edo XVI-garren gizaldian erderatuak XX-garrenean erderatik euskaratzea, harako “otrosí dixerón” jarraipenean zer esan zuten, nola esan zuten ziurki ez dakigulako eta herriko hots ugarriak erderarako hesian soildu bai-zituzten.

Euskal legeetan sakondu nahi duenak ere, euskara ikasi ezeze, haren hermeneutikaz jabetzea dauka, historiako testoak berandu-koak eta eurak erderazkoak direnez, euskarak horren hiztegi zabalaz zer esan nahi digun jakitekoz. Zeintzu diren hitz zaharrenak, zeintzu gerostikoak, nolako arteziaz antolatzen zituzten hitzak txikitik handira eta zelako mokauez antolatzen jakinduriarazko eskola: hitzak, hizkuneak, esakunak: *itau/itun, ibai/epai, lakia/lege, buro/foru* adibidez, hizkunetan, edo “bakoitzari berea, Jainkoaren legea”, “zigor gabeko legea, mihin bako arrana” esakunetan. Esakunak ulertzen ditugu, baina ostaz haren muina diren hizkuneak eta gitxiago *Anu/onu, Utu/doi, Erra/arra, Ala/ahal* bezelakoak, hitzaren sorgu den analogiaz eta mitoazterketaz baliatu ezik.

Hizkuneak hitzen baloreak elkarkide eta parekide egiten ditu, ezelako gonbaragailu edo izenlagun gabe. Ez dino, adibidez, “itau-nak ituna dakar” edo “nolakò itauna, halako ituna”, ez dino “lakiak egiten du legea” edo “iminiak egiten du lakia eta lakiak legea”, ez dino “Utu doia da” edo “Utu iduzkiaren udian dager den doia”. Holako azalpenik gabe ere, gure asabek bere kisa analogizatzen zuten hizkuntzaren eredu nabari eta orokor ziren arketipoengandik.

Euskera bera da hermeneutika, baina euskararen senide izan diren Sumer eta Egiptoko kosmo-legediarekin edo giza jakinduriagaz gonbaratzeak ere geure artekoa aztertu eta ebazten lagunduko digu, kultura zaharron ispiluan arpegia hobeto ikus ahal dezagun.



## I. EUSKARA ETA HERMENEUTIKA

**1.1. Hermes eta hizkuntza**

Hizkuntza gizakiaren artezietan bikainenetarikoa da hizkuntzalarien gardiz eta "izen/izan" hizkunez edo "izena duen guztik ba du izana" esakunetan lez, gizakiak abere urrumen gaintik dakus burua eta nolabait, erritoaren magiaz, "esan eta egin" arabera, jainkoen heineko ahala lor zezakelakoa, antxinakoen ustetan. Jainkoen omenez asabek egin zituzten ekintza harrigarriak, jainkoen laguntzat eman zituzten ondorengoak, hala Esagila Babiloniako zigurata *anunnaku*<sup>(s)</sup> edo ainaninoek egintzat, gure ipuinetan Kastrexanako zubia deabruei egotzia bezala. Egitiarrek ere hala uste zuten, hizkuntza *Thot*, lege-maisuen zaindari jainkoak asmatu zuela, gizakien eta jainkoen arteko harremanak errazagoak egitearren.

Gerkarrek, Sortalde Hurbileko kultura zaharraren jaraunsleak, gogotik eztabaidatu zuten hizkuntza *Hermes*<sup>1</sup> jainkoak gizakiari erakutzia ala gizakiak bere oldez asmatua zenetz, baina gizakiak hatarako ze olde izan zuen-edo ez zuten asmatu, abertzale berrien puzminez, atzerriko jainkoak ezaintzat hartuz eta haien izenak aldatuz, hitzaren sorguak eurak ahortu eta itxutu bai-zituzten.

Greziak artean inguruko herrietan ezagun ziren jainkoen izenak aldatu ba zituan, Erromak, izenok aldatu ezeze, jainkoak enperio-ko helburuen morroi egin zituzten eta, halatan, klasikoek sumeriar edo egitiar kulturaz guk orain daukagun baino berri gutxiago jakin ahal izan zuten. Sumeriarrek edo egiptiarrek ez zioten galdetu euren buruari hizkuntzaren sorrera zerutiko ala giza sorkuntzako artezia zenetz, euren apaizek izan bai-ziren lehen onomastika zerrendak egin eta gero idatziz ere eman eta benetako hiztegiak egin zituztenak eta orduko jakintza, enziklopedia gisan, antolatuta zutenak, astronomiaz, toponimiaz, botanikaz, gramatikaz<sup>2</sup>, minera-

1 "Mithra se identificaba con tres dioses griegos, Apolo, Helios y Hermes". DUCHESNE-GUILLEN, J. "MITHRA (misterios de)", DR., o. c. p. 1204-1205.

2 LIMET, H. "PANTEÓN (religiones mesopotámicas)", DR, o.c.,p. 1357

logiaz, etab., ehunlariak bilbearen berri ba zekialako eta hitzaren egitasmoa artez jarraitzen zuelako, Sumerreko jakinduriak eskatu bezala: “gazteak polikeria gabe ospa dezala bere jainkoaren hitza eta Sumer lehialeko herkideek haria bezala bildu dezatela”<sup>3</sup>.


Hermetismoa, ulertuen esparrua da eta jende arruntarentzat izkutu direnen jakinbidea, analogian oinarritzen da batik-bat, ots, gizakiaren soin atalak kosmoarekin duten kidegoan, giza gorputza ere *uin, su, aire, loi* (lur) hastapenez oretua bai-dago. Hermeneutentzat jainko irudia eta giza irudia unibertsoa ezeze, hasierako uneen oroitzua geldoa norbere baitan ernarazi ahal izateko ardatza da. Hermetismoa sinbolismoez eta arkeologiaz baliatuz, giza gogoia berriztea eta argitzea du helburu, gnostikoen arabera. Hermeneuta batzuk magiaz ere serbitzatzen ziran eta beste batzuk fedearen argitasuna eskatzen dute: “Jainkoagan sinistu, gizakiagan sinistu ahal izateko eta alderantziz, gizakiagan sinistu, Jainkoagan sinistu ahal izateko”.

Euskararen hermeneutikak ez du zertan eskatu holako federik, bere baitan, bere egituretan, bai-du argibidea. Halabaina, euskara bezalako hizkuntza sortu zutenen pentsamoldea ezagutzea eskatzen du. Hako asabei “giza jainkozale” zeritsen, izadiaren partekide eta jainko umeko ikusten zuten euren burua eta, umEEK amari “ama” oihuka bezala, jainkoen izenei eregu eginik, asmatu zuten eurekiko ulerbidea eta, jainkoen zuzentasunean sinisten zutenez gero, zuzentzat eman zuten gizakien hizkuntza jainkoen omenezko ino egokitzea eta, erabat, aienezko eskabide gertatzea.

## **1.2. Jainko izenak eta hizkuntzaren arketipoak**

Kultura klasikoak bezala, berandu burutu ziren herriek jainko izenen arazoa izan zuten, hasiera baten familia bereko ziren jainkoak beste herrietako jainko izenekin nastatu bai-ziran eta, hitz zaharraren ereduaz batera, haien zentzuna eta hitz berriak sortzeko itua galdu. Herriek euren jainkoekin batera kolonizatzen zuten lurbira eta haien izenean batzen ziran, amaren etxean beza-

3 *El hombre y su dios*, 2-3, DB, nº 26.



An jainko sendia: (ezkerretik eskumara) An, Enki, Utu, Inana, Enlil. Anek Enki, ur gozoen antolatzailea, bidaltzen du lurrera, honi sorbaldatik erreka bi darizkio, Eufrates eta Tigris amorrainsuak. Utu=iduzkia mendi tartetik ateratzen da, haren berotan Inana, maite jainkosak frutaki mordoa soldutzen du. Enlil, mako eta gezidun, gizakien adu-erabagile da. Uturen adore eta yoritasantaren uduriko uddu.ha<sup>69</sup>=idia=toro eta uzu iduzki goi-bideen=odos<sup>69</sup> eta udden gaineko Jainko espirituaren iduria rabinoen eskolan. Cf. usu/uso Biblian ere agertzen den iduri ezaguna (Mt 4,16). Leoia Enlilen lagun da eta honek atzizki daraman arketipoak osatzen du. (Seilu baten iduria (2.300 K.a)

la. Israelek, herriz herri alderrai ibili zenez gero, azkenik ez zekian nola deitzen zen euren Jainkoa (Has 32,30). Hagatik, ulertuen eritzian, hebraierak ez du barne logikaren jeinurik, alboherrietan eskeko eta jopu bizi izan zan luzaroan eta haien kultura eta hizkuntza hartzen bai-zuan mailebatuz, Jainko izena aita-tzen ere bildur zela (Dt 5,11). Euskaldunen euskarak, ostera, nahiz eta jainko izena jakinduria aldi bakoitzeko xegunaz ornitu eta monosilabismotik hara hizkuntzaren uneak bete dituen, hasiera bateko Jainko izena bera du oroitan, eta sumertar jakinduriak eskatzen zuena, bere Jainko eredu hitza den euskera, haria bezala bildu eta bilbe egokidun ehunean burutu duelakoa du.

Sumertar edo egitiarrentzat izadia, zero urdin edo eguzkia, Jainko arpegiaren agerpena zan. An/Anu zeritzen batzuek zeruari eta Nut geroago bestee. Zeruak eta lurrak mortu urrunduan edo mendi hurbilean egiten zuten egi uneko jokoa ohartzen zuten eta mendiko egian hurbilago sentitzen zuten "Zeru" jainkoa, mendiak

Jainko santutegizat hartzen zituztela. Geroago baten ibarrean atanda hartu zuten jendeek, menditar jainkoak hurbilagotzekoz, zigurat dorreak edo piramideak eraiki zituzten mendi tankeran. “Zeru” jainkoak egunero bidaltzen zien eguzki jainko semea *Utu* zan sumertarrentzat eta *Ra/Erra* egitiarrentzat, hagatik euskarak izen monosilabook, aldian aldiko seinuz osotu eta oroitzen ditu *Utu>Iduzki, Erra>Iruzki, Utu* edo *Erra* jainkoen semekoei dagoen atzizkiekin. *Utu* egunoro itoitu eta *iduzkitzen* da, *Erra* ere *orzargian urteten* eta *arrastioro ortzitzen* den lez, bada hizkuntzan, euskaran alegia, jainko arketipoek egiten dutena jainkoon izenen ahotsez mainatu eta antzezten da. Ba dago sinbolo zehatzik ez duen beste jainko bat, sumeriarrek maiz ixurrien eragile eta herioaren deabrutan jartzen zuten *Ilu*, Ugariten geroago goraldia eta arabek *Allah* eta hebrearrek *El* izenez ezagutzen dutena. Euskarak ere ezagun ditu hagandiko *â!>ahal, il!>hil* hitzak eta hari zuzendu *el!>hel!* ohiuak. (Ikus 1° laburgoan) Bera dager *An* “Zeru” aitaren familiako *Enlil*, giza aduaren ordezkari zen, izen aglutinaduan.

Uri bakoitzak jainkootan bat aukeratzen zuten herriko zaindari eta haren tenploko abadeek haren familia buruko arketipoaren arabera egiten zituzten otoitzerako izen zerrendak eta euren familiako buru zen jainko eredia izaten zan eginkizun edo nahikari guztien hizkeraren analogia sorgu. Hala ospatzen zuten *Inanna*, Anen alaba, Ur uriko Eanna zikuratean. Bera zan maite jainkosa eta aitaren *me*<sup>(s)</sup> “aduak” bereganatu zituena. Hagatik, euskarak ere, *nai, nahi, naitu*, esaten du haraz gero, eta Inannaren ama *Antu* jainkosa *antuari* dagokionetik, *ama, amatu, amainatu* eta *umeei*, berriz, *nini, ñeñu, aina, anaia* izenez deitzen die, egoki bai-da, seme-alabei aitaren eta amaren izenak edo abizenak ezartea, gaurdaino egiten denez, eta euskarak, giza logika mitologikaz oraturik, usuario duen bezala. Zuzentza eta eskubideetako jakindurian, berriz, *An/Anu* bera da *on, onu, ena*<sup>3</sup>, *man, emky*<sup>(s)</sup> “jakin-

3 “Jainko egia” *emuna* da hebraieraz, euskaraz, *ena, una, ona* eta, euren forma gizatu diren “*bona, bon, bueno*” bezala, makulutzat erabilten dira elkarriketan, ots, egiaren lekuko. Jainko izenaren makuluaz itzuri behar gizakiak bere gezur-susmoa edo jainkoen lekukotasunaz indartu behar bere hitza.

## 1° laburgoa: OIHUZKO DEIAK ARKETIPOEN ARABERA

AN	UTU	RA	ILU	KA	BA	AS
ene/en	otoi	ara,ario	el/ely	ka/quia	bea/vaya	txist/chitón
enei	ut/ux,tira	ra/rau	olé/ióle	gel/gora	but/vae <sup>(6)</sup>	jau/zaust
iñó	txut/ixo	arrano	(h)il	akógero	ave/afa	ixi/atx
oino	et/eit/atx	arraio	ola/alló	ecco/coño	ba/bua	chao
añó	uju,ujui	rayos	ala(h)	agur	epa/vah	xapizape
ainü	otian,utinam	aro'urra	elas/alto	kaixo	eup/hip <sup>(6)</sup>	asa'ajai
aan	zut/aida,tus	arre'aira	ale/ela	kontuz	kontu	esti/este
amen	úxala/ostera	arren	alajina	agian	balinba	ezbe

Ohar: Oihuzko deiotan euskara, hebraiera, latina eta erromanikar hizkuntzak dagertz

tsu" etab. kalitatez edo ofizioz dagozkio, egiaren ordezkari ezeze, *en*<sup>(6)</sup> "auña, apaiz nausi", *unai*, *ensi*<sup>(6)</sup> "uriko nausi", *nagusi*, *onulari*, *mera*, *merio* eta *mahaiburu* dela. (Ikus 2° eta 3° laburgoetan)

Urartun, edo grekoen Mesopotamia goienean, menditik itxasoraino ezaguna izan zan *An*<sup>(6)</sup>/*Anu*<sup>(6)</sup> jainko izena. Menditar urartiarrek *Inu* deitzen zioten eta Ibarrate (grekoen Eufrates) goieneko euren aide ziren hurririk, *Eni*<sup>4</sup>. Ohartzea baino ez dago Sumerretik gora ibai bien arteko herriek Jainkoari deitzeko *An/Anu/Eni/Inu* izen bera dela. Izen monosilabodunak direnez, argi dago erritorea egokitu hizkuntzaren lehen aldiko izenak direna. Eta ohartzeakoa da, orobat, euskaldunek aldi bateko urartiarren antzera deitu izan diotela Jainkoari, antxinatiko dugun *Inote* ospakizunetan agertzen denez, *Ino*+te "Inoren garaia" esan nahi bai-du, ots, *Inori inoak* eta *aieneak* abesteko garaia, sumertarrek *akiti* jaietan egiten zuten bezala, literatura mota hau euren idazkietan agertzen bai-da lehenengoz. Babilonian *Anum.zaro*<sup>(6)</sup> "Anun/Anuren naza" ospatzen zan eta euskaldunek *Ononzaro* deitu izan dio Natibitate edo Gabonetako ospakizunari. Eta izenen jatorria dagoeneko argi ezpalego, ohar jainko santutegi izan diren mendien izenei. Ze izenez deituko zien euskaldunek Euskal Herriko mendi nausiei, *An*, *Anu*, *Eni* edo *Ino* jainkoaren mendiak ezpada? Horra, ba, *Aiñomendi/Aiñamendi*, *Aniemendi*, erdaraz *Montaña*, *Montaño*, *Muntanya*, etab. direnak.

## 2° laburgoa: ZUZENBIDE-ERRUEN KALITATEAK ARKETIPOEN ARAUZ

AN	UTU	RA	ILU	KA	BA	AS
on/eme	doi/duin	eri/erre	al'alén	gartzu	ben/bon	xain/txau
min	done/sona	arrai	ahaltzu	guru	ber/vere	seguru
manso	sonto	aratz	laso/larri	gozo	apal	jakin
mana	txutxu/justu	ermo	leun/latz	garratz	bigun	ezi
mazal	otsan/zuzen	irakin	lehial	gerto	bortitz	xedatu
maratz	zogi/zorrotz	argi	lehiatsu	gurbil	bidezko	azkar
maltzur	usu	erru	laban	gaizto	basa	txar

Izen monosilaboetan hurrena *Utu* da Ino familian (Ikus 13 or.). *Utu>su>jo* dator eta bere izena *Jote* ospakizunetan “*juteko/jote-ko/joateko* garaia” aipatzen da, behin eguzki mugako *Suilaro* igaroz gero, dagokionez. *Jote* hori *Uturen* izenean egiten den “abiada, martxa” da, *Jote/jute* bai-dator hizkunez, halakoetan izaten diren *tuta* eta gainerako *joaleekin*. *Utuk* bere sartu-urtenetako mendiekin *otoi* unea egiten dio giza jainkozaleari, hala *Otoio-mendi*, *Otamendi*, *Udamendi*, *Itxumendi*, *Sumendi*, erderaz, *Montoia*, *Montoto*, *Montosa*, etab. *Utu*, izadiko zuzi denez, *otatik othustan*, *tolesak* ere *soka* ikusten bai-ditu, *soegile doia ezeze*, *juzo zuzena* dela bere *ituna*. *Utu duin* eta *dotore*, *atünez atton*, eta *tutore txutxua*, eta legelarien *edu* eta *zuzendari* denez, *zuzulutik* baztarra *sosoaltzea* dagokio. (Ikus 2° eta 3° laburgoetan)

Egipton *Ra*<sup>(6)</sup> zan “iruzkia” eta *Arte* deritzaio, “*Erraren* garai” eta uenari. Euskaldunek *Erraren* iloba *Horus/Orzi* ere ezagutu dugu. Bere garaia *Oroite/Orite* “*orho* egiteko garaia” da, “*oroi*, *otoi* ta *jarrai*” esakunearen arabera, edo *urte/orde* “mesedea hartu edo egiteko garaia”. *Oronzaro* “*Horusen* garaia”, *Erra* jainko ilobaren jaiotza Eguberri=Gabon adierazteko ere ezagutu izan dena. *Utu* eduekin batera, sinonimo ugari sortzen ditu, hala *oso/oro*, *odi/aro*, *ud/ur*, *otzi/orzi*, *otu/oroi*, *torizu/orizu*, etab. edo *oroitu/oratu* uniaz lotzen duen jakinduriarazko hizkunean *otu/otoi*, *orho/oroi*, etab. *Erra* eta *Orziren* arrastoko mendi santutegiak *Erremendi*, *Ar-mendi*, *Oromendi*, *Orimendi*, *Orusemendi/Montrouse*, *Monterré*, etab. Eskubidetako zuzentzen *aratz*, *argi*, *artez* izatea dagokio eta ofizioz *artzain*, *arduradun*, *errege*, *erretore*, *arkhe*<sup>(9)</sup> izan eta *aurkian aurkhi* goatea. (Ikus 2° eta 3° laburgoetan)

## 3° laburgoa: ESKUBIDE-ZAIN AHALDUNAK ARKETIPOEN ARABERA

AN	UTU	RA	ILU	KA	BA	AS
ama	atta	errega	altxon	agure	abuna	xaun/jaun
andre	dona	erregina	ahaldun	guen/kin	padar	xandre/señá
auña/unai	atton/ats0	artzain	alkate	lzar/kan	bale/piel	esku
nagusi	tutore/zar	erretore	lekuko	kurio	buruzagi	shagi <sup>60</sup> jaurle
endore	auzapez	arduradun	albiente	ugazaba	abade	esle
mahin	zuzulu	aurki	alki	kadera	banku	sela/eskanu

Laugarren jainko *lehia Ilu* da eta *Iluren* garaiari *Olde* deritzaio, bere aldeko fedea “*oldar, heldu, ahala, ahalegin*” izen esaguratsurekin markatzen datorrena eta *Olentzaro* “jainkoen jainko garaia” esatetik, beste jainko ereduak bezala, “Eguberri/Gabon” esatera iritxi dena, gurean. Europako toki askotan *Halloween* “aldi sagaratu” edukinaz gelditu izan den. Bere mendi santutegiak *Uliamendi/Montoliu, Alumendi/Mendilu, Lumentxa/Mendiola*, etab. dira. Zuzentzan eta eskubideko ahaleginetan *olhe, lehial*<sup>5</sup>, *leun* edo *larri* izatea dagokio eta *alkitik aldun legea aldezte*a eta ofizoetan *ahaldun, alkate, albiente*, etab. (Ikus 2° eta 3° laburgoetan)

Arketipook zenbatzeko *one, two, hiru, lau* jainko eredu eta gramatikazko *ni, zu, era/él* hiru pertsona eta lau konsonante behineak dira, beste askoren eratorri, lehen hots ahozkatuak direlako. Antxinako Sortalde Hurbileko herriek bateratsu onartzen zituzten hizkuntza arketipook, otoitzerako ere euren izenak erabilten zituztenez gero. (Ikus otoitzerako lehen ohiuskoak 1° laburgoan)

### 1. 3. Kosmologia zaharra eta jainko arketipoak

Kosmologia zaharrea erritozko hizkuntzaren egitasmoa erabagi zutenen eskola dago, jakindurian maila bereko aitortzen ba dira. Kosmologo zaharrek oinarrizko lau elementuz osatzen zuten izadia, *ots, uin, su, aire*, eta *loi* (lur) eta hoiexek dira funtsean *Inu, Utu, Erra* eta *Ilu* hizkuntzak jainko sinbolotzak aukeratu zituen lau arketipoak ere eta kosmologiak lau elementutzat

5 *Lege>legal>lehial>leal* dator, legea betetzetik datorren zindotasuna adierazten du. Burubide hau oso semitarra eta biblikoa ere ba da, *Ilu* arketipoa bera lez.

hartzen dituenok hizkuntzak gramatikazko pertsonak adierazteko erabiltzen ditu “*hona/no/ni/mi, to/tu/su/zu, si, yi>hi, era/ar/ura, uli/illu, el/la*, hirugarren pertsona *Erra/Ilu* ereduaren artean erabagitzen dela. Gizakiak kosmoaz zuen eritzia hizkuntzaren filosofia asmatu zutenekin bat etortzea, Neolitosko hizkuntza erabat eskolatua eta kulturaz aurreratua zena ziurtatzen digu. Ez da edozelako asmakizuna, jakinduria eta eskola dago artean, eskola hori jainkoen kultorako guneetan ematen zan (gaurdaino madrasan eta dotrinalekuetan bezala) bai Sumerren eta bai Egipton, eta horrela, izendegiak egiten zituzten, asabengandik zuten ohituraz. Halatan ez da harritzekoa Müller erlijio gonbaratuaren azterlariak uste duenez, erlijioen historia herriek euren jainkoekin hitz egiteko hizkuntzarekin bat etortzea<sup>6</sup>.

Kosmologiaren lau elementuok gizakiaren irudikisuna josteko “lau untze” direla dino Bachelard letrauak<sup>7</sup> eta, harego, aburuak adierazteko sinboloek serbitzatzen den gizakiaren “lau hormona”, hoiiek bai-ditu sorkuntza poetikoaren motoreak. Bachelard literaturaz ari da eta ez ditu aipatzen Jung sikologistaren arketipoak, Jung autorearen arketipoak ere sinboloen esparruan arnasa hartzen dutenarren. Autore honek jainkozko arketipoak eta giza arketipoak bereizten ditu eta batak besteei guztiz erantziak dakus eta giza arketipoak berez jainko arketipoetan burutzen direla aitortzen<sup>8</sup>. Euskararen hermeneutika gertu izan balu, jainkozko lau arketipoen ondoan aguro begiztatu ahal izango zituan gainerrako giza arketipoak, bost, sei, zazpigo, zapi bai-da antxinakoen orokortasun zenbakia: *An, Utu, Erra, Ilu* dira jainko sortzaileak, *uin, su, aire, loi* gaiak sortu zituztenak, eta gizakia sorkuntza beraren ume denez, berak ere *uin* mugikorra bai-du zainetan, *su* eta *aire* bai-da bere arnasez eta *loi* gorputzez. Ze sinboloz baliatuko da jainko muinaren partekide den bere konplexuko zatikiak izendatu eta jainkozko arketipoen batzarrean eskuartzeko?

6 RIES, J., “MÜLLER(Fiedrich Max) (1823-1890)” DR, o.c.p, 1261-1262

7 VIDAL, J. “BACHELARD, Gastón (1884-1962)”, DR. o.c. p. 162-166)

8 VIDAL, J. “JUNG, C.G. (1875-19619), DR., o.c.p. 936-941.



4<sup>o</sup> laburgoa: NEURRIAK ETA BALOREAK ARKETIPOZ ARKETIPO

AN	UTU	RA	ILU	KA	BA	AS
anei	sos/chus	ara	laia	kana	bara	xemei
imi	*usu/sudu	orri	laka	kantaru	burin	xeme
ontza	toxa/zuri	erres	lagi	koro	buro/foru	as <sup>9)</sup>
onu	topin	erregu	litro	korona	bortza	xakel
marra	txiki/tarro	arra/raya	leinu	gara	barra	xede
anega	itun/*itera	errana	ele	gardi	bulko	xeinu
ungo	*juzo/jus	*arau	lege	ekandu	bide	esku
menda	isun	ariel/araba	legar	akura	berera	sari

Ohar: \*utzu/utzi>usu, \*itera>tiretu>derecho, sutu>zuzu>juzo, \*aratu>arau, datoz

### 1.4. Kosmologia zaharra eta giza arketipoak

*Kai*>*gai* “materia” da eta *ki*<sup>(6)</sup> “lur” sumerieraz, *egi* zero eta lurraren arteko unea den bezala. *Ka*<sup>(6)</sup> arketipoak, beraz, “giza kaizua” dino egitieraz. Norbere *ba/baita/psykhe*<sup>(9)</sup>, ur sorguetan lurraren odola bezala, menditik itxasora apal doan *ibaia* bezala dakus egitiarrak eta handik euskarak ere *Ba*<sup>(6)</sup> dauka *baitaren* arketipotzat, haien idazkietan bezala, gure esakeretan ere<sup>9</sup> “ene *ba/ene bada*” esakerak agertzen bai-da. Birieta asperatzen dugun *as/ax* haize eta arnase bizigarria *As* arketipoak ordezkatzten du erritoz jainkoengandik lorturiko santutasun zehatza ordezkatzten duela. Arketipo hau *akh* bezala dager Egipton eta *zi-d* bezala Sumerren<sup>10</sup>, *asa/atza* ematen bai-zion aitaderak ere haurrari bataio erritoan.

Giza arketipoon bidez, jainkozko beste arketipoekiko elkarriketan jesartzen da gizakia zero eta lurreko ordezkarien itunbenezan, titulua lortu-berri duen legelaria epai-mahaian bezala eta, legelariaren erabagiak auzia egin eta desegin dakiken bezala, hala

9 *Ka* soinkeraren ganora zan, *Ba*, *baita*, *Ka* hilarren ere, bizirik gelditzen zena, *akh*, gizakia zeruko aintzaren duin egin zezakena. (LÉVÉQUE, J. *Sabidurías del Antiguo Egipto*, DB, n<sup>o</sup> 10) Cf: “*Ene ba/ene bada!*”, oihuzko esakerak, egitierazko literturan ere agertzen dira: “Si mi *ba* me escucha=*Ene bak* entzuten badit (...) *Ene ba*, bizitzako beharrak baretzeko ezindua...” (El diálogo desesperado con su *ba*, DB, n<sup>o</sup> 26, 39;15-20)

10 *Kù-g*, duintasun arrunta, *zi-d*, jainkoengandik erritoz lorturiko santutasun zehatza. (RIES, J. “SAGRADO -2 La expresión de lo sagrado en el mundo sumero-babilonio, DR, o.c., p. 1577-1578) Cf: *xit/txit*, *zietz/zehatz*.

jainkotu bezala dakus burua hitzaren egiunean eta magian.

*Ka* arketipoaz *gizakia*, *gihar* eta *gizen*, bera *kausa* eta *gauza* bailitzan, egokitzen da auzian, jainko guztiz zuzen eta jakitunen aurrean garbitu egin behar bai-du gorputz akabagarrian kokatzen zaion ogena eta, igez eginez, ekidin gura luke *Ekat*en kolpea. Beretzat hartu zuan mendi egiatik behera datorren argitasuna, Utu sutsuak barik, berea duen *egia Ekiak* ordezkatzan duela. *Ekain eguzki* mugan ospatzen zuan haren gaintitza eta beste jainkoei *ka/kia* esaten ere ikasi zuan. Giza arketipo honek bere *galanian* du gaisoa eta galpena ere, *gailen/galen* edo *garaen/geren* hizkUNETAKO jakinbidetik ebatsi duenez eta auzian *gaizto/gaixo* eta *gezurti* izatetik *gurbil* eta *gozo* izaten ere ikasi du, *gazte gartsu* izatetik, *kadiradun agure* izateraino. (Ikus 2° eta 3° laburgoetan bere kalitate eta eskubide ardurak)

Gizakiak bere baitan bilatu ahal izan du *bidea*, *ibai>behe* ezeze, *via* eta *ibai+ate>bide* bai-datorkio eta handik *vita<sup>(1)</sup>>bizi* eta *bizi-fedea* eta, balore berriok adierazteko, *Ba* arketipoaz baliatzen da: jainko “ena” *ben*a egiten du, on>*bon* eta hein>*behin* bezala, guztietan lehengo balorei *bai* esanez, *baitan* hartzen dituela. Gaineria gaitzetsi eta *apalgoaz fidatzen* da, bera *bai* eta *baikor* bai-dager eta ez *ka*, ez *kakos<sup>(2)</sup> “gaizto”*. Bere pentsura dagoen *epaia* benaz pisatzen du Maat jainkosaren eskolako bilinbaladun aztailuak, alde batera behartu gabe edo, ezinean, *ibai-jainkoaren* pentsutan *epaia* utzia<sup>11</sup>, horrela *ibai/epai* hizkunea sortuaz eta, *bankuan* apatx eginik, gizatasun *bidea* ideki zuan, *bidezko* dena ezbidetik berezia.

As “arnasa” arketipo honekin latinak *as* oinarritzko balorea egin zuan edo *axe>exe>eje* “ardatza”, euskaldungoak bere *etxe/etze* “egoitz” eta gizarte berriaren ardatz eta eskuartze berriako *hesi/ exi* hizkunez, *hesi* eta *xede* egokitu zuan, asaben *su* “foguera” behin hurrun gelditu zenean. Erritozko arazoetan,

11 Sumerreko legeak *ibai-jainkoaren* ordalia ordekatzen zuten magia-ekin zerikusia zuten auzian, egia zeinera zen jakitekotan. (SEUX, M.J., *Leyes del Antiguo Oriente*, DB.n 15, o.c., or. 31)

12 *As+beeratu>asperatu/asbiritu>aspirar>spirare<sup>(1)</sup>* “arnasea hartu, asperendu”, hortik *spiritu<sup>(1)</sup>=espiritu* “bizia” landareekino duten *espirituxa*.

## 5° laburgoa: ZENBAKI, IZEN-ADITZ LAGUN ETA KONPARAGAILUAK

AN	UTU	RA	ILU	BA	KA	AS
ona'one	dui	hiru	lau	bost	eksa <sup>(6)</sup>	zazpi
on	done	eraina	laun	bon	kuin	santu
hain	duin	arean	lain	bezain	gain	zein
mardo	duxto>justu	arras	alaen	bete'plen	egoal	zehatz
anitz	tusho	erdi	labur	bardin	gehi	xit
nahiko	soil	erruz	lar	poxi	guzti	aseki
inobre	oso	urrean	alaso	parte	gutxi	eskaz

*esker/ezker, asperatu/espíritu*<sup>12</sup> hizkunean, bezala, bera da gizarte berriko *eskui/esku*, zuzenbidean baino hareago *eskubidean*. Giza arketi-po hau besteen batzarrean *atzen exeri* zenarren, bere *sela du jarleku*, giza baloreak *eskui/ezker xedatu* eta *esleitzen* dituen. As arketipoarekin hizkuntza zazpi sinboloen arian osatzeraino heldu zan, zazpi sinboloz josten ditu bulko guztiak, musikariak zazpi notekin armonika guztiak jotzen dituen bezala, eta Isaias profetak, iragarri behar zuenaren lekuko, zeruko eta lurreko zazpi ordezkarietako egiten dien bezala (Is 1, 1).

Hizkuntza jainko eta gizakien arteko itunbena denez, jainkoen hitzak bezala, sortzaile izateko asmoa du beregan eta erritoko arteziaz hori lortzen ahaleginduko da, ots, "esan eta egin" arabera.

Arketipo bidez azterturiko hitza bera da giza jakinduriaren aldiak jarraitzeko biderik onena, hizkuntza baino lekuko sinistagarriagorik ez bai-dago, F.M. Müller erlijio gonbaratuen azterlariaren arauz<sup>13</sup>, eta berak azalduko digu giza jakindurietan zuzentzak eta eskubideek jainkoengandik berezko zutena eta geroago gizarteko eskarmendutik gizakiek gehitu dutena.

13. RIES, J., "MÜLLER(Fiedrich Max) (1823-1890) DR, o.c.p, 1261-1262

## ONDORENA

Euskal jakinduria, haren etnografia guztia, foru eta eskubideakino, autore batzuren ustez, euskarari lotuta baldin badago, euskararen analogia iturburuak jakinbeharrekoak dira, bestela *Bizkaiko Forua* idatziaz gertatzen den lez, berdin izango litzaken euskaldunen ustezko jakinduriak inguruko erderetatik euskeratzea eta, hasteko, ez da berdin *El Fuero, privilegios, franquiaz y libertades de los cavalleros hijos dalgo del Señorío de Vizcaya* eta *Bizkaiko jaure-rritar zaldun aitonen semeen Foru, lege berezi, frankeza eta herri-eskubideak*. Ez da euskaratze zehatz edo nasaiagatik esana, adibidez, “frankeza” *largura* edo “aitonen seme” *seme jator* ere esan zitezkelako bakarrik, azterketa zorrotzak ahots bakoitza eta edukina nundiko analogiak diren jakitea eskatzen digulako baizik.

Bakoitzaren jatorria genesetan daroagunez, hizkuntzaren historia ere bere hitzetan dago eta hitzen genetika arketipoetan ezarten da, monosilabo soiletatik hasi eta aglutinatze eta zauliraino eta arketipoak sinboloen ume dira eta hauek jainkozko eredu eta giza eredu bezala ezagutzen ditugu, izadi jakinduriatik giza jakinduriara.

Historigileak, ez dute hizkuntzalariek beste iguintzen hizkuntzaren mitoazterketa. Azterbideko berri honen garaian filologoek ez dira ausartzen eta euskararen oroitza zaharrak xedatu dieken hermeneutika baztertu egiten dute. Euskararen hermeneutika, ordea, gizakiarekiko jakintza guztien historia urgazteko baliagarria da.

Neolitosko historia aztarrenek, berez, ez dezakete eman argibiderik, beste toki batzuetako aztarrenekin gonbaratzen ez baditugu eta, gonbaratuz bakarrik, lortzen da bata bestearen familia osatzea eta Sortalde Hurbiletik Sartalderako historiaren katebegiak osatzea. Euskal etnografiak eta euskarak ere berez, bere gain bilduta, ez dezake eman distirarik, baina Sumer, Egipto edo Ugariteko hizkuntze-kin eta etnografiekin gonbaratzen badugu, familiako ziren otsak eta edukinak osatzen joan daitezke aztarrenen lege berberaz. Hizkuntzaren aztarrenok hizkuntzalarien oroimen lokartua esnarazten dator. Eta euskararen hermeneutikak itxartzeko ordua jotzen du.

## II. JAINKO ZUZENTZA, JATORRIZKO LEGEA

*Zuzen* izatea Jainkoari dagokio “bakoitzari berea, Jainkoaren legea” arabera, eta *oker* izatea gizakien hutsa da, bakoitzaren arketipoek, *izen/izan* hizkuneran, adierazten dutenez. Gizakiak izadiaren ordenatik ikusten du jainkoen artezia, behin eta berriro gogoratzen du jainkoek beheko urak goiko uretatik bereziz, mundua uren zurruburrutik burutu edo gizakia hondamenditik askatu zutenekoa.

Sumerren *Anu* jainkoaren familiakoek osatzen dute auzimahaia. Anuk seme Enki ur gozoak antolatzen bidaltzen du eta *Utu* iduzkiak, bidelariaren lagun, egunero egiten du zeru-lurretatik ostera. (Ikus 13 Or.) Utuk otaraino jotzen duenean, haren soa total jakitun denarena da. Harekin itera dabilke gizakia soloan, ba dakielako zer den eguneroko joan-etorrien neke itoa eta sua jasatea. *Utu* gizakien lagun da, bere ahalegina gizakiak kaltetik soltutzea da, hagatik da euren tutore, *Inanna* arreba Ur urian den bezala. Anen familian ba dago, ostera, giza aduen jabe eta geziz armatu dagoen *Enlil* arduraduna, *An* familia buruaren ordezkari eta maiz giza erruen salatari dena. Sumertarrek hagatik badadezpadako *Ilu* jainko semitarren ahaideko egiten dute, izena izan.

Egiptoko jainko familian *Erra* herriko erratu eta erruen ertsatzeko erraldoi erre eta erabat urrikaltsua, *ordain* bidez *ordena* egin zalea da. Hala ere, ez zaio erraza erraietako haurrak heriora behartzea eta hagatik ama *Maat* jainkosari lagatzen dio zuzenbide arazoa. Beroni dagokio munduko ordena ziurtatzea, bera da araua eta giza bihotzak pisuaren dendum haztatzen dituen, Maaten manatuak mantendu ala mankatu dituen igarteko. Maaten epaia matematikoa dator horrela. *Thot* da giza bihotzen auzitan Maaten lagunetarikoa, berak izkribuz ematen bai-ditu auziko zehaztasunak. Faraoiaren sortek *tot>txot* egitea ere berari bai-dagokio.

Jakinduria zaharraren arabera, jainkoek ona saritzen eta gaiztoa zigortzen zuten. Sumertarrek ugoldeko eskarmendua gogortzean, gizakien gaiztakeria zertan izan zen ez dute ondo azaltzen, Shurrupak uriko jendeen iskibidu edo istilua nonbait jainkoei

gogaitgarria egin zitzairen, loa eragozten ziela-ta. Horregatik, gizakia arras ondatzeko erabagi latza hartu omen zuten. Utanipistin dugu eletari: “Jainkoen ixilpeko bat esan behar dizut, Gilgames. Ondo ezaguna duzu Shurrupak, hako Ibarrate ertzeko uria. Bada, antxinako garaietan, jainkoek han bizi zirelarik, jainko ahaltsuek Ugoldea sortzea erabaki zuten”<sup>1</sup>.

Juzo orduan Anu eta Enlil batzarrean elkartu ziren, Enlilek gizakien kontrako berba garratzak esan zituan eta gizadia gaitzetsia gelditu zan. Nork salbatu zezaken gizadia jainkoen halako asarraldetik? Ura eta sua batera agertzen dira ugoldean gizakien zigorle.

Erra jainkoa, zaharkindu zenean, herritarrek jainkoaren aurka arramantza sortu zuten eta Errak, iraz iratxeki, erraietako haurrak arras erre eta ertzea erabagi zuan. Ordea, hala ere, bere alaba Hatorren eskuetan utzi zuan”<sup>2</sup>. Auzia jainkoen familiako zeregin-tzat gelditzen da. Norberak ezin dezake iraina jasan eta ordaina egotzi, zuzentasunez erabagi nahi badu. Jainkoek ere, zuzentasun eredu balin badira, pisuaren denduna aintzat hartu beharko dute.

### 2.1. Jainkoen auzia Sumerren

Sumerreko ugoldean agertzen da gizakien ogenak zigortzeko jainkoen erabagia. Familiako denak dira auzian partele, denek dutelako gizakiekin zerikusia eta bakoitzak bere eginkizuna betetzen du: salatariak, onua hartzen dutenak, artezi lana daroanak, zigorraren gaitza aienez negartzen duenak eta epaitua otatzen duenak.

“...ugoldeak hondatuko ditu kultu-uneak, gizartea errotik desegiteko...Erabagita dago, jainkoen batzarreko hitza da. Anuk eta Enlilek agindu berbeagatik...haien aginteak azkena izango du”<sup>3</sup>.

Orduan *Nin.Tud* erditzearen ama jainkosak negar egin zuan eta Inanna aratzak alamen ulua urtiki zuan herriaren zoriagatik. Harnartean Enkik untzia prestatzeko aholkua egina zion Ziusudrari.

“Haize guztiek ekaiztu eta inobre oldartsu, batera eraso zuten (...)

1 *Gilgamés*, XI,I, 9-14. Cf. Ibarrate>Eufrates, Torrobaga>Shurrupak.

2 *Rescate de la Humanidad de la Destrucción*, 1ss, ANET, 10-11.

3 *El Diluvio*, 159-160, ANET, 42-44.

untzi handia galarrenak ur handietan astintzen zuela, Utu, zeru-lurretan argia edatzen duena, atera zan, Ziusudrak untziko lehio handia ideki zion eta Utu eroiak bere estaiak sartu zituan untzi handian. Ziusudra erregea Uturen aurrean ahozpeztu zan (...) Anuk eta Enlilek bizi arnasa ufatu zuten (...) landaretza erne eta garatzen zela (...) Ziusudra erregea Anu eta Enlilen aurrean auzpeztu zan. Anuk eta Enlilek duintzat eman zuten Ziusudra eta jainkoena bezalako bizia eman zioten”<sup>4</sup>.

Ugoldeko mito hauxe da *Uturen tutoretza* ondoen aitortu eta *Nin.Tud* erditze jainkosak gizakien hondamenagatik jainkoei egin agirika kontatzen duena. *Nin.Tud* “*Andre Toda/Doitua*”<sup>5</sup>, An jainkoaren edo *Utu* emazte bezala dager. (Ikus berau mendi erditik urteiten 13 or.) *Uturen* tutoretzari esker, Ziusudrak jainkoen *ituna itzuriz*, *Uturen* sorosmenak gaitzetik *otatu/osatu* zuan.

*Gilgamesen* kondairan Ishtar jainkosak eragotzi egiten dio Enlili opariatatik jastatzea “arrazoi gabe ugoldea erabagi duelako eta hondamendira epaitu nire herria”. Enlilek untzia ikusi eta Enkiren asmakeria ohartu zueneko, ba dino asarre bizitan: “Arimarik ihes egin al du? Gizakietan batek ere ez zuan urten behar izan hontamenditik bizirik!” Enkik burua zuritu zuan Enlilen aurrean:

“Zu, jainko guztietan jakinena eta eroiena izanik, nolatan sor zenezaken halako hondamendia? Ogenduruak jasan beza ordea, lege ausleak, auzia! Halabaina, zaitez onbera, arras moztua izan ez dadin (...) Ugoldea baino hobe leoia etorri izan balitz eta gizartea murristu! (...) Nik ez nuen jainko handien asmoa iragarri. Giza jakintsuak amesetan ikus zezala utzi nuan eta Jainkoen erabagia ikusi zuan. Zeuk ikusi orain zer dagokion!”<sup>6</sup>.

Orduan Enlilek *Utaniipistin* (Ziusudra) eta emaztea, eskutik oratuz, untzi gainera *otatuaziz*, *soltu* zituan eta bere aurrean belaukatuazoz, haien bekokiak ikutu eta bedeinkatu egin zituan esanez: “Gaurdaino Utaniipistin soilik gizakia izan da. Aurrerakoan Utaniipistin eta bere emaztea gu bezalako jainko izango dira”<sup>7</sup>.

Harrezkero *Utu* agertzen da zuzenaren eredu jakinduria liburu eta legegileen asmoetan, Enkik berak ere, *Ud* izendatzen du

4 *El Diluvio*, 201-210; 251-260) Cf: LIMET, H, “*Diluvio*”, DR, 459-460

5 *Tuda*, tokizena ezeze, *Toda* Nafarroako erreginearen izena izan da.

6 *El poema de Gilgamesh*, XI, I, 179-190, ANET, 72-79, 83-90, 92-97, 514-515

7 *Ibidem*, XI, I, 190-194 Cf. *ota* “goia”, *otatu* “goratu”, *otatu>tutu*<sup>8</sup> “gorde”.

lurrean juzo zuzenaren jaurlari, bidegabekeriaz juzkatuen ari-mak sorostearren, egunero infernuetaraino jaizten den eroia:

“zeuri dagokizu gaizkilea eta maltzurra juzgatzea (...) juzo okerrak lo-tzen zuena iburnitik aterazi egiten duzu, zuk esana zuzena da (...) Es-petxean sartzen duzu zindoa ez den jujea; zigortu egiten eskupekoa-gatik auzia bihurritzen duena (...) pisua bultzatuz, edo alde batera egin dezan pisuak aldatuz, iruzur egiten duenak irabasbidea galezten du”<sup>8</sup>.

Legegileak *Utu* ipinten dute bere ohorearen, *zio* eta *zuzu zuzena-ren* lekuko, *Lipit-Istar* errege legegileak aitortzen duen bezala:

“Uturen hitz zuzenari esker, juzo zuzenak egokitu eragin ditut nik Sumerren eta Akaden alde”<sup>9</sup>.

Marduk erregeak ere *Uturen* distiraz janzen du burua dozenerdi bidarrez goraiatzan dituela bere izen, izakera eta ekintzak:

*Tutu Ziukinna* da (...) jainkoentzat zeruak distiraz jantzi zituena (...) *Tutu Tuku* da (...) bere artezi santuaz gaitz guztiak ahienatu dituen”<sup>10</sup>.

Magiazko artezietan ere dulabrea zan *Utu*, lurraren barnetik eta uren artetik itoitzeko harek zuen arteaz. *Utu* eduaren artezi hau aitortzen du *Thot* egitiar juzoaren ereduak ere, gero aipatuko dugunez. Mardukek *zuzutza* bera aitortzen du bere buruaz:

“*Sazu* (da), jainkoen bihotzak ezagutzen dituen, barnea aztertzen du eta gaizkileak ezin dezake handik ihesi; jainkoen batzarra deitu eta euren bihotzak alaitzen ditu, bere babes zabalaz bihurria zentzaten; zuzentza gidatzen du, bihurria errokatzen, eta zuzena dena eta ez dena berezi gordetzen ditu”<sup>11</sup>.

### 2.1.1. Emakumea eta bizi eskubidea

Mitoetan nabaria da biziaren aldeko emakume ahalegina, bizia sortu duenak bai-du maiteen bizia eta jainkosak dira horretan jainkoen bizi urgazleak. *Inanna* alabak aita *An* jainkoaren *me*<sup>(s)</sup> “aduak” esku

8 *Himno a Shamas*, 58-60; 97-109, DB n<sup>o</sup>26. Cf. *Shamas*<sup>(s)</sup>=*Utu*<sup>(s)</sup>

9 *Las Leyes de Lipit-Istar*, *Epílogo*, DB.n<sup>o</sup>26, or.22.

10 *Enuma elih*, VII, 15-35. Cf. *Utu=Tutu, Ziukinna/Zio Guena* “guene-tik dabilenak *zio zuzenak* ditu, hala nola Erra jainkoak arrazio arrak. Goienā> Guena>*kina* dator tokizenetan: *Markuena>Markina, Ibarguena> Barkin/Bargina*, etab. *Tuku=Utukku*<sup>(s)</sup>, “aingeru zaindari” *tukutsua, Uturen* sendikoa

11 *Ibidem*, VII, 35-40



## 6° laburgoa: ULERMEN ADITZAK ARKETIPOZ ARKETIPO

AN	UTU	RA	ILU	KA	BA	AS
onutu	otu'etsi	oroi	ulertu	ikasi	ebatsi	jakin
mentu	aditu	urdu	oldoztu	igarri	barruntau	aztu
emendatu	susmo	erexi	eldu	ikertu	barrudatu	esleitu
memoratu	itundu	erratu	lotu	ogartu	burutu	azertu
antzeaman	juzkatu	aierutu	aldeztu	gomutau	bulkatu	asmatu
mugatu	iduritu	iruditu		akordatu	pentzatu	ezagutu
	autatu	erabagi		gogoratu	ebaraki	zentzatu

ratu zituen eta hagatik emakumearen naza eta antza *An* zerutikoa da. Inanna, maite jainkosa eta ama jainkosak biziaren alde agertzen dira. Inanna “Andre Nana”, Uturen arreba, Dumuzi unaiarekin eskonduta zegoen. Dumuzi gizakien zoriaz hiltzen zenean, Inanna infernuraino jaizten zan bere senarraren bila eta beste norbaitekin ordezkatzu, bizira ateratzea lortzen zuan. Harrezkero, Dumuzik izadiaren Uda-berri oroko berbiztea ordezkatzu du. Senar-emazteok jatorriaz bietatik zein ghiago den eztabaidatzen dute:

“Ningal nire ama ezbalitz, kalera jaurtia eta baztertua izango zinateke (...) Nire anaia Utu ez balitz, kale gorrian apaldua zinateke”. Dumuzik: “Inanna, ahaztu dezagun hori. Nire ama zure ama bezte da (...) ni, Utu bezain, ona naiz”<sup>12</sup>.

*Dumuzi* “*Utu musu*” nonbait, Utuk udaberri oro bizi berrira gonbidatzen zuelako. Mitoetako errege honek bezala, Urnammu, errege zuzenak (2.100-2000), Inannarekin itunbena egina zuan eta jainkoen zuzentasunetik bizitza luze eta baketsua itxaro zezaken. Hala ere, gazterik eta ezbeharrez hila izateak zeharo mindu zuan herriaren eta Inanna herri zaindarien bihotza. Inannak aienea jotzen du:

“An (jainkoak) bere hitz santua aldatu egin du (...) Enlilek, azpikeriaz, agindu guztiak aldatu ditu (...) Jainkoei gau eta egun serbitzen nien honi nola ordaindu dizkidaten ahaleginak? Eguna ames gabe amaitzen zait, zerutiko ekaitzak jota bezala”<sup>13</sup>.

Urnammuren babesle Inanna jainkosa apal joan zan Enlilen Ekur arrokako tenplora eta arrera abegikorraren ordeztu, Enlil betarte

12 *Pride of pedigree*, 1-6, ANET, 637.

13 *La lamentación de Urnammu*, 8-165, Db, nº 26

itzal eta begi giraka aurkitu zuan, mukerki zinotsola:

“Eannako erregina handia, herio dena ez da biztuko berriro zure amoriarren” (...) Inanna argi itzel, Sinen alaba nausiak, zeruak autsi eta dardarazoten du lurra. Inannak hesia apurtu eta gunea erretzen du: “An jainkoen erregeari itzuli nahi diot iraina. Enlil Urnammurekikoaz jarki zait. Nork aldatu du hitz emana? An erregeak ahozkatu zuen hitz goitarra nork aldatu du? Herrian arautu eta egokitu zirenak alperrikoak izan behar ote?”<sup>14</sup>.

Innanna eta haren ondorengo maite jainkosak, burrukari ospea jaso zuten haraz gero. Hala Ishtar, Enlil oparien mahaitik baztertu zuanean, hala Hator, Erra aitaren ohoretan Shekemet leoieme bihurtu zenean, edo Anatu, Ilu jainkoari “ez al dakizu ultzi zaikedazala?” zemai egite dionean. Nonbait, jainkoen erabagiz, gizonaekoek ulertzen ez dituzten arrazoibide batzuk dituzte amek eta haien meneko alabek.

### 2.1.2. *Gilgamesen bizi-burruka*

Gilgames harroak ez zuan beretzat nahi Urnammuren edo Dumuziren zoria. Gilgames, Uruk uriko nagusia, zezenkoa bezain burrukari, danbor otsean kentzen zizkien semeak aitari eta nahitara neskak senargeiei edo emazteak senarrei. Jainkoen basoko izaiak kutiziatu zituen eta Ninsun jainkosa sonaren aholkua ezetsiz, Humbaba jainkozko Basajauna erail asmoa hartu zuan, Enkidu lagun zuela.

“Jainkozko lama desagertu egingo zaio burrukaren erdian” (...) Guztiz azoratu gelditu ziran ixilpe itzalgarrian, Humbaba basozaina hilik zerualdo utzi zuten lurrean”<sup>15</sup>.

Ishtar jainkosak Gilgames atoratu nahi izan zuanean, honek iguindu egin zuan haren edertasuna: “Ez zaitut emaztetzat hartuko (...) Noiz maitatu duzu betirako senarrik? (...) Tammuz, zure gazaroko senarra urtero behartzen zendun betiko alamenera (...) Eta, maitatuez gero, ni ere zori bereko izango nintzateke”<sup>16</sup>.

Halakoak entzutean, Ishtar Anu aitagana joan zan mindurika:

“Ene aita, Gilgamesek irainez bete nau, madarikapen hitzak esan ditu (...) Aita, atera egizu nere partez Zeruko Zezena, Gilgames eran eta

14 *Ibidem*, 198-210.

15 *Gilgames*, V,II, 11-12

16 *Ibidem*, VI,I, 29-79

7 <sup>o</sup> laburgoa: SENTSU ADITZAK ARKETIPOZ ARKETIPO						
AN	UTU	RA	ILU	KA	BA	AS
<i>entzun</i>	<i>so</i>	<i>erne</i>	<i>lotu</i>	<i>ikui</i>	<i>beatu</i>	<i>senti</i>
<i>nabari</i>	<i>tentu</i>	<i>irudi</i>	<i>alegitu</i>	<i>koiu</i>	<i>begitu</i>	<i>txetu</i>
<i>nozitu</i>	<i>dendatu</i>	<i>oratu</i>	<i>lotsatu</i>	<i>ukitu</i>	<i>begitandu</i>	<i>xedatu</i>
<i>mirigin</i>	<i>iduri</i>	<i>erotu</i>	<i>liluratu</i>	<i>gertu</i>	<i>batu</i>	<i>aztatu</i>
<i>antzeztu</i>	<i>usmatu</i>	<i>irritu</i>	<i>leihatu</i>	<i>garatu</i>	<i>bildu</i>	<i>seinutu</i>
<i>muzindu</i>	<i>somatu</i>	<i>erraztu</i>	<i>letu</i>	<i>agertu</i>		<i>jastatu</i>
<i>mindu</i>	<i>azoratu</i>	<i>irakurri</i>		<i>katatu</i>		<i>eskutau</i>

bere etxea erre dezan; ez badidazu amoremoten, neuk apurtuko dut haren etxeko atea eta iburnira jatxi eta hilak igonazoko ditut, biziak irentzi ditzaten<sup>17</sup>.

Anu jainkoak Zezenaren sokamuturra Ishtar jainkosaren eskutik utzi zuan eta Gilgames eta Enkiduk Uruk uriko plazan eraso zuten jainkoen kutun Zezena. Orduan izan zan asperkundera: Enkidu gaisotu eta hil egin zan eta Gilgames, sarrakioak hartuta, Utanipistinen bila erromes joan zan urrutira. Utanipistenek zera esan zion:

“Zer duzu, Gilgames, horren larri? (...) Heriotza bildugarria da...Beti etxeginen eta geure seiluak erabilten, beti gurasoen ondarea uztiatzen anaiartean, beti gorrotoa lurrean (...) lotan dagoena eta hilik dagoena batabestearen antzeko dira (...) Gizakia gizaki, (...) adua Mamituk mamitzen du eta jainkoek erabagiten bizia eta heriotza. Heriotzaren uea ez dute iragarten, eta soilik bizi egunen ezaguera usten dute<sup>18</sup>.

Hala ere, heriotza ihestearren, azken ahalegina egin zuan Gilgamesek. Utinipistinek esandako Betiko Biziaren belarraren bila, harri pisutsua oinetan lotu eta itxas sakoneraino jo zuan. Belarkia lortu, pisutik jaregin eta urertzeratu zenean, egarri zan eta iturria jo zuan. Ura edaten zegoela, subeak itxasotik urten eta belarkia ostu zion<sup>19</sup>.

Adapa abadeak ere bere jakinduriaz betiko bizitza lortuko zuela uste izan zuan, baina jainkoek batzarrean zerurako ez gei eman zuten, eurekandik hartutako jakinduria ez bai zuen onerako uztiatu.

17 *Gilgames*, VI, I, 84-100

18 *Gilgames*, X, V, 36, VI, 25-41. Cf: *Antu* jainkosa, umegiteko, *antu* egiten den bezela, *Mamitu* jainkosak *mamitu* egiten ditu umatokian umeak, esneaz gatzatua egiten den bezala, uste zutenez. (Job 10,10).

19 *Ibidem*, XI, I, 265-290, DB n<sup>o</sup> 7.

“Jakinduria dohaia izan zuan, betiko bizia ez zuan uduki”<sup>20</sup>.

### 1.1.3. Jainkoen auzia gizakiei egotzia

*Enuma elish* “Sorkuntzako Poema”, *Gilgames* bera bezala, babiloniar garaiko kopia eraberritua da, baina jatorriz sumeriar garaiko kondairak dira eta jainko zaharren eta gazteen arteko auzia aztertzen du. Antxina baten Osineko ur gazi eta ur gozo nastuen buru Tiamat eta Absu omen ziran. Bien elkartasunak munstroak sortzen omen zituzten, Lamu eta Lajamu bezalako subeak. Haien ondore izan ziran Ansar eta Kisar “zeru eta lur” arteko egia. Eta hoiien ondorengoak bide ziran Anu eta Enki<sup>21</sup>.

Zahar eta gazteen artean ohi bezala, ezulertza gertatu omen zan, gauza berriak sortzeko asmotan, gazteek Apsu barneko urak mogitzen hasi zirenean. Apsu eta Tiamat kexu ziran:

“Euren jokera jasan ezinekoa da. Egunez ez dut atsedunik eta gaeuz ez dut lorik egiten. Euren akitikak lotu eta sakabanatu egingo ditut, istilua baretu eta lo egin ahal dezagun”<sup>22</sup>.

Enki asmo hoiien jakinian, Apsu hil eta bere aholkulari Mummu momolotu utzi zuan. Tiamat jainkosak aserre bizitan, aldeko zituan jainkoen eta gizakien gudarostea bilduz eta *Kingu* gudalburu zuela, Anu jainkoaren kontra jarki zan. Tiamatek jainko mailara jaso zuan *Kingu*, bere senar berria. “Kinguk gainartu zuenean, Anuren hainako ohorea lortu zuan”. Ansar jainkoak-eta orduan Marduk eroia aurkeztu eta errege jaun izentatu zuten, Tiamaten gudarosteari aurre egin zezaien. Halatan Marduk eroiak Tiamat salatu zuan:

“Zuk gairitu duzu Kingu eta senar aukeratu. Anuren agintea zilegi ez den beste baterekin trukatu duzu”<sup>23</sup>.

Marduk eroiak, guda arma berezietz, Tiamat menperatu eta Kingu

20 *Adapa*, 4, ANET, 101-103. Cf. *Adapa/abate* arketipo itzuliaz, nor/zer.

21 *Enuma elish*, I, 1-19. Cf. Ohar *Sube/Su.ap*<sup>(s)</sup>/*Absu*<sup>(a)</sup>/*Abyssu*<sup>(a)</sup>/*Butzu*, hizkuntza batetik besterako izen mailebatuek, maiz arketipoen itzuliketaz egiten dira. *Sube* handiak inguratzen omen zuan antxinako Osin=*Putsua*. *Ansar/Kisar* “*An.zar/Ki.zar*”=“zeru zahar”/“lur zahar” *An* eta *Enki* jainkoen guraso zaharrak bai-ziran.

22 *Enuma elish*, I, 21-50

23 *Enuma elish*, IV, 81-82

Marduk eroia Tiamat munstroa den itxaso-ko uren gaineran gailen, eguzki irudiz apaindu soinekoaz jantzita, irudi bera antzezten dute haraz gero sakerren edo untzi maisuen gida-gurpilak. Marduk jainkoak Anu jainkoaren makila darama esku batean eta Tiamat menderatzeko erabili zuen gibilia bestean. (Zilindrozko silu batetik harakoa, IX., K.a)



katigatu zituan. Tiamat jainkosa, arrain erraldoia bailitzan, espataz erdibi egin eta zati bat goiko uren zerura eta bestea itxasora jaurti zuan. Gero Kingu, jainko aduetatik erantzi eta auzira eraman zuten. Mardukek gizaki berria sortzea erabagi eta, Enkiren aholkuz, jainkoen ardurak arintzeko asmoa iragarri zuan:

“Bere anaietariko bat emana izan daitela; bera bakarrik galduko da, gizadiak iraun dezan (...) Marduk-ek batzarrera deitu zituan jainkoak (...) “Arramantza sortu zuena emana izan dadila. Bere erruaren erantzule egingo dut, zuek bakean bizi zaitetzen”<sup>24</sup>.

Kingu jo zuten errudun eta haren odola ixuriaz, handik gizadi berria sor zedin. Horrela jainkoek bere antxinako errutik jaregin gelditu ziran. Atsedean har zezaketen, harrezkero gizaki berriak jaso bai-zuan jainkoak jauretsi eta mantentzeko arazoa.

Jainko zahar eta gazteen arteko auziaren jarraipen antza ikusten dago nonbait Ustaritzeko Sanpantzar personaiaren herio epaian ere. *Pantzar* erraldoi baldarra *Marika* daituko ahaldun biren artean, gurdian hartu eta surtara emana bai-da. *Marukka* “jainko oro sortzaile”<sup>25</sup> tituloa da, Marduk jainkotu berriak

24 *Enuma elish*, VI, 11-26

25 *Ibidem*, II, 92,119. Cf: *Pantzar*, *Anshar* gizatua bera da, Ba arketipoa aurrikituaz eta *San Pantzar*, jainko titulo eta guztiko pertsonaia da. Marduk/*Marukka*, Ea=Enkiren seme dago eta aitaren artez jabe egiten da, jainko guztien ordezkaria hartzeko. *San Pantzarren* jazoan *Marikak idi* ixatzekeo>

eta Anshar aitona zaharraren ilobak denak beretzat hartzen duena.

#### 2.4. Nekatua bere auzia bere Jainkoarekin

Zorigaiztoko nekatuak bere egite zuzenen arabera juzga dezala eskatzen dio bere Jainkoari. Ez al da, bada, bera zuzenari ona eta gaiztoari zigorra ematen dion Jainkoa? ¿Ze oker egin du berak, zoriak hala-ko gaitzez jo dezan? Horretan da nekatuak Jainkoarekin duen auzia:

“Nire benazko hitzari nire kideak gezurrez erantzuten dio; gezurtiak etsai berbaz erantzun dit eta zuk, ene Jainko, ez diozu erantzuten eta ahiurriz dudan indarra murrizten didazu. Gaiztoak berba garratzak esan ditu, sumindu egin zaitu, deslaidu egin da eta samina sorrazi (...) Ene Jainko, zure aurrean nire kexu hitza esan nahi nuke”<sup>26</sup>.

Jainkoa erruki ezbaledi bere otoitzaz, nekatuak amaren alamenak eta arrebaren abesti xamurrak jartzen ditu bere lazkeriaren lekuko. Ba daki “amagandik eguno ez dela ogen bako umerik jaio”, baina halare, ez du etsiko eskabidean:

“Ene Jainko, zeu zara sortu ninduzun aita, jaso nire arpegia! Noizdaino jarraituko duzu nitaz arduratu gabe, bizi naizen tokia beatu barik?”<sup>27</sup>.

Azkenik bere Jainkoagandiko zuzena lortu duela dino nekatuak, bere apaltasunean “erruak Jainkoaren eta batzarraren aurrean ezagutu” eta Jainkoak “bere nekea poz bihurtu duelako”<sup>28</sup>. Soinkerako akatsak maiz norbere erruen ondoretzat hartzen dira, (ikus akatsen izendegia 9<sup>o</sup> laburgoan), bata besteagandik zehatz bereizten ez direla.

Nekatuen beste literatura mota batek Jainkoarekin buruz-buru ausartu barik, bere kautan adierazten du Jainkoarekiko bere kexa eta erabat bere adetasuna eta harekikoak ulertzen saiatzen da:

“Ni zintzo izan naiz eskarian eta otoitzean: otoitza da nire jakinduria eta oparia, nire legea (...) Jainkoaren legeak errespetatzen erakutzi diot nere herriari; jainkosaren izena ohoratzen ene herkideei (...) Baina norik jakin gizakiarentzat on dena, Jainkoarentzat iraina den eta gizakiaren ustez ezeztagarria dena atsegina denetz Jainkoarentzat”<sup>29</sup>.

>ixipuz ornitu agertzen dira, *idia* Utu zuzenaren abere kutuna bai-da lurrean.

26 *El hombre y su dios*, 37-56, DB, n<sup>o</sup> 26

27 *Ibidem*, 96-97

28 *Ibidem*, 114-1130, DB, n<sup>o</sup> 26

29 *Ludlul bel nemeqi*, II, 23-25, DB., n<sup>o</sup> 26

8 <sup>o</sup> laburgoa: ERRAN ADITZAK ARKETIPOZ ARKETIPO						
AN	UTU	RA	ILU	KA	BA	AS
<i>ino</i>	<i>otoi</i>	<i>erran</i>	<i>alatu</i>	<i>ukatu</i>	<i>aipatu</i>	<i>esan</i>
<i>antzi</i>	<i>autu</i>	<i>erregutu</i>	<i>alakatu</i>	<i>kexatu</i>	<i>berbatu</i>	<i>eskatu</i>
<i>onetsi</i>	<i>deitu</i>	<i>errezatu</i>	<i>elegin</i>	<i>galde</i>	<i>baietsi</i>	<i>ezkertu</i>
<i>mintzo</i>	<i>ospatu</i>	<i>eragon</i>	<i>elekatu</i>	<i>gezurtu</i>	<i>bermatu</i>	<i>ezetsi</i>
<i>mingatu</i>	<i>edatzi</i>	<i>eresi</i>	<i>eleztatu</i>	<i>egiaztatu</i>	<i>bozkatu</i>	<i>azaldu</i>
<i>mezutu</i>	<i>ziurtatu</i>	<i>erostatu</i>	<i>loxingatu</i>	<i>garraxi</i>	<i>abestu</i>	<i>ixildu</i>
	<i>aitortu</i>	<i>erasi</i>	<i>aldarri</i>	<i>gaztigatu</i>	<i>ebaki</i>	<i>asperatu</i>
	<i>deitatu</i>	<i>ordeinatu</i>		<i>kantatu</i>	<i>epaitu</i>	

Beste batzuk lagun baten aurrean kexatzen dira, Jainkoaren zuzentasunaz lagunak duen jainko eskolaz azal diezaion. “Zogia zaren horrek, ebas nire kexua”<sup>30</sup> eskatzen dio nekatuak lagun ikasiari eta honek, nolabait, auzi maisuarena edo harartekoarena egiten du bera eta Jainkoaren artean. Nekatuak bere saminak eta jainkoen zuzentasunarekiko ezbaiak agertzen dizkio eta lagunak ahal bestean azaltzen, auziaren oinarria, hazteko, honetan datzala ziurtatuz:

“Bizia osoro jainkoari begiratzen dionak bakarrik lortzen du; ugaritasuna jainkosa jauresten duenak bakarrik jaristen du”<sup>31</sup>.

Arazoa ez da, hala ere garbi gelditzen, aberatzak jainko ongileak ditu, halakoak ez du auzirik euren jainkoekin, pobreak, aldiz, ez du nork aldeztu eta “lapurra bailitzan hartzen dute, gezurrez erasoten, eta hiltzeko asmoz axaxatzen. Bihurrikeriaz gaitz guztien errudun jotzen dute, babeslerik ez duelako (...) Gizakiak ezin du antzemon Jainkoaren asmoa”<sup>32</sup>. “Jainkoaren aburua gugandik hurrun dago (...) bere jakinduria ulertezina da”<sup>33</sup>. Ez ete dira jainkoak eurak ere giza zoriaren errudun, aki-akuluetan ari direlarik? Bada, jainkoek:

“hizkera bihurria eman diote gizakiei, egia barik, gezurra eman diote”<sup>34</sup>.

30 *El Diálogo acróstico*, I, 8. DB., n<sup>o</sup> 26

31 *Ibidem*, I, 21 DB., n<sup>o</sup> 26

32 *El Diálogo acróstico*, XXVI, 280-285

33 *Ibidem*, XXIV, 256-257

34 *Ibidem*, XXVI, 279 Cf: Kosmo jakinduria zaharrean jainkoek “esana egina” zan, baina giza jakinduriaren unean gauzak ez dira hain garbi ikusten eta eztabaida sortzen da jakinduriazko liburuetan.

### 1.2.5. Lan eskubidea

Sumerreko kondairetan agertzen denez, Jainkoek gizakia sortu zuten, euren sorkuntza-lanetatik jaregin ziteten: "Ea (Enki) jakintsuak gizakia sortu zuan eta jainkoen serbitzara behartu zuan (...) menpekoek beti gogoan izan ditzatela jainkoak (...) jainko-jainko-sentzako jaki opariak presta ditzatela, haien mantenua aztu barik"<sup>35</sup>.

Gizakiek *anunna*<sup>(6)</sup> "aingeruak" izan zituzten aurretiko langile. Hoiiek ziran Tiamaten gudan jainkosari lagundu zioten aingeruak eta hagatik, *ainaninoen* taldera egotsiak izan zirenak. Halabaina, Kingu buruzagia salatzearren, Mardukek, zigorretik askatu zituen eta bere tenploak eraikitzeke lanera oldez prestatu ziran:

"Annunnakuek lanabesak egokitu zituzten, urte bete osoan adriluak eratu zituzten. Urrengo urtean Esagila gaina jaso zuten, Apsuren pareko"<sup>36</sup>.

Hagatik *anunnaku*<sup>(6)</sup> *inaninokuok* langile porrokatu agertzen dira Euskalerriko ipuinetan, Kastresanako zubigintzan adibidez. Sumeriar beste kondairaren arabera, An jainkoak Enki bidaldu zuan lurreko ur gozoak antola zitzaiz. (Ikus 13 Or.) Ugolde ostean, Enki berak antolatu zuan Eufrates eta Tigris ibaiak urestatzen duen Sumerreko baratza jainko txikien eta gizakien artean lana banatzen zuela: *Nanshe* alabari *nasa* inguruko urak gomendatu zizkion, arrainen *naza* zain zezan, *Ishkur*, ekaitzaren gainean lauoinkatzen den *xekor* zerutarrari, euria, *Ashnan* jainkosari aledun landareak eta *Sumugan* artzainari, belarra eta larre abereak, Eridu uriari, uztarria, area eta ildoak, *Dumuzi* unaiari kortak eta ikuilua eta *Ud/Utu* jainkoari, zuzenbidea. Beste testo baten arabera, ugolde ostean An eta Enlil jainkoek gizadia eta erregetza izentatzen dituzte eta lau lanabes bereziak asmatzen, "herriaren bizigarri diren" aitzurra, pikotza, otarra eta area eta langileak ur erretenak sakontzera, lubetak jaso eta soloak urestatzera bidaldu zituan<sup>37</sup>.

Baratze lanak eta urigintzak gizarteko kultura aurreratu zuan eta uriko jainkoaren laguntzaz oparotasuna lortzen zuten. Hanarteko gizakiak ez omen zuan lanik egiten, lau oinetan ibiltzen ei zan,

35 *Enuma elish*, VI, 35-36; 115-118.

36 *Ibidem*, 59-63

37 LIMET, H. "COSMOGONIA (sumero-acadia), DR, o.c., p. 343-344 Cf: *Ishkur*<sup>(6)</sup> "ekaitza" eta *xiskor/txiskor* "kaskabarra" Benafarroan eta Mainarian.



ez zan janzten, ez ogirik jaten, uritartu aurretik Enkidu bera beza-la, eta ez zuan iturriko urik edaten, aberekideen ibaian baino.

Jainkoak gizakia Baradisuan (Has 2,15) ipini zuan, baratza landu zezan. Nonbait bere lana, denborapasako zeregin atsegina zan, baina ogenaren ostean, Jainkoak lanpetu egin zuan gizakia, edo lana zaildu zion, baratza larraren eta karduberen mende uztean (Has 3-18-19).

Artzaintzan altxona, abelzaintzan unaia, laborantzan ugazaba, familian gurasoak eta urigintzako gobernuan *ens*<sup>(s)</sup> “nabusi” eta morroi-mirabeen arteko lan jarraitua edo ugazaba eta alogurakoen arteko une bateko lan sarituak. Artean *jopu/hupshu*<sup>(hur)</sup> “Utu semeak” txiroak ere ba dira, maiz handikien morrontzan edo ogi ordetan nausiaren lanetan saiatuak diren *Utu+sein>otseinak*.

### 2.1.6. Eskontza eskubidea

Jainko-jainkosak bikote ereduari agertzen dira zeruan eta lurrean. Sumerreko Dilmu paradisuari Enki eta Nin.Ursag agertzen dira. Enkirena zan ur gozoei ordezkari eta Nin.Ursag eta bere alabena ur gazien ordezkari, Enki/Ensag jainkoa gizakia kulturatu aurretiko eredu bezala dago, bikotearen legea jarraitzen ez duten basa-gizakiak bezala. Hagatik Enki/Nin.Ursag/Nin.Tu jainkosaren alabengan ere senar eskubidea hartzen zuan eta hori ez zitzaion atsegin izan ama jainkosari eta Nin.Ursag jainkosak agirika egin zion Enkiri, Uturen harartekotza aldeko zuela.

Halatan Nin.Ursag, ur gazien ordezkari andrea, Nin.Tu, jakinduria jainkosa ere bada eta Enki, berreiz, jainkotasunean jakintsuena dena, En.Sag “*sakha-en/sakildunen*” ere ba da gizatasunean.

Nin.tu, Uturen jakinduriaraz eta arteziaz baliatzen da, Ensag osatzen. (Ohar *osatu* “irendu” ere esan nahi duela) Haren soineko atalak sendatzeko jainko berezien izenez deitzen ditu, “izena/izana” hitzaren artezia erabiliaz. Beraz, zortzi soin atalak zortzi gaisoak sendatzeko zortzi landare zortzi jainkoen arduraz arazotzen eta eskontzen ditu, halako otoitza eginaz: “Izan bedi Abu landaretzaren errege/ Nintulla Magan-eko jaun/ Ninsutu ezkon dadila Ninazu-rekin/ Nikasi bedi...gurarien duin/ Nazi ezkon dadila Nindara-rekin/ Azi ezkon bedi Ningishzida-rekin/ Ninti izan

9 <sup>o</sup> laburgoa: LEGE AKATSAK ARKETIPOZ ARKETIPO						
AN	UTU	RA	ILU	KA	BA	AS
<i>manka</i>	<i>uts</i>	<i>erru&gt;reu</i>	<i>loi</i>	<i>ogen</i>	<i>bekatu</i>	<i>zeta</i>
<i>mantxa</i>	<i>hits</i>	<i>erratu</i>	<i>laido</i>	<i>kutsu</i>	<i>peka</i>	<i>zatar</i>
<i>makets</i>	<i>tatxa</i>	<i>orban</i>	<i>lizun</i>	<i>akats</i>	<i>baldin</i>	<i>satzu</i>
<i>marka</i>	<i>aizun</i>	<i>orin</i>	<i>likits</i>	<i>gaitz</i>	<i>peitu</i>	<i>samar</i>
<i>nata/u</i>	<i>itxurga</i>	<i>orein</i>	<i>legen</i>	<i>geren</i>	<i>oben</i>	
<i>makur</i>	<i>izpi</i>	<i>erdoi</i>		<i>geruza</i>		
<i>narrío</i>	<i>zor</i>	<i>ordain</i>				
<i>nakan</i>	<i>sorde</i>					

Ohar: *-ka/-ga* atzikiak edukinaren ukapen dira. Jakinduria zaharreko izenak nausitzen dira eta *nata/naza*, *sorte/sorde<sup>(9)</sup>*, *nata/natu<sup>(9)</sup>* hizkuneek sortzetiko akatsa zalatzen dute

bedi ilen erregina/ Ensag izan dadila Dilmuko jaun<sup>38</sup>.

Enkik berak erail zuen *Apsu<sup>(9)</sup>/Suap<sup>(9)</sup>* antxinaren ordezkartza hartu zuan, eta ur gozoen *butsu* agertu. Lurra ur gozo hoién gainean ezarria omen zegon eta *sube* handiak inguratzen zuan. Beraz, Nin.*Ursag jainkosak* Enkiri *urgaztean*, subetzarraren basakeria hezten du, ezkontza legezstatuz. Bibliako baradisuan ez dago halako pedagogiarik, naiz Eva Adani *urgazteko* sortua izan (Has 2,18). Bibliako *subetzarra* ere jainko ordenaren hauslea da.

Inanna eta Dumuzi senar-emazteen arteko harremanetan, nabastarrerako eskubidea aipatzen da. "Norentzako egin behar dute lan nabasariék/*na-shuba<sup>(9)</sup>* harriék? (...) Nork aratu behar ditu beretzako? An jainkoak neretzako egin zuenak"<sup>39</sup>. Beraz nabusiari dagokio bere lurra nabastea, *nabusi/nabasi* hizkunez lotzen direlarik. Emaztea baratz hesitua bezala dago maite kantikan ere, (Kant 4,12) analogia, beti ere, hizkeraren eta hizkuntzaren garapena dela.

Sumertarrek jainkoei egotzi zuzentasuna bera erabagitzen ahalegintzen ziran herrian. Onua lortzeko "jainkoak batzartu ziran" esatean, herriak ere halakoetan "batzarra" deitzen zuela adierazten du, beraz, auzoen arteko demokrazia batzarteko ohikunak eta halatan hitzak gordetzen du eskubideen historia. Alde honetatik Sumerreko jainko-azua burubidezkoa ematen du, Egiptokoaren aldean, hau mistikoagoa edo magiari lotuagoa bai-dager.

38 *Enki and Ninhursag: a Paradise Myth*, III, ANET, 37-41

39 *Pride of pedigree*, 40 ss., ANET, 637



Mitograma honetan Nut<sup>(9)</sup> "zeru" ama handiaren mendea ikusten da. Nut amak Erra eguzkia goizero erditu eta arratsero hartzen du, Horus biloiak, eskuak zabalik, laguntzen eta gidatzen duela, Erensugearen amarruak itzuri-terren. Ra iruzkia, egazti arpegidun eta buruan eguzki aroa eta ureus sugeñoa daroela, ontzian dabil ur goienen eta ur barrenen zehar, Maat artezari begira. Azpian etzanik dago Geb<sup>(6)</sup>=lurra, erdian laino gainean, Shu<sup>(6)</sup> airea.

## 2.2. Jainkoen auzia Egipton

Egiptoko mitoek gogoratu eta idatzira eman zuten auzirik handiena Erra jainkoak bere haurrekin izan zuena da. Jainko zahar eta gazte-en arteko ezulertza agertu zan han ere. "Zera gertatu zan... Erra, berez erdituriko jainkoa, gizaki eta jainkoen erregea izan zenean. Orduan gizadiak arramantza sortu zuan bere aurka, Erra handia -bizia, ugaritasuna eta osasuna berari!- antxina bai-zan"<sup>40</sup>. Errak berak erraietako haurrak arras galtzeko erabagia hartu zuan. Errak bere alaba Hator bidali zuan ordain ordena bete zezan eta Hator, Shekemet, leoi emearen arpegia jantzirik, ordea ematera lehiatu zan. Azken unean, ordea, Erra errukiturik, urrikal izan zituan bere haurrak eta Shekemet alabari odol koloreko ardao eman zion eda-tera eta orditu utzirik, gizadia eman epaitik askatu zuan berak<sup>41</sup>.

40 *Rescate de Humanidad de la destrucción*, ANET, 10-11.

41 BERLANDINI, J., "RA", DR., o.c., p. 1475.

Erresumina, ira eta arrabia ez dira zuzenbiderako aholkulari onak eta halako kinka larritik buruz urteteko guraso baten ganora ere nahiko ez dena, Erra ereduagan ikusten da eta, harrezkero, Erra arketipoagandiko analogiak euskarak bere egiten ditu.

Beste behin, Akadeko mitoak kontatzen duenez, *Erra*<sup>42</sup> edo *Girra* jainkoak Babilonia su ta *gar* erretzeko erabagia hartu zuan, baina Ixum ordezkariaren ituna onarturik, baretu eta ez zuan erabagia aurrera eraman. Dena den, *Erra* ereduaren joketatik sortu da *ordain/orden* hizkunea euskara-latinaren artean, ots, iraina edo ariela ordaindu ezik, erresuman ez dagoela ordenik adierazteko. Orderako dirurik ez zegonean *ordeu*<sup>(1)</sup> "gari ordetan" egiten zan ordainketa.

Egitiar jakinduriak *Erraren* onginahiaz batera haren *ira* eta *erresumina* gogarazten ditu gazteen zentzabiderako:

"Ongi dohetu dagoz bere artalde diren gizakiak. Euren alde egin zituan zeru-lurrak eta uretako ersugea urtikatu zuan (...) Baina erail egin zituan bere etsaiak eta bere haurrak eurak zigortu, aurka jarki asmoa izan zutelako"<sup>43</sup>.


### 2.2.1. Erra jainkoren arrazioak

Erresuma eta herria arreatu eta juzo garbiak eratzeko jujeak arrazio argiak behar ditu. Non aurkitu arraziorik *Erra* jainkoaren zioetan ezpada? Horra *arrazio* egina, izan ere *rasón*<sup>(e)</sup> "Erra jainkoari atsegin zitzaiona"<sup>44</sup> da egitieraz eta gainerako errege, emperio eta ideologia orokorrak, hitzetik ortzera, *zio* garbia *arrazio* pustu dute

42 LIMET, H, "ERRA (religión babilónica)", DR., o.c., p.545. Cf: *Erra* iruzkiak egunero infernuak igarotzen ditu untzian. Eguzki denetik bero irakina bada, ez zan gutxiago gerlako erasoan, *erra>gerra* bai-dator gizatasun forman. Agian Egiptoko, *Erraren* seme Faraoi gerrazaleak, Ixum ordezkariak esan bezala, ixuna ezar zezaioken Babiloniar, *itun/ixun* ere hizkune gerta zedin. Sumererak, euskarak bezala, konsonantea bokala aurretik dela ahozkatzen du, egitierak ez bezala.

43 *La Instrucción para el rey Merikarê*, 30-35, DB., 10. Cf: Uretako suge hori da *Errensuge/Erensuge/Ersuge* (*Erra*(re)n suge) deitzen duguna.

44 *Rason* "Ra jainkoari atsegin zaiona". (*En las raíces de la sabiduría*, C.B, nº 28, VD, Estella,1980, p. 15. Cf. *Rason*<sup>(e)</sup>>*ratione*<sup>(1)</sup>, latinaren ahozkeraz. *Arrazoin* forma hurrago dago egiptierazko *rasón* <*Ra+aton* formatik. *Aton* "eguzkia aroko soloa" dino jatorriz, *Aton+Ra* jainko lez ezagutua izan zenarren.



Egitiar *ego* biko *egoaltasun* pisua (Dic. B. or. 181) goian Maat, zuzentasun eta jakinduria jainkosaren irudia duela. Pisua=*pensu*<sup>(6)</sup>/*pentzu*, doitasun, *egoaltasun* artezia zeukan eta haren *pentzudan* bat laket zeiteken. Balantzaren ego biak/*duiak adostasunera* etorri behar zuten *Maaten* zuzentasuna *matematikoa* bai-zen. Halatan, pisu aztergailua norberak erabaki zuzenak hartzeko analogia gertatu zan, *pentsatu* egin behar bai-ziran arazoaren alde onak eta txarrak, erdian eman ahal izateko.

jainko legea bere lege egitekotan eta halakoari “estatu *arrazio*” edo “zientzia *arrazio*” deiturik. Harrezkero, egitiar teologiazko *rason* edukina, hako “egin bedi zure nahia” eskaritik hur dagoena, kale-tartu egin da zeharo, gizakiak bere aburuak jainkotu dituzenez gero.

“*Arrazi duzu*” edo “ez dozu *arrazoirik* esan ohi da eta “*Erraren zioa*” edo “*Erraren erako/arauko zioa*” esan nahi zuan jatorrizko analogian. Era berean, norbait aginduren batera bultzatzeko -*arren* atzizkiaz, “*Jainkoarren/Jainkoaren amoriarren*” bultzatzen da, eta egitieraz *ra-mu*<sup>(6)</sup> hitzaz adierazten zan eta euskaraz *arren* eta Andaluzian “*por mi arma*” edo gaztelaniaz “*por mor*”, esan ohi den bezala. *Ra-mu* formak “errege eta mendekoen *harremana*>*armonia*” edo “erregeen arteko itunben legea”, ots, “itunbenezko edo legezko amore ematea, zintzotasuna adierazteko erabilten zan.

“Esan maite dudan eta maite nauen ene anaia eta suin Nafurereya, Egitoko erregeari: Tushiratta, maite dudan eta maite nauen ene anaia eta aitagarreba, Mitaniko erregearen mezua”<sup>45</sup>.

*Ra-mu/amore* dator egiptieratik latinera, arketipoen itzuliketaz, *besape/babes*>*pavés* datorren bezala, euskaratik erromanikoeta-

45 *Cartas de Tell el-Amarna*, BRIEN, J., *Tratados y Juramentos en el Antiguo Oriente Próximo*, DB. n° 23, p. 101-102. Cf: *Amon* zeritzon Tebasko jainkoari. *Ra+Amon*>*ra-mu* edo *Amon+Ra*>*amore*, jainko biek bateratze ahaleginetik analogizatzen bai da hitz hau, euskaran ere *amore*, *amorio* sartu zena. *Mitani* hurritiar gudariak ziran eta *hupshu* eta *haniahhe* artzainak.

ra, hitz bakoitzak bere arketipoa jarraitzen duela edukinetik hotsera, “maite/maitasuna” bezala, *amore/amorio* arketipoz jainkozko hitza bai-da, eta, beraz, oinarritzko arrazoibidea dino.

Erraren juzorako beste arrazioa, erresumako *ordena* da, jaur-lariak “ordenaren arrazioz” agintzen dutena eta edozein gizarteko zuzenbidean biren arteko bakeak egiteko ordainak eskatzen du: iraindu eta kaltetu duenak ordegarria jar dezala, *ordain* barik ez bai-dago *urten* modurik juzoan, ez gizartean *ordena* jartzerik, beraz, lege ituna egin duenak ordeko izuna ordain dezala, harrezke-ro *ordain/orden* hitzaren hizkune eta erabat eratorri datorrelako.

Erra erresumintzen denean, haren aserrea lurreko bere ordezkariengan agertzen da, Egitoko jakinduriaren arabera:

“Hori al da Errak bere herriaren aurka agertzen duen ira? (...) Erra herriaren aurka aserre denean, erregeak arauak baztertzen ditu (...) Erra herriarekin irrikaz dagonean, zuzenbidez ezarduratzen da. Erra herriarekin aserre denen, errentak muskiltzen ditu (...) Erra herriarekin erreta dagonean, txikiak jaso eta handikiak apaltzen ditu”<sup>46</sup>.

Erra suminkor agertzen bada, zenbat hareago gizaki suharra. Egitiar jakinduriak ohar dagi hoietaz. *Amenotepen irakatzia* bi kapitulu ematen ditu holakoekin kontu handia hartzeko: “Gizakia aserre denean (...) egin eta desegin dagi bere mihinaz (...) otso gaztea dirudi baila gibelean, begiak bekarkara, bata bestearen kontra”<sup>47</sup>.

Ohar Erraren “begia” *udjat*<sup>(e)</sup>, bera bai-da gauza guztien neurria, ez irrikatu haren *udigoa*, haren *uduri* “ustetan” *udja*<sup>(e)</sup> “ziur” bai-zagoz. Kontu pisu aztailuen adostasuna ez ikutu:

“Neurria Erraren begia da, iguin du alderdi bata moztea. Haren begiak iruzurrean jausten den taxukariaren aurkako epaia erabagi du.”<sup>48</sup>.

“Begiko du” edo “bekaitza dio”, “ezkerreko begiz ikusi”, etab. esakerak ezagutzen ditu euskarak ere.

46 *Las Instrucciones de Añk-sesonqy*, col. IV, V,2,3,5,9, DB., n° 10

47 *La Enseñanza de Amenemope*, XII, 1-18

48 *Ibidem*, XVII, 23, XIX, 1-3. Cf: *udui* “uste” eta *odi* “urbide” Uturen edutikoa dira, *aro* Erraren ereduko bezala, eguzkiaren *aroa*, Ba bezan gizarteko *faroa* egokitzen den bezala, aldien giroa bezala, borobil dena. Beraz, analogia *Utu* iduritzen dute edo *Erra* iruditzen.

### 2.2.2. Erra eta Errensugearen arteko auzia

*Apophis*<sup>(e)</sup> edo *Apobasa* itxasoko uretan bizi zen Erra jainkoaren arerio amorratuak egunero erasotzen zion Erraren untziari goizean eta arratzean, izadiko tentua irauldu asmotan. Erra eta *Apophis* Errensugearen arteko burruka honek orekatzen omen zuan kosmoa, “berak egin bai-zituan zerua eta lurra eta urtikatu uretako munstroa”<sup>48</sup>. Erraren eguneroko garapena etsaiaren indarrak, Seth setatiarekin berdinduak, astinduak zirela esan nahi zuan<sup>49</sup>.

Juzo berezia egiten zaio oraindio Apobasari, Donieneko eguzki mugan, iluntzeko sutean “sapoak eta sugeak erre,/artoak eta gariak kaixan gorde” abesten denean. *Done-ena/Endone* “santuena” esan nahi du, antxina “eguzkiari” ematen zitzaion goitizena eta egiten zitzaion otoitza, ongien sinboloak gaizkien ereductatik gorde zitzaion etxeko ondasunak.

Gure haurtzaroan suge eta apo kalituei txua urtikatzeko ohitura genuen, Egiptoko jakinduriak ere hala aholkatzen duenez:

“egoki bai-da Ureus (Erraren sugeiñoari) harrera ona egin eta Apophisi txu egitea”<sup>50</sup>.

Erraren ekintzetan erraldoiak Apophisen aurkako erasoak itzuri-teko errabili ohi dituen arteziak gorai patzen dira, eurretan bat Errak, arkamelu itxuran, eguzki aroa, gorotz pilota bailitzan bul-tzatzen duena”. Horrela arrotzen zan arerioaren begietatik. Ohartzea baino ez dago *arkamelu/Erraren kamelu/camelo* dela, “kakarraldo” izen narrasaren ondoan. Harrezkero “escarabeo” irudia izan zuan Egipton eskerapeko errege siluak, izan ere, *ska-rabeu>eskerape* dator eta *eskeratu>segeretu* bide batez.

“Apobasa” izena *Apophis* gogoratzeko gutxi bada, hor dugu Aralarren Teodosio Goini eta *Errensugearen* arteko burruka, antxiñako mitoa Mikel Enangeruaren kurutzean kristautua, mitoak, jakinduriak eta kultura hizkuntzarekin bat eginik datozelako.

48 *La Instrucción para el rey Merikarê*, 130-135, DB, n<sup>o</sup> 10

49 GUILLEMETTE, A., “APOPHIS”. DR, o.c.,p. 112. Cf: *Apophis/Apobasa/sapo* biurritzen da. *Sapo* “errenkura, erresumin” ere esan nahi du, *sapokeria* “doilorkeria”. Irain handia da, bestalde, inori “apotzar” deitzea.

50 *La Enseñanza de Amenemope*, X, 20, DB, n<sup>o</sup> 10

### 2.2.3. Maaten eta Mariren aginduak

Erra jainkoak, jakinduria bera zen *Maat* jainkosa, amagan utzi zuan haurren juzoa, berak ordezkutzen bai-zuan izadian eta gizartean zehatz, egoki, taxutu, bidezko, zuzena ta egia zena. *Maat* jainkosak haurren jarraibiderako aginduak jarri zituan eta azken juzoan aginduok ezkor errepikatuz behartzen zituan, ezkor esateak berak, *esan/izan* magiara ogena desegin edo zuzen zezan:

“Ez duk ogenik egin, ez duk zuzengabekeriarik egin, ez diot negar eragin alargunari, ez dut biraorik esan...”<sup>51</sup>.

Epaimahai aurrean exeritzen ziren 42 jujeengana zuzenduz, ba-koitzari ogen berezia aitortzen zion obenduruak: “oi jainko X, ez duk hil; oi jainko X, ez dut gezurrik esan...”<sup>51</sup>. Hagatik, ikasbide asko agindu ezkor bezala ematen dira Egiptoko jakindurian:

“Ez hitzak mugi solo mugetako harriak, ez eta zuinarien gunea. Ez ezak irrika lur ukondo bat ere, ez eta alargunaren marrak gainditu.”<sup>52</sup>.

Euskaldunek *Maidi* edo *Mari* izeneko jakiduria jainkosa ezagutu izan dute. *Nin.Mara* “Mara Andrea” neosumeriar jainkosa da Mari urian, Eufrate erdiko eskumako marran. Marik umeei xedea edo marra jartzen die, handik hara joz, galdu ez daitezen. *Marra* hoiiek zapaltzen ez dituen *mardo* da, eta zapaltzen duenak *marka* egiten du, beraz, *markatua* eta *markistua* da. *Mariren marrak* ere giza bihotzean berez erne eta herrien eskarmendukoak bai-dira:

“Ez ostu, ez gezurrik esan, ez inor hil, ez harrotu, ez inori lotsarik galdu, hitz emana bete, eta elkarri lagundu”<sup>53</sup>.


Azken bi aginduak era baikorrean esanak dagerz; aginduok gizartean bake zuzena lortzeko asmatu eta jainkosari egotziak dira. Itunok ez diote oraindino izunik agintzen gaizkileari, baina Mariren hako *ezaz eta baiaz bizi naz* juzoak, nor bakoitza egiten du on edo gaitzaren erantzule. Izadian ez omen da saririk, ez zigorrik, ondore-

51 CORTEGGIANI, J.P, “MUERTE Y VIDA DE ULTRATUMBA EN EGIPTO,5- Juicio de los muertos”, Dr., o.c., p. 1254-1259.

52 *La Enseñanza de Amenemope*, VII, 11-15, DB.,nº 10

53 SORAZU, E. *Antropología y religión en el Pueblo Vasco*, o.c. p. 290. Cf: Hortik datoz “*marka* egin jok horrek”, “pasarse de raya”, “pasota” esakerak, “estar *marcado*” edo “*marrado*”, “*marrano*”.





Maat jainkosak zuzentasuna, ordena, egia ordezkatzan zuan. Aginte makila darama eskuman eta Ra+Utu seinudun elkartasun gurutzea ezkerrean.

ak baizik, txinar jakinduriaren arabera, eta Mariren marrak zapaldu edo ez zapaltzeak holako zerbaít dinoskue. Euskaldungoa ez da izan herri jakinduria idatziari eman zalea, baina Mariren jakinduria jarraitu duten ahoz-ahozko jakinduria esakunak bildu ditu:

Ez egik gatzik eta ez euk bildurrik.

Gezurtia bere ahotik galtzen.

Gaizki esan duenak esan hainbat sor.

Egiak gezurrari atalasean jesarrita itxaron.

Hil eikek eta hil haie ta hire erailea hil daite.

Sarea inori ipini eta norbera jausi.

Hala ere, hodeiak egin kalteak, adibidez, Mariren ordain harrikatatzat hartuak izan dira. Mariren marrak giza jarduera bere barretik osatu nahi du, Maaten pisuak, (Ikus 39 or.) matematikaz ekidin ezak eta ezbaiak. Horretan *Thot*, hizkuntzaren asmatzailea bera, bai-zuen kalkulataile on eta juzoko zehaztasunak hartzen idazlariaren zaindari. *Marra/marka*, berriz, elkarren ukapen dira.

Oiongo Inotean *Markitos*, gaizkilearen irudia, surtara epaitzen dute herriko plazan bere kontrako *markak* salatu ondoren: gezurti, lapur, bortxatzaile eta besteen gaitzpide izateagatik, eta bere guraso zahar “el Viejo y la Vieja” epaiaren lekuko direla.

Juzo zuzeneko jainkosaren ospea Greziaraino heldu zan. Grezian berezko zuzentzaren jainkosa, Zeusen emazte, Temis zan. *Temis/Maat* da arketipoz itzulua. *Dike*, *Temisen* halabak, zuzenaren marra zapaltzen dutenen zigorra ordezkatzan zuan, bada gerkarrek ere aintzat zeukaten marraren neurria *hybris* “neurrigabeko” larregikerien aurka<sup>54</sup>. Jainkoetan *Zeus Xenios*<sup>(6)</sup>, *Temis* jainkosaren senarrak egi-

54 SERVAIS, J., “HYBRIS”, DR., o.c., p. 786

55 SERVAIS, J., “SÚPLICA”, DR., o.c., p. 1694-1695. Cf: *Xein>jein>“xaun>jaun* dator.


ten omen zuan berezko eskubideen eta herri eskubideen mahaiburukoa. Greziako *hiketes*<sup>(9)</sup> “eskekoaren” eskakizuna, bestalde, ez zan herritarrei edo jainkoei egin otoia, erritualki eta zemaiez herriari biziki eskatua baino, “eman dagokidana, behar dudana neri, edo neure eskuz hartuko dut ordea” jarrera bai-dago halako eskabidean.

### 2.2.3. Horus eta Seth anaien arteko epaia

*Hator* Erra jainko alabaren seme Horus-en eta honen anaia Seth-en mitoa jakinez gero, hainbeste argitzen da *urt egin* duen “Aitoren seme” jatorarren eta *set egin* duen seme setatiaren aldeak bereiztea. *Hator* deritzaio “Horusen etxeari”. Mitoak *etxe/etsai* hizkunea, Egipto Behea eta Egipto Goia “egoitz bikoizdun” herrian gertatua, oroitarazten digu, jainko familian, gizartekoan bezala, aserreak sortzen bai-dira. Horus zan Egipto Beheko zaindaria eta Seth Egipto Goiko zaindaria. *Hatorren* seme Horus/Orzi “zeruk” *azorearen* hegadaz *urteiten* zuan amagandik, eguzkia eta ilargia ziren bere begiez dena ikustera, arik eta iluntzean, *Hator* amak etxean *atoratzen* zueno. Bekaitzaarren, ordea, behin Seth anaiak Horusekiko burrukan begi bata atera zion anaiari eta beste behin begi biak, baina Thot artetsuak konpondu zizkion. Urteekin Horusek “Horus Urtena” edo “Urzi Urena” izatera heldu zan. Seth anaia setatiak ordutan, oinordekotza eskuratzearren, Osiris aita erail zuan eta hagatik jainko mailatik eratzia eta deabrutan izentatua galdu zan. Urzi *Urtenak ordea* eman eta *ordena* ezarri zuan erresuman<sup>56</sup>. Haraz gero, *urt egitea*, Erraren kastari dagokion “arrakasta” egitea da eta *set egin* “porrot egin, uko egin, autsi, galdu” esan nahi du euskararen eta setatietan *Seth+een>Satan* “zitela, eta *setiratzen* den etsaia, deabrua” ezaguna da, *seditio*<sup>(1)</sup>, bezala.

“Jainkoak betiraunderako sortu gizakia eta bere irudiko egin zuan, baina Satanen bekaizkeriarren sartu zan heriotza munduan eta bere-tarrak jasan egiten dute. (Jak 2,23-24)

56 MALAISE, M., “HORUS”, DR., o.c., p. 768-769. Cf: *Urzi/Orzi*, *Orzemendi* santutegi eta guzti edo *Santurdi>Santurci*. Bere analogizazioak dira *urdi* “urduri”, *urtein* “osartu, gailendu”, *ordenu* “agindu”, latinezko *ordine* “orden” eta gaztelaniazko *urdir*.



*“Gernikako arbola/da bedeinkatua,/euskaldunen artean guztiz maitatua./Eman da zabal za-zu munduan frutua./ Adoratzten zaitugu, Arbola santua!”*. Herriaren halako debozioa ezin daiteke uler, antxinako ohiturak, asaben ustetan, gizarteak Jainkoarekiko itunabenaren parte zirena kontuan izan ezik. Asabengandik hartua, Jainkoagandik hartun dohaia bai-zen eta, hagatik “santu” izena merezi zuan, “santua” Jainkoa bakarrik bai-da. Auzira deitua Gernikako zugaizpean aurkezten zan. “Zugaizpera deitu eta legegatu (juskatu) baga inor ezin daitekela presondegiratu, Foruak agintzen dau-ta” (*Bizkaiko Forua*, IX, III) Foru hau, inork salatuta, zugazpera bere oldez datorren alde emonda dago. Oldez etorri denari ez eskurik ezarri.

Hatorren seme, Horus bera da “Aitoren seme/alaba” eredia ere euskaran eta, oster, Seh “deabru kume, deabruzko, ainaninoko” *setati/setazua, zitela*. Ez du utsetik *seta/zeta* hizkuntza arteziak hizkune egiten, edo norbaitez “deabruari begi bat atera dio” esatea, soinekoa estrainatzean duenean, edo lapur porrokatuaz “harrapatuko lioke Jaungoikoari begia” bezalako esakuneak asmatzen.

### **2.2.3. Zuhaitza eskubideen sinboloa**

Zuhaitz tantaia, erraldoi antzagatik eta bizi-iraupen eta muskilberritzeko duen berezko indarragatik aintzat eukia izan zan antxinatik kultura askotan, Euskal Herrian bezala. Zuhaitzaren bizi ganora nahi zukean Jobek, giza bizitza ahularen ondoan. “Zuhatzak bizi itxaropena du” (Job 14,7-2). Zuhaztiak arpegia erakusten dio justiziazko *Utu* “eguzki” suari, hagatik da *su+atze>zuhaitz* eta *zuzi*

emendio egiteko *zura*. Jakinduriaren/*zuhurtziaren* sinbolo ere bada (Has 2, 9.17) eta herriak zuhaitzpean jesarten ziran herriko arazoak eztabaidatzekotan, itzalalaren babesa ustiatuala, haren eredu barrendu nahi zutelako. Zuhaitzak jainkoenak ziran eta zuzentasun zuzia aurrez ikusten duten *Utu* eta *Erra* arketipoez izentatzen diren<sup>57</sup> tantai ospetsuenak dira. Hagatik ogentzat eman zan Sumerreko Humbaba basajaunaren heriotza Gilgamesen eskuetan.

Zuhaitz batzuk bere zahartzarogatik edo toki bereziagatik ospetsuen izena hartzen dute, hala Persea, Erraren arbola sagaratu, haren horrietan idazten bai-zuan Toth-ek Faraoiaren izena, ohiko maitaleek bago azalean euren izenak bezala. Abrahamen Artea ezaguna da Ebronon edo Mambreko Lerrina, etab. Zuhaitz sagaratu-tzat zeuzkan herriak, antxinateko asabak jainkoekin izan zituen harreman eta itunbenen lekuko zirelako gizaldiz gizaldi. Halakoa da Gernikako Aretxa edo hainbat elizate inguru iraun duten arteak. Egiptoko herri guztiek nortasun ezaugarritzak zeuzkaten halako arbolak eta ezagunak ziran Kanaanen eta Israelen. Eremu eta bakartadean hainbat hobeto ikusia izango zan haren laguntasuna.

Bizkaian auzira deituak Gernikako Zuhaitzpera etorri behar zuan, Zuhaitzak irudikatzen bai-zuan babesa eta Zuhaitzpean batzarra egiten zutenen ordezkarien aginpidea:

“Gernikako Zugazpean, Guztiz Jator eta Guztiz Lehial den Bizkaiko Jaunerri honetako Batzarre Nagusiak egin ohi diren lekuan, Jesukristo gure Salbatzailea jaio ezkerre mila bosteun eta hogetaseigarrengo Jorrailaren bosgarrenean. Batzarre Nagusi jakin baterako deia hartu ondoren Zugatz honen pean egozela...”<sup>58</sup>.

### 2.3. Jainko nausien eta jainko gizatuen auzia Ugariten

Kanaan goieneko Ugarit/Ugaritu uria “ugaro ate” portua zan eta bere bizibidea *ugarotu/ugaritu* hizkunera egokitzen zan. Alde batetik “itxaso/Otxin”. *Yammu* amorratua eta bestetik “mortu” *Mot* agorra, bien erdian Ba’lu ugaritasun eta euriaren<sup>59</sup> jainkoaren

57 ZUBIAGA, F. *Analogía, arte del lenguaje (según el vascuence)* o.c., p. 59,64

58 *Bizkaiko Forua*, Sarrera (euskaratua)

59 *Ur+balu>orvallo* “euri langar” datorke.

erresuma zelako. Euriak eta ugaritasun unean unekoak direnez, batzuetan Yammuk eta bestetan Motuk menperatzen dute Ba'lu, Ugariteko zoria. Beraz auzia eta burruka emana dago izadiko jainkoen eta herri arduradunaren artean, Ilu jainko nausia dela auzia garbitu behar duena. Yammu menderatu ezik, ez dago ugaroan egiterik feniziar hoientzat eta Mot estikatzen ezpada, ez dago oliorik, garirik, ez mahatzik. Ugariteko errito antzerkian euren zaindari Ba'lu pertsonaia errege ateraten dute herriaren etsai Yammu "itxaso" eta Motu "mortu" jainkoen aurka. Ba'lu Iluren mendeko eta *Daganu*<sup>60</sup> jainkoaren seme dager eta *beel*<sup>(h)</sup> "jaun" esan nahi du.

Ilu da, jainkoen batzarra deitu eta batzarburu egiten duena, baina erabagietan motel agertzen da Anu, Enlil edo Erraren ondoan. Auzia berez edo unean uneko pertsonaien ahalegin eta magiaren eraginetan uzten du. Artekoek onetsia Iluk donetsi egiten bai-du. Jainkoek Yammu nahi dute errege eta Iluk amorematen die eta ohar egiten dio Yammuri:

"Jauregia egingo diagu (...) Ba'lu alenaren eskutik arrapatu behar ko duk (...) Eratxi ezak bere aulkitik (...) bestela, bildotsa bezala zapalduko hau"<sup>61</sup>.

*Kotaru* arma berrien asmatzaile eta *Anatu* jainkosa Iluren mezulari agertzen dira *Kasu* mendiko santutegian eta Yammuk, bere ordu egokia ikusirik, guztiak oldartzen ditu: "Eskuetara eman Ba'lu, Daganuren semea eta bere mendekoak, bere urreez jabetu nadin"<sup>62</sup>. Ba'lu Yammuri morrontzan emana izan zan Iluren erabagiaz, baina Ba'luk ez zuen amore egin eta Yammuren mezulariei eraso egin zien eta haien nagusiari aurka egiteko prestatu zan.

60 *Daguna*<sup>(hur)</sup>/*Dagon*<sup>(h)</sup> jainkoaren jaiera Sumer-Mari-Babiloniatik zehar Mediterraneo ingurura zabaldu zan, eta jainko guren bezala inoiz hartua. ("Dagón" Dic. B., or. 431) *Dagonila* "Agorra, Iraila" ileetan ospatzen zuten euskaldunek jainko jakin hau, artaxearen uztaroa bai-dira eta esakeretan "Dagenileko euria, ardaoa eta ezitia" esaten den bezala. "Jainko guren bezala" hurritiarren *Daguna*<sup>(hur)</sup> "atta guena>aitagin" ulertzen du euskarak.

61 *Lucha entre Ba'lu y Yammu*, 1.1 IV, 19-23, MLC. Cf: Ugaritieraz *alyin*<sup>(u)</sup> "garaile" dager, euskaraz, ostera, *alaen>alen* "ahaldunena" esan nahi du, maiz burlezar erabilia den "tonto *alena*" bezalako esakeretan.

62 *Ibidem*, 1.2 I, 118-19. Cf: Iluk beretzat jauregia egiteko agindu urrea zan.

Larrienean, Kotaruren laguntzan izan zuan: *Ba'luk* ehize *pala* bezala urtiki zuan bere makila Yammuren burua makilakizki arteziaz golpatzen zuela: “Yammu lurrean zan (...) Ba'luk tarraz eraman zuan Yammu eta Naharu epailaria hondatu zuan”<sup>63</sup>. Burrukaren azkena ikusita, Ugarit bezalako uri gertuak antxinako *Yammu* osinaren zurruburru aurka Sortalde haretan ospatzen zen errittoa da. “Itxasoa” adierazteko izen zaharrenetarikoa *oxin/osin* da, eta hala dager *Osin Beltz* “Pontzo *Euxino*=Mar Negro” izena eta *Oceanu*, berriz; “Osin Sakona” adierazten. Gure artean *otin* errittoa hau Lantzeko Inotean *Otxin* piurari egineko epaian dager. *Otxin*, bere txuntxurro ta guzti sumertar pertsonaia dirudi. (Ikus 13 or) Bestalde *otin* hitzak “udigo, gorroto” dino eta *otin*>*otxin* dator eratorriz eta *otin/Otxin* egin du, hain zuzen, hizkunez ere, ZER/NORI dagokion jakinduriazko arteziaz esana.

Miel *Otxinen* piura erraldoia, Jotean herriko plazara eramaten da *Txantxoak*, erratz antzeko, garbikuntza ixipuez eta apaiz jantziez eta txilinteriaz ornitu, jarraitzen diotela. *Shamsu*<sup>(a)</sup>/*Utusam* iduzkiaren jarraileak, *San Utu*>*santuak*>*txantxoak* egiten diote su juzoa, Urte Berria kaltegile gaizkinetatik jaregitarren.

Kanaango (Fenizia) Tiron *mlk*<sup>(u)</sup> “errege” deabrutua su garretara jaurtitzen zuten *melkart* “errege gartu?” ospakizunean, norbaiten buruan apendu behar bai-ziran igaraneko kalteak, aurre-rakoan gaizkile berriei bidea eragoztekotan.

Ugariteko beste kondaira batek Ba'lu eta Motu mortuko herio jainkoa ateratzen ditu erritozko hil edo bizi borrokan. Hasiera baten Ba'lu Motu herioaren menpeko aitortzen da eta Iluk erabagia onesten du. Ba'luren hiletan Iluk eta Anatuk negar egiten dute, baina Anatu jainkosak ez du amorematen Iluren erabagia. Errege ohiaren ordezkio Ba'lu eskatzen du, Attaru ez bai-da hatarako gauza. Motu herioak ala Ba'lu biziak erregetu behar du? Horra Anaturen erabagia: Anatu Ba'lu egotzi dagoen infernurai-

63 *Lucha entre Ba'lu y Yammu*, 1.2 IV, MLC. DEL OLMO LETE, *Mitos y Leyendas de Canaán (MLC)*. Introducción, o.c., p. 145. Cf: *Ba'lu* bera da *pala/palu* arma urtikariaren analogia sorgu eta orobat urien inguru eraiki eta sakontzen zen *palatu* izenarena.



*Baal/Balu* bere *baldar* mailukia eskuman eta tximist urtikari aztamakila ezkerrean, hodeietako jainko bezala, langarraren sortzaile. Ugariteko oroitarria, XIV K.a. Alboko miniaturan oroitarria opaldu zion erregeak (Dic. B. "Baal") gutxitzat dakus bere burua hain jainkoaren aurrean. "Oratu zure aztamakila eta mailukia" (*Lucha entre Balu y Yammu*, 1.1 III 10) hotsera oldartzen du Ilu jainkoak herria jaurritzera deitu erregea, ilundia ere Iluk "zurez eta harriz" asmatu "zeru-lurren arteko murmurio" zen arma sekretu eta ilaungarria zan. (*Ibidem*, 30). Hagatik *oinaztarria* "zerutiko harridun azta" bezala ere ezagutzen dugu euskaraz. *Mailukia*, berriz, *mlk*<sup>(64)</sup>, *melek*<sup>(64)</sup>, sinboloa nortzat harturik "errege" da Sortalde haretan, hemen alkate edo errege makilaz "basoan jaio, basoan hazi, herrira etorri eta bera nausi" esan ohi dugun bezala. Mitoak mito, hala ere Baalen irudiak ez du iguintzen garaiko arma berria, labana, gerrian.

no jaizten da, hako Inannak Dumuzi senarraren alde egin ekintza errepikatzen duela, Ba'lu berak ere Udaberrero landarezarekin berpiztean eta Moturen agortean heriotzen den izadia ordezkatzan bai-du. Anatum Ba'lu hila negartu zuen bezala, Ba'lu berbiztua aldarrikatzen du, Moturen kontra burrukatzeko gertu. Anatum burruka honetan *Shapsu* "zeruko argizagi handia" du lagun (ohar Utu, Inannaren neba). Ilu ere poztu egin zan berri onarekin:

"Jesarri eta atsedendu egingo naiz (...) Ba'lu alaina bizi delako, Printzea, lurreko Jauna, berez baliatzen delako" <sup>64</sup>.

Ugariteko erritoan jainkoen eta herriaren arteko auzian antzerkiak auzi mahaiaren antza hartzen du. Kexua aurkezten da, entzun eta ebazteko jainkoen batzarra deitu, mezua bidaltzen, aldarrikatzen, betearazten edo erantzuna jasotzen, auzilarien arteko eztabaida

64 *Lucha entre Ba'lu y Motu*, 1.6 III, (MLC). Cf: "Balu bere onean dagoelako" dino testoak, baina *balio*>*baliatu* <*Ba'lu* dute analogia sorgu.

edoburruka aurkezten eta erabagia egiaztatzen. Halabaina, ba dirudi Ugariten ez dela jainkoen auzian sinisten, ez haiekandik itxaroten Sumerren, Babilonian edo Egipton bezela. Gizakiak, izadiko jakinduria zaharretik gizarteko jakinduria barrira aldatzen doan neurrian, bere eskua hartzen bai-du berari dagozkion auzietan.

#### 2.4. Euskaldunen jatortasuna

Horus eta Seth anaaien artean ikusi dugunez, familia baten, auzo berean eta herrian bertan ere aurkitzen dira, hako anaiek bezala, aitor edo setati direnak, jatorrak eta gaiztoak, “naza onekoak” edo amak eguno bularrean gozatu ez dituen umeak, amaituak eta amakatuak<sup>65</sup>, naza oneko eta nazka ematen dutenak, naituak edo nakatuak, naroak edo nargak, mazalak eta mazkalak izakeran edo jarkeran, euskaldunak eta erdaldunak, hizkuntza bereziaz aparte, herrian esku ahala “eskubidea” zuten etxak edo kanpotik erduak “erduen ahala” edo petxadunen estatusa zutenak.

Rekonkista deituneko guda ostean, Espainiako gizartea arraza askotakoa izanik, arrazakeria alde batetik eta erlijio ahiergoa bestetik nausitzen ziran, kristau zaharrak, jatorrizkoak, eta kristau berriak bereizten zirela eta odolezko edo sinistezko jatortasun agiriak eskatzen ziran bakoitzaren nortasuna egiaztatzeko. Halako atezuan norbaitek petxadun, mizkinu edo morroikideen menpetik urteiteko, uritar edo jator agiria eskatzen zuan eta halakoetan erregeek, mesede hori egitera prestatzen ziran, mendekoak ugaritzearren. Jatortasun bide bikoitza agertzen zan orduan: batzuk, jatorrizkoak, besteak, errege-agiridunak eta maiz hoiek besteak baino aintzakoago hartzen zirela. Kantabroak eta euskaldunak bereizketa honen kontra jarkitu ziran. Gaztelarrak godoen jatorriko noblezia aitortzen zutela? Euskaldunak-eta iberoen eta kantabroen mitora jo eta haiekandiko jatorria aitortu zuten, denak jatorrak zirela adierazteko, eta inoiz ere ez erromatarren, godoen edo moroen menpeko izanak.

“Baita esan eben: Bizkaitar guztiak Aitonon seme ta jatorri argi ta odol

65 *Amaitu* “osotu, biribildu” *amakatu* “konpondu, amagar”, berez *maketa* bat den bezala. Hortik datorke *maketo* iguinezko deitura ere.



garbiko diranez, eta Jaun Aundiengandiko mesedea ta Errege erabagi dabenez, biurtu barri dan judutarrrik eta morotarrrik ezin daitekela Bizkaian bizi ta egotez bertan egon, ezta hareen ondorengorik ez jatorrikorik, eta Errege erabagi hau Foru honetan dator.” (1,XIII)

Judu, mairu eta beste etorkinei ezarten zitzaien sarea errege erabagia (1.IX) izan zan, Gaztelako Inkisizioaren ihesi joazen jendeok Jaunerri edo Konderrian babesik lor ez zezaten, baina etxeak jatorriz “Aitonon seme” aitortzea bizkaitarren eskabideko artezia izan zan. *Aitonon seme* “hijosdalgo” adierazten dator. Oihenartek (xvii) “*Ait'joren seme*” aitortuko zuan, baina ez honek eta ez Chahok (xix) ez zuten asmatu *Aitor* izena, eta pertsonaia, ez *aitor* kalifikatzailea eta hareago erlijioarekin zerikusiduen *aitortu* aditza. Euskara bera da lekukorik onena *aitor-seme* eta *aitor-alaba* aipatzean. *Aitona* edo *aita joria*, patriarken aipamena semitar jokera da. Euskaldunek, aurretikoak aipatzekotan, *asabak* edo *arbasoak* aipatzen zituzten, baina giza mailan herri guziek dituzte aitona eta asaba hilkorrak. Mitora joanez gero, hasierako sorkuntzara jotzen da eta pertsonaia hilezkorra idoroten, han aurkitzen bai-dira ama jainkosak, jainko ararteko, umeen inude eta hezle, dela Maidi, dela Mari edo *Hator* ama. *Hator*, Erra jainkoaren alaba, bai-zan *Horus/Orzi*, seme *aitorraren* eta *Seth*, seme *setatiaren* ama. Eta Egiptotik Euskal Herrira, *Hator/Aitor*, *Horus/Orzi* eta *Seth/seta* euskal hiztegiko analogien ama jainkosa seme *atoratzailearen* eta bi anaia *aitor* edo *setatien* hezle dagerku, amaren urentasuna aitortzean eta haren esaneko izatean bai-datza “*Aitor* seme/*Aitor* alaba” izatea eta, alderantziz, “*set* egitea”, *setati* bihurria izatean.

Hala ere Hatoren familia euskaldunek etxearen heziketan jarraitu zuten ereduatariko bat da, gurasoekin edo Jainkoarekin *aitortu* eta jokera *setatiak* bereizteko aparta, baina euskal aitortasuna adierazteko ez da eredu bakarra.

Historigileek hanartean iberoen, kantabroen, erromatarren, godoen, mairuen hurbileko mitoraino jo zezaketen, eta erromantikoek herriaren ahotik pertsonaia harrigarriak susmatu eta iragarri, baina euskararen hermeneutikak bakarrik jo zezaken, izen eta izan arteziaz, mito zaharren oinariraino.

## ONDORENA

On dugu euskaldunok Neolitosko kultura sortu zen lurraldera, Antxinako Sortalde Hurbilera so bat egitea geure asaben astarrenen bila. Han aurkitzen ditugu Inotean inoz eta aienez ospatzen genuen Inkoaren aztarrenak, han lehen kosmologiak aztertu zituen izadiko elementuen berri, han lehen jakinduriaren argiak eta giza aburuen adibideko lehen hiztegiak eta eskolen xedea, han, hizkuntzalari ospetsuen arabera, euskararen lehengusuak.

Gure arteko erromanistek, ostera, behin Erroma eta Athena joez gero, nasai gelditzen dira, itxasoa bertan amaitu bailitzan edo klasikoen ospea baino gauza handiagorik edo sorgu aipagarriagorik asma ezina bailitzan. Baina *antuste* "handi uste" analizatzen denez, kanpo-ederrok on izango lukete, latinaren eta gerkeraren erroak hanarteko ingurumenean bilatzen ahalegin apur bat egitea, eta beti ere alboan izan duten euskara baztertu gabe.

Erromanisten jokabide antustea osatzeko antzua da eta ez inolaz ere euskalzaleek jarraitzekoa eta, kasurako, lege maisuek *Bizkako Foruen* oinarri bila *Derecho Romanora* ez doazenez, gure hizkuntzariiek ere *jus, juje, juzo, dusto, justu* edo *lege, pena*, edo *foru*, etab. formen bilaketan ez dute zertan Latioko hizkuntzara jo eta han gozo egin, bertan daukagun kulturen sorguan arakatu baino, Erromak ere ez bai-zuan hutsetik ezer asmatu, enperiorako jainkoen izen-ardura berri batzuetatik ate.

Euskaren hermeneutika aintzat hartzen duenarentzat, Italia eta Grezia Euskal Herritik eta Sumerrera edo Egiptora doan zubiaren bi zutabe baino ez dira. Zubiaren luzean dagoen itxaso beraren bi egalak aintzat hartzekoago dira, jakinduriaren berri nondik norakoa den jakiteko, galdetu, ezpaere, euskararen oroi-meneko formetan, ohituretan, eskubidetan eta jakindurian.

Greziako herri eskubideak edo Erromako eskubide orokorrak Sortaldetik honako untzien portu bi dira eta euskaldungoa izan da Osinaldeko Europa bidean azken oroit-portua. Hagatik artean dagoen toponimia orokorra euskarak ulertzen du, Neolitos hasierako arketipoen arabera antolatu hizkuntzaren jabe delako.

## III. GIZA JOKABIDEA HERRIEN JAKINDURIAN

Gizakia kultura adin batera heldu eta burunahiko zela konturatu zeneko, ez du jainkoen pentsutan uzten berak erabagiteko den arazoa, ostaz lagako dio epaia jainko-ibaiari, eta hizkunez, *ibai/epai* delarik ere, *Jinkoari deiez, baina uretatik iges* esakunaz aztertuko du eta bere aburuak burutu, amaren begirantzatik askatu den umeak bezala, eta, haurtzaroko oharrak astu gabe, bere kabuz antolatzen du bizitza, betiko arauetatik forura dagoen aldea bereziz. Dagoeneko, Inuren *ena* benetan hartzean beste, bere Ekiaren *egia* begiratzen saiatuko da “egia da, neuk ikusia da-ta” lekukotasunera adi. Jainko egia, Uturen otatik otustan soz, totala daite, eta haren zuzentasuna denetan eta denentzat berbera, baina gizartean “zenbat buru, hainbat aburu” sentzunek eta sentikerek giza zuzentasun zentzuna neurri ezberdinen meneko egiten dute.

Jainkoen zuzentasunak nahiko zuan haundi-haundiki ohar-tzea “ez inor hil eta hiltzen duena Maaten aurrean juzkatua izango da” edo “ez inori lotsa galdu eta Mariren marra zapaltzen duen lotsagaldua markatua geldituko da”. Zer esan nahi du *juzkatu* izateak edo *markatu* gelditzeak edo ze zigor dagokio markatuari? *Juskatu jus/juzo* gabe gelditzea da eta zuzentasun *marra* zapaltzea, jainko/jainkosen hesi ziurretik at gelditzea, *jus/juska* eta *marra/marka* elkarren aurkako hizkuneak bai-dira. Jakinduria zaharrea lege ezarlea eta zigortzailea Jainko berbera da. Jakinduria berrian, ordea, jainkoen eskua urrundua ikusten da zigor orduan eta artean, gizarteko bizi-oreka antolatu behar delarik, markiztuari erritozko zigorra ezarriko zaio, jainkoek Tiamat eta Kingu gailenduei Babilonian *gailen/galen* erataraz ezarri zioten lez, edo Egipton Seth setatiari egotzi ziotena bezala.

Oiongo Markitos edo Lanzeko Miel Otxin desereduen zigorrak jainkoen zigorra gogarazten du urteroko erritoan edo, Sumerren eta Babilonian bezala, uraz egin ordaliak edo, Herdi Haroko Europan bezala, suaz ordetuak, jainko zigorraz baliatzea ziran,

1 *Gilgames*, XI, 101-104, DB, nº 7.

jainko sorkari diren urak eta suak gaurko gizarteak ere, antxina bateko umetzaroan, Ugoldean gertu zena<sup>1</sup> ospatuz, zigor esku-tzat hartzen zirelako. Gaur bertan, Marijaia bezalako piura ure-tara edo surtara jaurtitzean, herriak haren lepotik erruen garbi-kuntza bilatzen du inertziaren puruz talde ohargabeen.

Errak erabaki artezez herria arreatzen zuenean, dena zijoan eroso, baina haren eria eta arbasta artaldetik urrunduz zenetik, ordea, ez du oreka onik oratzen eta Ipu-ur, egiptziar nekalduak, Eroiairen arrastoa arduraz errezatzen du:

“Beraz, Erak ez du eragiten, ez giza erabea indarkeria zaleagandik bereizten. Freskagarria eman behar lioke beroak erreta dagoenari. “Bera da gizadiaren Artzaina, esan ohi denez, eta ez dago gaitzik hare-an haren bihotzean. Bere artaldeak erruztu ez direnarren, egun oro dirau bihotz urratuak oratzen”. Ara, gizakien izakera eta bere lehen arra-ka susmo izan balu, gaitza eragotziko zuan eta haien aurka eria jaso haien arraza erorkia errautsiko! (...) Aurrera bedi erraldoia eta urtikí eu-rak erduerazten dituzten erratuak, erregerik hanean ez zegoen aroan. Non da gaur? Lotan ausaz? Bere arra ez bai-ta ikusten hanean!”<sup>2</sup>

Jainkoa Erra denean, hizkuntzak ere haren doinura jotzen du, haren erregetza berreskuratu nahiez, baina jakinduria zaharra kinkan dago eta, “Jangoikoa beti bere bidean” delarik ere, giza-kiak bere ahalmenez baliatu beharko du.

### 3.1. Sumerreko gizabide eskola

Gizartea jainkoen eskutiko lana zela aitortzen du Sumerreko mito zaharrak. Anu jainkok “sortu zuan buru beltzen herria (...) eraiki zituan bost uriak toki garbian, euren izenak ahozkatu zituan eta kultu-unerako izentatu zituan. Urietan lehenena, Eri-du, Nudimund (Enki) nausiari eman zion”<sup>3</sup>. Beste testu batek erregea aipatzen du:

“Antxina batén, zeruak nahigabetzen zirelarik eta lurrak goizaldean zinkurin egiten, jainkoek...gizarteari; baretu eta ugaritasuna eman

2 *Las lamentaciones de Ipu-ur*, XII, 1-7, DB., n<sup>o</sup> 26 (Pasarte hau *Erra* arketipoaren klamera euskaratua dago) Cf: *Era* “Bera”=*Erra*, heren pertsona.

3 *El Diluvio*, 45-95, ANET, 42-44. Cf: *ensi*<sup>(s)</sup> “uriko nausia”, “buru beltza” deritzaio hilarrietan maiz agetzen den distira kiribiladun aguzki seinuari ere.

zioten. Erregea izendatu zuten herri gidatu eta herriak eregiteko... burubeltzak gidatzeko”<sup>4</sup>.

Gizakiak, jainko seme-alabatzakoa baitaratu duenarren, jainkoen zuzentasunetik zuzena izaten ikasi baino lehenago, bere guraso-tzako eskarmenduan ikasi zuen zuzentasun idea egotzi zion Jainkoari, bere kautan zinola: “gizakia hainbestera heltzen bada, Jainkoa hareago” burubideaz edo amona itxuak bere ilobari esaten zion bezala<sup>5</sup>: “*gure Jaungoikoa ere duxtoko (justu) gizona duk, batzuei kendu behar beste emateko*”, euskal jakinduriaren arabera. Izadiaren oreka ikusita, Jainkoaren zuzentasuna halakoa behar duela uste du jakinduria zaharrak, baina gizakia bera den aldakorraz eta bere buruaz duen eskarmenduaz, “*ez naiz zure Jinkoari baino gehiago fida*” susmatzen du, edo Sumerreko jakinduriaraz:

“Gizakiek ez dakite zer egiten ari diren. Euren egun eta gauen zentzua jainkoen eskuetan dago. Nork ezarten die gizakie zama gehigarria?”<sup>6</sup>.

Hala ere, jainkoek eskutik uzten duten herria galdua da eta umeen heziketa burutzen ez duen herria ez da garatuko, esakunak dinonez: “*Jainkoaz oroi ez denak aise ahanzten eginbidea*”. Jainkoen edua jarraitzea da asaben jakinduria, hagatik jainkoen edupeko eskolatzen zituzten hutsetik hezten diren seme-alabak. Izadia bera zuten eskola: “*Jainkoak egin zuen erlea eta deabruak listorra; Jainkoa da ona, deabrua bizkorra*” bezalako esakunetan. Izadiko eskola hau ez du lagatzen jarraipeneko datoreen herrien jakinduriak. Gizarteko eskarmenduak ere esakunetan ematen diren oharrak dira: “*zigorrek bildurtu bai, zentzatu ez*” dinonean, adibidez. Mariren aginduez aparte, ez dute oraindior legerik, eta gutxiago zigorrez oraturiko agindurik, baina, hala ere, gizakien legeak eurak baino heziketa lan hobea egiten du jakinduriaren eskolak. Ohartu eta gonbaratzekoa da Sumer edo Egiptoko jakinduria euskal eskera zaharretan agertzen denarekin, batak bestera bai-garamatza.

4 *Discusión entre el tamarisco y la palmera*, 1-5. DBn<sup>o</sup> 26.

5 GARATE, G., *Atsotitzak, errefracuak*, “JAUNGOIKO”, o.c. p. 279. Esakune dagokienez, gehien bat autore hau jarraitzen dugu.

6 *El justo doliente en los textos de Ugarit*, R.S. 225.130, 24-25, DB. n<sup>o</sup> 26

### 3.1.1. Sumerreko eduba eta jakinduria

Sumerreko eskolari *eduba* zeritson eta *edupeko* irakasgintza gertatzen zuan umeentzat, Ni.saba jainkosaren zaindaritzapean eta ato “anaie zaharraren” begiramenean: “Errepikatzailea: Zer delata ez duk amorematen nire ato eginkizuna (...) idazketan moldekaitz eta sumeriar hizkuntzan hain totel haizen horrek?”<sup>7</sup>.

“On daikala eskolara joateak! Hona nere aholkua: gazte aukeratuen artean egoten zaia hadi; horrela ardurazko lanpostua emanen ditek. Hi haizen gizakia ez dikalako ikasi dagoeneko gizatasuna (...) gizabideko eduak ikasi ez dituzten hoietako bat bihurtzen bahaiz, heurrez ez haiz behin ere gizon egingo”<sup>8</sup>.

“*Inor ez da jaioten ikasirik*” dino gure esakunak, beraz, “*semeak dituzunen, eskola itzatzu haurretik*”, bada, “*ikasten ez duenak etxean ez daki kanpoan*” eta, hareago, “*eskolatik ihesik, laster zara oinutsik*”. *Edubako* edua *itaun/itun* erataraz egiten zan: itauna sorrazi eta ikasiaren gainean erantzun, edo atok esana ikasleak bikatu, ato bera zela errepikatzailea. Jakinduriazko esakunak eskola bereko ziran. *Eduba Utu* iduzkiaren *edu-pe* zegoenez gero, Sumerreko jakinduria *Utu/edu* eta *axola* gogarazten ditu maiz:

“Lehialtasun ohialak haizetan untziz ugarotzen denari, Utuk ate (portu) ona atontzen dio beti. Asmo txarrez ugarotzen denari, ostera, lur ertzetik urrun, hondamendira gidatzen du”<sup>9</sup>.

Giza sorkuntzan gurasoak jainko ordekarari direla aipatzen du jakinduria berriak eta hain burubidez haienganako dedua eskatzen:

“Ez esan gero amari harrokeriarik; gorrotogarria da hori. Ez hartu ahotan zure amaren hitzak eta zure jainkoarenak. Ama Utu bezala da, gizakia erditzen du, (...) aita jainkoa bezala da, bere hitza, ziurra”<sup>10</sup>.

“*Aitaren aholkua, semearen mantenua*” dino euskal esakunak ere eta, areago, “*gurasoen mintzaira utziz, heien arima da ukatzen*”.

Auziak eta auzilariak ez dute ospe onik Sumerren: “Ez joan auzi

7 *El debate entre Enkimansum y Girine'isa*, 7-8, DB.nº 26

8 *El escriba y el granuja de su hijo*, 49-60, DB, nº 26. Cf: *gizatasuna, gizabidea* testu honetan aipatzen da lehengo. (Biltzailearen nota)

9 *Proverbios de la col. sumeria I*, 86-87, DB, nº 26

10 *La Enseñanza de Shuruppak*, 257-260

ra bertan gelditzekotan: ez joan iskanbila dagoen tokira: liskareroek kalte egingo lizueke, lekukotzat hartu eta gero zeurea ez den auzira eramango zindukete”<sup>11</sup>. Euskal jakinduriak ere auziaren ondoreak azterten ditu eta auzi baten bi galtzaile ikusten: “*auziaren buruan galtzailea larru gorri, irabaslea atorra has*” edo “*minegaz irabazi eta lepoagaz pagau*”, “*mingaina ortzak baino aurrerago ateratzea, arrixku handia*” bai-da.

Sumerrek gezurrezko irainari buruz ohar jakinak egiten ditu: “Esan zak gezur bat eta gero egia bat eta egia gezurtzat hartuko ditek”<sup>12</sup>. Gure esakunak honela dino: “*beti gezur erraiten duenak ez du inor ere tronpatzen*”. Argi egitea kostatzen da, baina, “*urak eta egiak bere bidea egiten dute*”, zeren “*gezurak egia labaindu, egiak gezurra amildu*” bai-duen. Beraz “*ezak egin gezurrezko irainik (...) jendeaz ondo mintza hadi. Gezurtiak eta gaizki hitz egiten duenak sorrak ordaindu behar dizkio Shamasi (Utu) (...) Ez bedi deslaitu hire mihina, gorde ezpainak*”<sup>13</sup>, izan ere, “*iraina, arrazorik ez daukenen errazoia*” duk eta “*iraina egitea baino jasatea hobe*”.

Jakinduriak itun oneko adizkidea estimatzen erakusten du eta gizarteko arinkeriatik alde egiten:

“Etzak aintzat hartu gizon barregarria, (urrezko untzia dik salgai) bere prezioa shekel hirurena. Estima ezak, ostera, aholku oneko gizona. Bere prezioa...haren gogokoa, bihotzaren dohaia”<sup>14</sup>.

Hagatik esaten du gure esakunak ere: “*kontzeilu ona, urre ona*” eta “*aholkulariak milatik bat*” eta, alderantiz, “*gaurko barrie, bixerko negarra*”, “*nahi duenak gertatu parragarri, bere buruaz hitzeggin*” edo “*irri egin araziz, ez zatela zuhaur irri egingarri bilaka*”.

Gizarteko ohitura batzuk, arruntak direlarik ere, arteziatzko ornigarriak ematen dira, hala nola “*neska itxusia itxura ona egiten dion jantzi politaz apaintzen da jaietan*”<sup>16</sup> eta bide beretik, “*semea etena*

11 *Consejos de sabiduría*, 31-35, DB, nº 26

12 *Proverbios de la col. sumeria VII*, 89

13 *Consejos de sabiduría*, 127-131. Ohar: makurrean euskal esakunak

14 *La Enseñanza de Shube awilum* (Ugarit), III, 16-20.

15 *Ibidem*, III, 13

16 *La Instrucción de Dwa-Jeti*, 30, DB, nº 10

ta asea, alaba jantzia eta gosea” gure esakunetan agertzen denez.

### 3.1.2. Egiptoko idazkola eta jakinduria

Jakinduria zaharreko eskola Egiptoko Enperio Zaharrean erregeen aretoan edo apaizen tenploan ematen zan, teologiaren eta lurrean jainko ordezkari zen Faraoiaren serbitzuan zegoan. Hala ere, Erdi Enperiotik hara, jakinduria herrikoi eta herri eskubideko eskola egin zan. *Renenet* jainkosa dager idazkola honen zaindari. *Renenet/errientza* “eskola maistra” da arketipoak biurrituz, *errientgu* “maisur ofizioa” den bezala eta *eraendu* gaztelaniazko “regir”. *Erra+guen>erregina>regina*<sup>(1)</sup> dator. Egiptoko Anii zaharrak (1.500 K.a.) amaren ardurak gogorazten dizkio semeari:

“Eskolara eramaten zintun letrak ikastera eta zeure zain gelditzen zan egunero, etxean ogia eta edakia zuretzat prest zuela”<sup>17</sup>.

Etxe aldameneko *esku ola* abelkumeen heztegia zan, tokizenetan ere agertzen denez. Izena/izana eta helburua, emanak zirenez, inoren damurik gabe, eztalakoan umeak hezteko guneari ere analogiaz *eskola>schola*<sup>(2)</sup> eta *skole*<sup>(3)</sup> deitzea onartu zan. Ama ardurak eta *exe>etxe* bera dira hezle, eta “*umearen zentzuna, etxean entzuna*” edo “*etxean ikasten ez dena, kanpoan ere ez*” esakerak dinon bezala.

Errege arduradunak zahartzaroan ohar dagio bere semeari:

“Auzi-mahaian arduradun bezala jardun behar duzunean (...) ez zaitez izan juzoan aldekeri, hitz egin behar duzunean (...) Ahal bestean, auzilariak, erabakia bere aldera errotekotan, ez diezaiela haurzaimaisueri arazotik eresi. Oreka ezazu zure ekintza benetako zuzenbidera”<sup>18</sup>.


Euskal esakerak dinonez “*zuzentasunak ez dauka ezker-eskuinik*” edo “*zegik ezer, endorea, entzun artean bestea*”. Ptah-Hotep arduradunak makila du eskuan, bada ezpadan (ikus irudian) eta euskal esakunak argitzen du: “*zuzena ez doa urrutira, makilarik gabe*”.

Heziketan zer egin ezeze, zergatik edo zerarren egin aipatzen da, gizatasun zioak jainko arrazioez ornitzen direla: “Arrakasta ez da gizakien lorea; era batekoa da bere asmoa eta bestelakoa

17 *La Sabiduría de Anii*, XXXVIII, DB. n<sup>o</sup> 10

18 *Las máximas de Ptah-Hotep*, 13, 1-4, DB, n 10.





Ptah-Hotep, Egiptoko Isesi errege ordezkaria "Esakunak" liburua idatzi zuena (2.560.K.a) samatik dindilik zindunaren zinginarria eta esku-man makila daroela. Ptah-Hotep-ek esakunetan ohar egiten dio semeari heziketa onaren izenean, arduran apal, auzian zuzen izanik, diru-zaintzan ezeukien sorospena kontuan izan zezan. Bizkaian urietako endoreek ezin zezaketen makilarik eraman lur lauan. (*Bizkaiko Forua*, 2.9)

bizitzaren Jaunarena<sup>19</sup>". Horrelatsu dino euskal jakinduriak ere: "Gizonak asma, Jainkoak xeda", "gizonak dio hola, Jainkoak aldiz hala", "gizakiak dino gauza bat eta Jainkoak beste bat" edo bizi eskarmendu helduagoz: "Jainkoak ate bat izten deustu eta beste bat idekiten" eta "galdatuz gero, Jainkoak gauza bat ezpada, betea ematen du". Gizabidea ohitura zuzen egin asmotan, alaben eskolarako oharra amaren ahotan maiz entzun izan ditugu umetan, hala "Jainkoarren", "Jainkoaren amoniarren". Egitiar jakinduriak ere ez du aztutzen jainko arrazioa:

"Hobe da pobretasuna Jainkoaren eskuan, ugaritasuna garautegian baino. Hobe ogia bihotz poztasunean, aberastasunak oinazetan baino"<sup>20</sup>.

Eta euskarak bildu jakinduriak: "ondasunak baino izen ona hobe". Egitiar jakinduriaren arabera: "hobe da Jainkoak ematen dizun neurria, ezik ez ehun bidegabe irabaziak: egun bat ere ez bai-dute iraungo garautegian edo okuiluan"<sup>21</sup> eta euskal jakinduriaren gardiz: "ondasun bidebakoak, deabruak ekarri eta deabruak eroan"

19 *La Sabiduría de Anii*, XLIV, DB., nº 10.

20 *La Enseñanza de Amenemope*, IX, 5-8, DB., nº 10.

21 *Ibidem*, IX, 19-21

eta “*aberastasun gaizki bildua agortuko da, hala nola uharria*”.

Soro-baratzetako mugak zaindu ardura hartzen du egitiar ja-kinduriak eta Jainkoa zuzen-okerren begirale aitortzen:

Ez mugi soloko mugarriak, ez eta ere zuinariak, (...) ez irrika lur ukondorik ere, edo alargunaren mugarik gainditu. Sordanbiderik zelaian guzurrezko zin eta guzti ukatu nahi duenari Tothen sareak oratuko dio, (...) bizia kendu asmo bai-du halakoak<sup>22</sup>.

Bizkaiko Foruak ere halatsuko oharra egiten du: “biderik ez dagiala inork zugatzez edo itxitura batez ezereztu” (3,27), bideak urtean behin ikuskatu eta konpontzera behartzen du arduraduna (10, 37) eta bidigazak eta abeurreak zelan ipini zeazki aztertzen du (5,24).

Salmentako pisuak izan ohi dira askoren bihurrikeria:

“Ez alderatu pisurik, ez gezurtatu pisagairik, eta murriztu neurriaren laurenak (...) Ez irrika tupikirik (...) Neurria Erraren begia da eta iguingarri du aztailuen alderdi bata moztea. Iruzurrean jausten den neurlaria haren arteziak salatuko du”<sup>23</sup>.

Bizkaiko Foruak ere arduraz begiratzen ditu pisuak aburukoak izan daitezkan eta Aldunak ikuskatu ditzala eskatzen dio, errenderietan-eta iruzurrik izan ez dadin eta iruzurgileei zergak ezarriaz. (3,28)

Emazteenganako harremanetan halako oharrak irakurten dira: “Ez egik eperdirik galdu emakumearen jasarrian, ez dagikala bihotza ebatsi”<sup>24</sup> eta euskal esakunetan, berriz, “*eztemozula emazteari zeurea duzun eskua eta botherea, nahi ezpaduzu zure burua ahalketan ikusi*” edo “*emazteak gizonaren galtzak janzten dituenan, etxea gaizki*” dinonean.

22 *La Eseñanza de Aménemope*, VII, 11-19. “Bizia kendu asmoa du begian” (N.T.) Cf: “Bergia” *udjat*<sup>(e)</sup>, hortik *hudigo* edo analogia beretiko *begi* gaizto, *bekaitz*, *begizko*, *begitan* hartu, *begietan* izan, etab. Begizkoa egiten zuenari, eskuak eta arpegia garbituazo eta ur haretatik edarazi egiten zioten Euskal Herriko herri batzuetan (AZKUE, *Euskalerriko Yakintza*, I,124)

23 *Ibidem*, XVII, 17-18; XVIII, 21; XIX,1-3, DB., n° 10. Cf: (NT) Neurri zehatzari *udja*<sup>(e)</sup> deitzen zaio, guk “begi ona, deinu=tino” esan ohi dugun lez. “Ez alderatu pisurik”, *aldata*>*ladear*, *alderatu*>*alterar*>*alte*>*alde* “lado, diferencia”. Hor ikusten da “*alterar* el orden” bezelako esakeren analogia nondikoa den.

24 *La Sabiduría de Anii*, LI, DB. n° 10

## ONDOREA

Izadiko jakinduriaren lezioak berdinak dira toki guztietan eta hasiera bateko kulturak, hizkuntzakino, elkarren antzekoak, ziran, ereduetatik hotsera. Neolitikoan hasi ziran kulturak elkarrengandik bereizten, eta hareago jainko arketipoak giza arketipoekin nabas-tarrea hartuala, gizakia bere kisa gizartea antolatzen hasi zenean.

Umekoak jainkoen zuzentasuna ez baitan jartzen bazuan, bere burutik ikasi beharko zuan akatsak bereak zirena. Askatasunak gizakia jainkotxo izatera bultzatzen du eta ondorioz beregan eskarmendatu behar du hain dohaiaren gozamenen jokatzeko, burunahiko denetz eta gizarteak "Jainkoarren" zuzura nahi ez badu, zuzutzaz grinak heztea dagokiola gizatasunaren izenean.

Jakinduria zaharrean, mitoaren garaian alegia, jainkoak ziran zuzenbidearen egile eta begirale, jakinduria berrian, ordea, jainkoek gizakia jakinduriaz burunahiko egin zuenean, gizaki jakina bera da besteen aholkari eta berak izan behar zuan zuzentzaren arduradun, jainkoen ereduari jarraiki eta eurak zirela zaindari. Eta gizakia ez badator legearen esaneko, gizabidezko eskolaz hezi behar da, hanartean abele bezaketan eta landare ezetiketan basakeria urtikatzen ikasi duena norbere ondarean ere lor zezan.

Heziketa bidean lege zaharreko aginduak zut jarraitzen dute, hareago haien egia bermatzeko *Utu/edu, Anu/onu, Erra/era, Ilu/ele* jainkotiar hizkuneak iragarri behar dira edo *giza/gisa, kardia<sup>(9)</sup>/gardi, corde<sup>(9)</sup>/korde, as/jas* gizatasunezko analogiak azaldu, eta jakinduriazko esakunetan agertu: "Jainkoak ba daki", "Jainkoak bakarrik egiten du nahi duen guztia", "Jainkoak beharren arauera kuraia ematen du", "bakoitzari berea, Jaungoia-aren legea", gizonak asma, Jainkoak xeda", "ongi dabilena Jainkoak laguntzen du", "Jainkoaz oroi ez denak aise ahanzten du eginbidea", etab.

Gizakiaren gizarte berriaren sorkuntzan gizakiak berak hartu behar du jainkoen ordezkari-tza, berak bere kisa aukeratutako ondarean bera delako arduradun eta berak burutu behar duela-ko, hanartean jasoriko eskola unean uneko ginik.

## IV. GIZA ZUZENTZAKO LEGEAK ETA FORUAK

Hasiera bateko jakinduria zaharrean nahiko konponbide zan giza bihotzetan eta adimenean idatzita zegoen legea, baina gizartea ugarituz, zuduak ere handitu zirenez gero, *auzo/auzi* gertatzen zan eta *uri/urri* edo *iri/irri*: buruausteak ugaritu zitzaizkion gizarteari eta uriko *ensi*<sup>(6)</sup> nagusiak orduan bere gain hartu zuan aginduak ezarteko jainko ardura, guraso ardura bera bezala, bakean eta zorionean jardutzeko zer egin behar ez zen ohartuz eta gaiztakeria bakoitza, jainkoek orokorrean bezala, orde egokiaz zigorturik.

Ur-Nammu erregea salerosketan zer den zilegia eta zer ez dena finkatzeko, merkatuko neurriak barrizten hasi zan:

“Kuperazko aspila egin nuan eta 10 *silá* neurriko finkatu (...) benetako harri sikloa finkatu nuan 1/60 minatan”.

Neurri eta pisuei dagokienez Ur-Nammuren salmentako zuzenaren ardura bera dager oraindino *Bizkaiko Foruan* ere:

“ Bizkaiko Oletan landuriko burdinaren kintal-pisuak ehun eta berrogeitalau libra daukazala, libra bakotxa hamasei ontzakoa izanik; eta Ola batzuetan eta Erreterietan haudioagoak izaten direnez, eztabaida sortzen zala (...) eta Oletako eta Erreterietako pisua bardina izan daitela; Erreteri eta Ola bakotzak librazio pisuak euki dagizala” (28,3).

Ur-Nammuk Eufrates eta Tigris ibarratetako baratzak lantzeko ardura hartzen du, hatarako eskola ematera ordezkariak bidaltzen dituela, eta bide batez, hamarrenak biltzera. Pobreen eta alargunen alde egin lanak aipatzen ditu eta, mesedeak egitean, ez dela ezelako aidekeriaz lerratu ziurtatzen du:

“Ez dut inor lanera behartu; gaiztakeria, etsaigoa eta kexuak

1 Cf: *silá/zil* den “neurria/legezko” da. Analogia beti doa materiako sorgutik gogozko balorea adieraztera, *hesi/hezi* bezala. Hatarako euskarak *s/z* aurkatzen ditu; *artesi/artezi* bezala. (Ikus F. ZUBIAGA, *Analogía, arte del lenguaje, según el vascuence*, o.c.,p.76) \**Sileki*>*zilegi* dator, halako “hari mota/legezko” adieerazten eta *silez*>*silex*<sup>(7)</sup>. Hortik sortu bide da *zilar*<*zil+arri* “plata” edo *silver*<sup>(8)</sup> *bera*, *benetazko* dena. Orobat, *silá+ko*> *siklo* datorke eta, diru borobila zenetik, *siclo/ciclo* hizkune egiten.

aihenatu ditut; zuzenbidea ezarri dut herrian”<sup>2</sup>.

Herriaren aurrean halako eredia agerturik, arauak ezarten hasi ziteken. “Beraz: 1. Inork eraikitarik egin baleza heriotzera emana izan bedi halakoa, 2. Inor bide-lapur izan bada, bedi heriotzera emana”. Hiru mila ta zazpireun urte geroago *Bizkaiko Foruan* su armez hil edo ausartzen direnen aurkako zigorra agertzen da:

“sut-autsezko (polborazko) tirorik inori jaurtitzen dautsonak aspi-keritsuaren herio-zigorra izan dagiala, tiroz kalterik egin ezarren bere, eta jaurtitzeko agindu dauan Jaun edo aide nagusiak zigor hori berori izan dagiala” (34,9)<sup>4</sup>

Foruak ere elizatean lapur salatuak atxilotu daitezkeela, epaituak eta legegatuak eta auzipetuak izan zitezen eta herriko inork haiei ez ostatu, ez laguntzarik ematea debekatzuz, eskutatzaileen ataleko lehen legean (1,10).

Ur-Nammuk zin egitea ontzat ezeze, beharrezko hartzen du: “Norbait lekukotzat aurkeztu izan eta zin egitera ukatzen bada, beretik ordainduko du, auzia jokutzen den kopuruaren arabera”<sup>5</sup>. Zin egitea jainkoren bat lekukotzat jarri eta haren juzoa norbere gain ezartea, eta funtsean norbere kontrako birau egitea, hala ez baldin balitza<sup>6</sup>. Ezagunak dira *ala Inko (ala<sup>(b)</sup>)*, *berton hiltzeko*, *arraioak ezpadu*, etab. zinitzak. Ezagunak, halaber, *zindunari* lepotik ezarten zitzaion zinginarria. Zin egiteko ohitura jarraitzen du *Bizkaiko Foruak* ere, ohikunean ardura jartzen duela:

“alderdi bata besteari Auziaren eta salakuntzaren erabagia Zin bidez eskatzen badautso, horretarako bere Zin-eliza aukeraturik, hori egin

2 *Las Leyes de Ur-Nammu, Introducción*, DB., n<sup>o</sup> 15

3 *Ibidem* 1-2.

4 Su-armak ohiturazko burruken tentua apurtu eta matxinadarako indar bezala presta zitezken. Hagatik bide da halako zigorra.

5 *Las Leyes de Ur-Nammu*, 29, DB, n<sup>o</sup> 15.

6 Jainko arkétipo hakoitzak berea duke, hala *An* > *ainen*, *Erra* > *arraio*, *Horu* > *buro/birau*, *Ilu* > *ala*, *Sin*<sup>(a)</sup> > *zin*. *Sin* < *Su-en* “iretargi” Ur eta Jaranen oratu jainkoa zan. (LIMET, H, “LUNA (en Mesopotamia)”, DR, o.c., p.1040) eta handik hona *Itxina* edo *Txindoki* bezalako mendietan santutegirik izan duena. Hortik *sinetsi*, *sinistu* aitormenak edo *sino* “adu” eta *sinu* “iretaragi arpegikerak”. *Sin/zin* dator hizkunez, 1<sup>o</sup> notan aipatu hizkuntza arteziaz.

daitekela eta Zin hori baliozkoa izan daitela; eta beste alderdia Zin ori onartzea eta eliza haretan egitera behartu daitela; eta Epaikariak onartu ta eskatu egin behar dauela alderdien nahierara makurturik, Eskaria bosteun maraiz behetiko izan ezik. Holakoan, bada, Epaikariaren aurre an eta Gurutzearen gainean Zin egin dagiala, eta Zin hau eliza haretan eta Eskribauaren aurrean egin behar dala eta egin bere Ebanjelioaren eta Gurutzearen gainean ontzat ebanak egin behar dauala”(13,1).

*Zin* egitea *sinistetik* datorrenez, auzitan ere ezin ekidin Jainko egiaren lekukotasuna eta izena, lege zaharreko aginduak beragandikoak direnez gero eta giza zindotasuna berez ez delako sinisgarri.

#### 4.1. Sumer eta Akadeko legegileen aginpidea

Zuzentasun ereduak jainkoak jarraitzen zuten izaten eta erregeak argi agertzen zuan haiegandik hartu oharra eta haien izenean hartzen zuela eginkizunerako adorea eta, berez, inor gutxi zela (Ikus errege miniatura 49 or.) eta hala dakus bere burua “artzain apal” Isin, Akade eta Sumerreko Lipit-Istar errege, Nippur uriko semeak, Ur uriko laborariak:

“An eta Enlilek herria jaurritzera deitu ziotenean Lipit-Istar, esaneko artzainari (...) orduan neure oldez askatasun adua lortuazuan Nippur, Ur eta Isin uriko seme-alabentzat eta Akadentzat, jopuen uztarria lepoan ezarrita zutenentzat<sup>7</sup>.

An, haren alaba Nininsina eta Enlil jainkoengandik hartu zuan Lipit-Istarrek errege ardura eta Utu jainkogandiko ituna:

“Uturen hitz dustoaz, juzo zuzenak egiaz burutu ahal izan ditut Sumer eta Akadentzat; Enlilen aldarrikatzeaz, nik Lipit-Istar Enlilen semeak, gaiztakeria eta marmariak ahienatu ditut benetan ahoetatik; negar, samin eta alamen bide diren juzoak galazo ditut hanean; zuzentasuna eta eskubidea nabariazi ditut, alegia; Sumerren eta Akaden ongi-izatea izan bai-dut benetako edukizun<sup>8</sup>.”

Lipit-Istarrek jainkoen eskubide eta itunbenaz ziharduan, baina Bizkaiko Jaunerriak herriko eskubide eta ohiturak jaso eta “forua barriztatu behar izan zuenean” (11 or.), Jaunerriko ordezkari guztiak batu ezeze, euskal hitzak erderaratzeko aukeratuak Jain-

7 *Las Leyes de Lipit-Istar, Prólogo, DB., n° 15.*

8 *Ibidem, Epílogo.*




Hammurabi erregea Shamas (Utu) jainkoaren aurrean zutunik, zuzentasun jainkoagandik zuzentza egiteko eskubidea jasoten. Hammurabiren eskua ahotan otoi keinuz dager. Jainkoak sumertar eratako tunturroa janzen du buruan (Ikus 29 or) Irudiak Hammurabiren lege idatzien oroitarria burutzen du. "Neu naiz Hammurabi, zuzentasun erregea, Shamasek egiaren jabe egin duena. Nire hitzak aukeratuak eta berdingabeak dira; ez dira hutsalak, inozoarentzat izan ezik, ikasiarentzat, ordea, goralpenak merezi ditu"(H. Legedia, Amaian).

koaren eta Gurutzearen aurrean zin eta boru eginez bermatu behar izan zuten euren zintzotasuna.

"Zuetariko bakoitxak Jainkoari, Andra Mariari eta Zeru Gorteko Santu guztiei eta zeuon eskuz ikutu dituzuen Gurutze eta Ebangelioari, Bizkaiko Foru, usuario, ohitura, Lege Berezi eta Herri Eskubideak barriztazeko Jaurerri Noble eta Lehial honetako Batzarrak (...) emoniko ahalmena artez erabiliko dozuela zin dagioezue, egiteko hau ondo, zintzota lehialkiro eta ezetariko gorroto, alderdikeria, azpikeria ta izururrik бага beterik". (or.16)

Lipit-Istar erregeari aginpidea jainkoek emon ziotela aitortzen da (1934 K.a), baina *Bizkaiko Forua* (1638 K.o) berriztatu behar zuten aukeratuak, Herriko Batzarragandik jaso zuten.

Hammurabi legegile ospetsuaren garaian Isin uritik Babiloniara



Hammurabi, zutunik, exerita dagoen Shamas jainkoaren aurreran. Dioritazko Zutabearen Sumerreko ziri eran idatzia dager legedia, eskumatik ezkerrera eta gotik behera irakurten dira 39 zerrendak. Zutabeak 2,25 m. luzera du. Babilonian (1792 K.a.) agindua, Susan aurkitua eta gaur Louvreko museuan erakusten da.

aldatzen da agintea eta sumereraz barik, akaderaz aritzen da, baina sumerieraren idazkera eta egitura berdinean. An eta Enlil jainkoen ondoan, haien semetzako Marduk aipatzen da, Shamas, Uturen ordeza eta Ishhar, *Telitu* “txit ahaltsu” goitizenez, Inannaren ordeza. “Ishtarren kutuna, hori neu naz!” aitortzen du Hammurabik eta beste behin “Telitu jainkosaren kutuna”. Bere buruaz ez dino “artzain apal” denik, “printze tukutsua” baino, bere mendeko herrietan Nippur *Duranki* aipatzen du, hantxe kokatzen bai-zen *Ekur* mendi santutegia eta hango arduradun zintzo eta Sumer eta Akadeko errege aitortzen dela<sup>9</sup>. Berak egin lanaz nahiko burueritsi dager:

“Jainko gurenak izentatu egin naute eta makila zuzenaz babesten duen artzaina naiz. Nere geriza ongilea nere uriaren gainera zabaldu da; neure altsoan eduki izan ditut Sumer eta Akadeko jendeak; neure Adu Onari esker joritu dira: bakean jaurritu ditut, neure eskarmenduz gorde ditut”<sup>10</sup>.

Hanarteko araudiak oltxoetan idatziak ziran, baina Hammurabik

9 *Las Leyes de Hammurabi, Prólogo*, DB. n<sup>o</sup> 115. Cf: *Duranki*<sup>(s)</sup> “zeru lurren arteko lotura” (*Ibi*, 94 or.) *Utu.Ra.An.Ki*, hala da eguzkia goi-beheak egunero lotzean. *Ekur/arroka ekuri* edo *gorku* bera zan santutegia. Horrela *Ekurmendi/Urkomendi* edo *Ekurrola/Urkola* eta *Urkiolamendi* bezalako santutegirik ba dago Durango aldean, *Ekur/Urk* da arketipoen itzuliketaz. *Telitu*<sup>(w)</sup> “txik altu>ahaltsu”, *Tellitumendi* santutegi eta guzti Bizkaian. Hortik dator *zelütik>coelitus*<sup>(0)</sup> *zelatu*-ardura zuan nonbait, ez bai-dago *atalai* hobetik. Ospetsua da, bestalde, Mari Anbotoko jainkosari egiten zitzaion otoiiza: “Marije *Teilatuko*, gona gorrije, eutsi hagin zaharra ta ekazu barrije”.

10 *Ibidem, Epílogo*, p.70.



10 <sup>o</sup> laburgoa: KANON GANORAK ARKETIPOZ ARKETIPO						
AN	UTU	RA	ILU	KA	BA	AS
<i>onu</i>	<i>itun/zio</i>	<i>arrazio</i>	<i>aholku</i>	<i>gaztigu</i>	<i>aburu</i>	<i>esku</i>
<i>mende</i>	<i>juzo</i>	<i>arau</i>	<i>lege</i>	<i>kanon<sup>(9)</sup></i>	<i>bide</i>	<i>eskola</i>
<i>men</i>	<i>zuzen</i>	<i>artez</i>	<i>lehial</i>	<i>ganora</i>	<i>fededun</i>	<i>eskuko</i>
<i>more<sup>(9)</sup></i>	<i>uso</i>	<i>artezi</i>	<i>lakemen</i>	<i>oikura</i>	<i>baimen/foru</i>	<i>eskugo</i>
<i>mozkin</i>	<i>ixun</i>	<i>ariel</i>	<i>laka</i>	<i>kate</i>	<i>petxu</i>	<i>eskupeko</i>

Ohar: onutik mozkinera, itunetik ixunera edo arraziotik arielera, aholkutik lakara, bezala, zuzenbidea egiteko artezia dago eta bideak eskolatzen herria.

zigorraren aldetik indartu ezeze, zutabe harrian idatziak eman zituan bere legeen iraunpen asmoa aditzen emateko:

“Nire erregetza beste erregeen gaineratik; nire hitzak aukeratuak dira, nire sogeriak ez du parrerik. Zeru eta lurreko juje guren Shamasen ize-nean, nire zuzutza herri honetan agertu bedi otian!, ez dezala otian inork atzindu nik Marduk Jaunaren izenean zizelatu!, nire izena baretiren beti ahoratua dadila otian, maite dudana Esagilaren onerako! ”.

Jainkoen Lege Zaharra gizarteko Lege berria egikeran gizakiak jainkoen aholku eta manua behar du, legegileek aitortzen dutenez. “*Egia Jaungoikoak eta amak*” dino euskal esakunak. Jainkoen artean jainkosaren bat agertzen da, *Bizkaiako Foru* berriztean Andrea Mariaren ospea eta babesa agertzen den bezala:

“Foru barriztatzeko aurretiaz zin eginez, eurei emon eutseen: honeek barriztatu ziran Foru zaharra eta barria batera hartu eta eurekaz eroan egiezan eta Gernika Uriko Antxinako gure Andra Mari deritzan Elizan alkartu eitezan; eta Eliza haren barruan eurek barriztatu zituen Lege zahar eta barriez liburu barri bat egin egiela, Legeok atalka ta zatika banandurik eta Lege bakotxaren adiera idazkera on eta argiz garbi-garbi azalduarik; eta eurek onartu ta barriztau eben Foruen atalik edo Legerik, maminezko izan zeitekenetan zerbait erantziz edo moztuz, aldatu barik liburuia idatzi egiela”(20 or.)

Zin egitea giza eskubideetan jainkoei esku ematea da. Zin egiten da auzian beste frogarik ez dagoenean, eta orduan norbaitek zina ukatzea asmo txar edo erru seinalea zan. Zin egiten da eta zina buroz indartzen, herri arazo edo arauen zaintzako arduradunen asmo zuzena eta erabagia ziurtatzeko. Hala antxinako Sumer eta Akadeko arauetan, eta gure oroitzako Bizkaiko Foruan.

#### 4.2. Zintzoei ta biurriei zegokien sari edo zigorra

Jakinduria zahararentzat sari/zigorren legea argi dago. “Jainkoak zuzena saritu eta gaiztoa zigortu egiten du”, hau da, Jainko legeen jarrailea saritu eta lege-auslea, berriz, zigortu. Zuzen eta artez izatea *Utu/Ra* jainkoei zegokienez, zigorra ere euren arketipoetatik analogizatzen da *txi/erre* edo *usuri/urtu*, sua ta ura izan baiziran Ugoldeko *txi>txigor>zigorrak*. Hagatik dino jakinduriak “*ura eta sua lagun onak, baina arerio txarrak*”, edo bestelako zentzaldian, “*Jainkok makila barik zigortzen du*”, “Jaungoikoaren zigorra”, etab.

Legegileek ere euren asmameneko goitar ereduak jarraitzen dituzte euren gisara, ots, saritzen baino zigortzen ekinagoak direla, giza jakinduriak dinonez. Saritzeko, nahiko du “*Jaungoikoak ordainduko dizu*”, “*Jaungoikoak pageukotzu*” esatea, baina zigortzeko atrikulu geheiago erabiltzen da: “*zigor gabeko legea, mingain gabeko txilina*”, “*ikusi orduko zigorra, ikasten du gorrak*”, “*bat zigortu, bost bildurtu*”, “*zigortzen ez den falta, beste askoren aita*”, etab.

Lipit-Istarrek ongia opa die bere aginduak gordetzen dituztenei:

“Otian urte askotako bizia izan dezala, nire lana kaltetzen ez apurtzen ahalegintzen direnak, nire idazkisuna ezabatzen ez duenak, ez haren gainean bere izenik ezarten: Otian, Ekur (santutegian) burua jaso beza zeruraino eta haren altutik Enlilen bekoki dizdiratsuarengana itzuli!”<sup>12</sup>.

Hammurabi askosaz ere laburragoa da bere hitza aintzat har lezake-na onesten, ezertan gutxietzi lezakena kondentzen baino:

“Baldin gizaki (jakintsu) horrek nik oroitarrian idatzi hitzak arretaz hartu eta ezezten ez badu nik erabakia, nire hitzak eta zizelatuak aldatu barik, halakoa neu bezalako errege zuzena izango da; Shamasek bere makila iraunazi dezala, bere jendea zuzentasunean jaurri dezala!”<sup>13</sup>.

Gonbaragarria da 3.439 inguru urte geroago, *Bizkaiko Foru* barriztatzaileek lekuko eta Jainkoaren aurrean zin egin ta gero ze beste ardura hartzen duten, haren kunplimena gerta dadin:

“Honela egin badagizue, Jainkoa mundu honetan gorputzean lagun izan dagizuela eta beste munduan zuen Arimeari bere

11 *Las Leyes de Hammurabi, Epilogo*, DB. n<sup>o</sup> 115.

12 *Las Leyes de Lipit-Istar, Epilogo*, p. 22, DB.n<sup>o</sup> 15

13 *Las Leyes de Hammurabi, Epilogo*, p. 71, DB. n<sup>o</sup> 115

11° laburgoa: GAIZTAKERIAK ETA ZIGORRAK ARKETIPOZ ARKETIPO						
AN	UTU	RA	ILU	KA	BA	AS
amatau	etoe	harrotu	hil	kali	ebaindu	atxilotu
andeatu	doilortu	arrabiatu	liskartu	kaltetu	baldatu	aztertu
amorr	ostu	eran'erail	lapurtu	galdu	balditu	astindu
ohointza	zuntzitu	urratu	lipista	kolpatu	behartu	zauritu
antutze	juzkatu	harrapatu	lotu	gailendu	ebatzi	hesi
makilatu	txigortu	erre	lazeriatu	galendu	epaitu	estiratu
mankatu	atarri	errutu	alatu	gazitatu		eskarmentu

Paradisu Santua emon dagioela" (*Agiriak*, or.18).

Aipatu hiru eruedetan gizakiaren aldetik zintzotasuna eta, onean, Jainkoaren bedeinkapena eskatzen da eta, zintzotasunik ezean, Jainkoari egin otoia biratzen da euren kaltetan. Lipit-Istarren madarikazioak dira gelditzen diren zaharrenak eta zintzoen bedeinkazioan baino murrustuen aurka luzenagotzen dira, bere ezaba-une (...) eta guzti:

"Nire lana kaltetu edo errautsi dezana, moztu edo tokitik aldatu dezana, bertan izena jarri edo hatara beste inor bultzatu dezana, madarikazio honen indarrez, gizon hori, dela errege edo abade nausi... ihes egin bezaio, etxera joan eta beretzat ez bedi...alearen jainkoak eta abelgorrien jainkoak, ugaltasunaren jaunek, alde egin bezate haregandik... herriko uriak harentzak erauskin multzo bitez; bere herri oinarriak ekidin ezinak bezaizkio eta Ninurta, gudari gartsuak, Enlilen semeak..."<sup>14</sup>.

Madarikazioak berezko indarra zuan ordukoen jakindurian edo gure artean "*esan eta egin*" edo "*esana/izana*" hizkunean bezela, jainkoen hitzak egin eta desegiteko zuan indarra bera oratzen eta borutzen bai-zan, *arao/birao* datorren bezala *oro/boru* bai-dator giza arketipoen gehigarriaz<sup>15</sup>. Edozelan ere, boruok, gizakiak gizakiari dion mesfindatzaren seinale dira eta jainkoen zigorrari begira jartzen du, bada ezpadan ere. Froga ona dugu honetan Hammu-

14 *Las Leyes de Lipit-Istar, Epílogo*, p. 22 DB.nº 15. Cf: Ezaba uneak ... puntuekin seinalatzen dira.

15 Ikus F. , *Analogía, arte del lenguaje, según el vascuence*, p.72. *Orho/orro* otoitza da eta *boru/borhu* norbaiten gain edo norbere gain datorren zigorra, zinitzen edo madarikazio erritoaren indarrez.

rabiren madarikazioetan. Hamabi jainko-jainkosaren izena aitorzen du bere hitzari lotsa eta mena egokitzen ez direnen kontra:

Anu Gurenak, jainkoen aitak, erregetzara deitu didanak, kendu diezaiola erregetzaren diztira, puskatu makila eta madarika bere adua! (...) Ninlil, Ama Handiak, Ekur-ean eskua duenak, nere ohorea zaintzen duen Andreak, haren auzia oker dezala Enlilen aurrean (...) Shamas, zeru eta lurren Juje Nausiak (...) ez dezala bere aldeko juzorik mintza eta bere bi-deak nastau ditzala (...) Nergal, jainko indartsuenak, aurka inork ezin dion galarrenak (...) erre dezala bere *kasusu* handiaz (...) Ninkarra, Anuren alabak, haren soinetan gaitz hilgarria sor dezala, *asakku* etsai gaizto bat eta sakail osatu ezinekoa<sup>16</sup>.

Kristauen artean ere, ez dira fidatzen zin hutsaz, eta "Jainkoak kontu har diezaiela" hori boruaz indartzen da *Bizkaiko Foruan*:

"Eta besterik egin badagizue, besterik egin dagian zuetariko bakoitzari, mundu honetan oker ugariz ordaindu dagitsuela eta, bestean, zuen arimak infernuko oinzeetara bidal dagizala, Kristinau eta herritar gaiztoak izan zareelako, Jainkoaren izenean guzurrez zin egin eta egin-dako zina ausi egin dozuelako". Eta aitaturiko bakokoitzak esan eban: "Amen" (*Agiriak*, 18 or.)

Halako boruaz legegileak *oraturz/orraturz*, legea nahiko *borutu ezeze, aforatu* eta *aforratu* gelditzen ziran, erregearekiko hitzarmenak legeztu aurretik ere, *boru>foru* datorrela hizkunez, eta *oru>boru/buru*, tokizenetan *uri>buri* datorren bezala<sup>17</sup>. Jaunerriaren borutua Bizkaiko Jaunerriaren eta erregearen arteko itunbenez eta boruz bermatzen zan. Gizakien zuzentasuna hain ahula eta juzoa hain aldakorra izanik, gaur ere jujeak ohikuna sakratu nahiko erabili oi dute, antxinekoi jarraiki, ta ezin uka euren ekintzan dena beharrean aurkitzen direna.

16 *Las Leyes de Hammurabi, Epilogo*, p. 71, DB, n<sup>o</sup> 115. Cf: *Nergal* infernuko jainkoa, Ugoldeko *galarrenean* zeru anteparako ateak askatu zituena. Hagatik *galarren/Nergal* da arketipo itzuliaz. *Nin.Karra* "Andre Garra", "Andre Urraka/Urrika" arketipo bereko, Mari Anbotokoaren izengoitietariko. *Erra/Girra*, jainko aserrekorra, ezaguna zan Babilonian. *Asakku* edo *asag* otoz-otoan erasoz, buruñan *sakoa* eginik gaisoa *azagan* uzten zutenetarikoa. (LIMET, H. "DEMONIOLOGIA (religi3n sumera-acadia)", DR., o.c., p. 416-417.

17 ELIX ZUBIAGA, *La onomática, óido de la prehistoria, según el vasculence*, o.c., p. 22-23. Cf: Hainbeste *boruz borogatu* ezkerero, zer beste *borogurik* behar zan? Bera zan *froga/prueua* onena zientziak eskurik ez duen arloan.

### 4.3. Sumerreko Legeen edukina

Ur-Nammuren Legeak eraillketaz eta lapurretaz landa, familia arteko jopuen bizibideaz, emakume eta emazteen zoriaz, pertso- nei egin kalteaz, sorginkeriaz, etab. arautzen du:

“5. Jopu bat aitor alabarekin ezkontzen bada, seme bat utzi beharko du ugazabarengat (...) baina aitak ezingo ditu emazte aitorraren beste semeak jopu eman, errege baimen barik” (...) 13. Norbaitek inor.... salatu eta ordalean jainko-ibaira behartu baleza, eta jainko-ibaiak errugabe epaituko balu salatua, salatzaileak zilarrezko 3 siklo ordainduko dizkio”<sup>17</sup>.

*Jopu*<sup>18</sup> hitza “esclavo” adierazteko erabilia izan da, baina jakinduria zaharrak arrastoren bat utzi digu, haien bizi askatasunari buruz: “*Jopua ta adizkidea ez txiro ez aberatz*”, zeren behartsua balitz, lapur izango litzateke, eta aberatza izatekotan, ez luke lanik egingo; “*etxean jopua eta oilarra urte betean asko da*” edo “*urteen goiengan, jopua jaubeen aldean*”. Jakinduria honen arabera, *jopu* <“Utu seme” dator, *Nabu* “An seme”, *Arreba* “Erraren alaba” eta “*Alaba* “Alaren umea” bezala. Hurritarren artean *hupshu* “pobre” zan.

Ur-Nammuren 13-garren arauak sorgingo salapenez dihardu, Hammurabiren 2-garrenaren antzeko delarik. Sorginen mundua gauza ezezaguna zenez, legegile zaharrek, bada ezpadan, ez ziran ausartzen euren eskuz sorginik zigortzen, hagatik ibai-jainkoaren epaia ordalezten zuten, *ibai/epai* datorrela antxinatik hizkune egiten. Sorginei dagokienez, Euskalerrian ohiturak egon dira, legeak baino hareago: “andre begi gorria, sorgin”, “baratxuria, sorginen kontra”, “sapoak eta sorginak erre” abesten zan Donien sutean, “Eibarren suarmak egin zirenean, desagertu ziran sorginak”, baina bestalde *sorgin* “maitagarri” zentzua ere badu zenbait hitzen konposizioan “sorgin-dantza, sorgin-opil, sorgin afari, sorgin bitxi”, etab.

Lipit-Istarren Arauditik gelditzen diren arauak ondasunak eta oinordekotza dute gehien bat arduratan:

“31. Bizian guraso aitak seme kutunenari eskeintza bat egin eta siluz

17 *Las Leyes de Ur-Nammu*, 5,13, DB, n<sup>o</sup> 15

18 *Utu* eduko pertsonak *tio>ziu>zu>su* eta *tio>tto>txo>yo* edo *tio>yi>hi* egiten dute eta *jopu* “nor/jaun” horren “peko, menpeko” da eta hareago, *hupshu*<sup>(hur)</sup> formak bezala, pekotasun arketipoa aurretik badu.

bahiesten badio, aita hiltean, oinordekoak ondasunak banantzen dituzte, baina ezingo dute banandu eskeintzako zatia<sup>19</sup>.

Lege honek ez dino ezer alabez, baina *Tablilla UM*-ean honela dager: “2. Norbait seme barik hilten bada, senar bako alaba izango da oinordeko<sup>20</sup>. Azkoz geroago, aipatu 31. araua *Hammurabiren 165 araudian* berdintsu errepikatzen da. *Bizkaiko Foruak*, bereizketa barik, seme edo alaben aldeko oinordekotza agintzen du. Gurasoek euren etxalde guztia semeren edo alabaren bati itxirik, beste guztiak lur zati banaz baztertu daitezkeela esanez: “legezko Ezkontzako seme-alabak daukazan edozein Gizon edo Emakumek bere bizialdian edo heriotzaldian legezko Semeren edo Alabaren bati (...) bere ondasun mogikor eta lur-ondasun guztiak itzi daikeozala, beste seme-alaba eta ondorengoak, nahiz eta legezko Ezkontzatiakoak izan, lur zati bana, txiki edo haundi, emonda baztarturik”. (20, 11.13)

Baina ze oinordetza dagokie bigarren eta hirugarren ezkontzako seme-alabei? Auzi hau antxinatik aztertuta dager:

“Norbaitek emaztea hartu eta semeak izan eta hilten delarik, beste emazte bat ezkontzan hartu eta hagandik ere semeak izanik, aita hil dadinean, haren ondorengoak ez dituzte amen doteen arabera ondasunak banatuko, ezpaere amen dotea aparte banatu baizik, guraso aitaren ondasunak denentzat direla<sup>21</sup>.”

*Bizkaiko Forua* arazo hau oinarrizko ondasunen alde erabagitzen du: “lehen Ezkontzara ezkon-sariz edo emoiz ekarritakoak lur-ondasunak baldin badira, Ezkontza horretako humerik edo ondorengorik izan ezkerro ta bizirik dan aita edo ama birritan edo gehiagotan ezkonduko balitz, eta bigarrenez eta hirugarrenez eskonduta gero, senaremazteek lehen Ezkontzara eskon-sariz edo emoiz ekarritako ondasunetan etxe edo erein edo hobekuntzak egingo balebez, ondasun guztion jabetza lehen Ezkontzakumeak izan dagieze-la, etxe, solo, obari eta guzti, lehen Ezkontzakumeak horrela hobetu edo egin dauanaren erdia bigarren edo hirugarren ezkontzara kanpotik etorri dan gizonari edo emakumeari ta honen oinordeko

19 *Las Leyes de Lipit-Istar*, 31, DB, n<sup>o</sup> 15

20 *Otras Leyes sumerias, Tablilla UM*, 2, DB, n<sup>o</sup> 15

21 *Las Leyes de Hammurabi*, 167, DB., n<sup>o</sup> 15.

ei ordaintzera behartu ezkeru, hobekuntzaren balioa hiru gizon zintzogan ezarririk (...) hobetutako erdiaz jabetu dan egunetik urte betera ordaintzera behartu daitela” (20,4).

Andre gizonen arteko istiluak ebazteko lege asko idatzi ziran:

“Norbaitek bere lehen emaztea, semerik eman ez diola-ta, iguintzen badu, bere prezioaren bestekoa emango dio eta gainera bere dotea osorik bihurtuko”<sup>22</sup>.

*Bizkaiko Foruan* ere ba dager antzekorik: “Ezkon-saria edo arrioa dakarrela, baserrira etorri dana andrea dala, umerik izan ez eta ezkontza askatu baldedi (...) bakotxak bere eskatu daikela eta bere ezkon-saria kitatu arte frutuen gozamina ezer gutxitu baga izan dagiala, eta urte bete ta egun bat igaro eta gero, agiria eskeinirik, urten eragin daikiola, eta lehenago ez”.(20,2)

Neska bortxaketaz honela erabagitzen du sumertar legediak:

“Norbaitek norbaiten alaba kalean bortxatzen badu, gurasoek han zegoelakoa jakin gabe, eta alabak aitari eta amari badinotse “bortxatu egin nau”, aitik eta amak ezkontzan emango diote (mutilari)”<sup>23</sup>.

*Bizkaiko Foruan* ere, nahiz eta beste zehaztasun askoren artean, jasotzen da auzi hau: “uletortadun neskak izan eta galdu egin zituela hareen aurka salaturik eta, galtze hau dala bide, Erreinu honetako Legeak agintzen dauana egin daitela ta ezkon-saria emon daikiela eskaturik.” (12, 4)

Abereek soloetan egin kalteez zera abasten du sumertar legeak:

“34. “Norbaitek idia akuran hartu eta bizkarra uldutzen badio..., haren prezio erdia ordainduko du”<sup>24</sup>.

Antzeko auzian, *Bizkaiko Foruak* basoko eta larreko idiren bati egin kalteaz, honela dino: “inor ez daitela mendi eta larreatatik bere

22 . *Las Leyes de Hammurabi*, 138, DB. n<sup>o</sup> 115. Cf: “prezioa” adierazteko *terhatu*<sup>(a)</sup> hitza darabil, guk *tratu* dinoguna eta ezkontzan *con-tratu* bezala erabilten dena, ezkontzan *ateraten* dena, alegia, *ateratu*>*tratu* datorrenez gero. Doteaz aparte, “prezioa” aipatzen da, erosketa bat bailegon, kanta zaharrean bezala: “Nere andrea andre ona da, auzoak hala diote, erositako prezioetan pozik emango nuke”. Horra: *bere+etzi*> *beretzi*>*pretiu*<sup>(b)</sup>, *beretxitu* >*preziatu*.

23 *Otras Leyes sumerias, Tablilla YBC*, 6, DB. n<sup>o</sup> 15

24 *Las Leyes de Lipit-Istar*, 34, DB, n<sup>o</sup> 15

eskuz eta jabearen baietzik baga idirik edo beste lan-abererik eroten ausartu, ezta buztartu eta lan eragiten bere, honela eroan edo bidean zamatua ekarri edo buztarria ezarri dautson baktzeko hirureun marairen zigorpean aitaturiko idi edo abereren jabearentzat: eta honan eroan dan idirik edo abererik gal baledi, aitaturiko zigorraz gain, idi edo aberearen jabeari salneurriaren bi halako ordaintzera behartu daitela” (34,6).

Abere xume edo ardiek soloetan egin kalteaz ohar eginten da *Hammurabiren araudian*:

“58. Ate nausian ala-garaia amaitu deneko abarra ezarri ondoren eta eleak are-lurrak itzi eta gero, artzainen batek ardiak are-lurren bazkatzera bidaltzen baditu, artzainak berekotzat hartzen du alatuko lur saila eta uzta garaian *buruko* 60 *kurru* ordainduko dizkio jabeari”<sup>25</sup>.


Abereak egunero basora edo larrera aterateko eskubidea egonez, hanartean abere nausiak edo txikiak egin kalteez luze dihardu, *Bizkaiko Foruak* eta, adibidez: “norbaitek mendialdean usa edo auzo-lurra dan lekua garitarako edo beste ereite batetarako hesituko baleu, eta auzo-lur hori goialdean eta mendian dagoelako, Abereen batzuk kalte egin, onan egin dauanak ez-ustez edo etor dakioken kaltearen arriskuak berak eroan dagizala; eta Abereen jabea ez daitela ezertariko kalterik eta zigorrik ordaintzera behartu, norbaitek bere Abereak jakinen gainean ara eroan dituala jakin ezik: honan izanez gero, bada, aitaturiko zigorren eta kalteen errudun izan beite” (34,4).

#### 4.4. *Errege-legeen aurkako herri-erabakiak*

“Errege berri, lege berri” esan ohi da eta lege zaharragoa hobeto zetorkienek jarki egiten dira. Ez dute esango, hala ere, “gu lehen-go erregearen legeto gara”, errege batek besteari ez diolako asko sor. Sumertarrek lehen-go jainkoen legeak aipatzen dituzte hala-koetan, ez dituzte amoremoten euren lepoak kanpoko eskutik letorken jarraiko erregearen buztarrirako, balbiloniarrek Asiria ren aurka, adibidez, “kontuz, gure ohitura zaharra eta eskubide

25 *Las Leyes de Hammurabi*, 58, DB. n° 115 Cf: *kurru* “pisu neurria”, *buru* “solo neurria” (ibi. notan).





Antxinako Sumer ibarrate biren erdian, behetik itxasoak marra egiten diola; goian Akate, Ibarrate>Eufartes eta Ategarai>Tigris elkarren artean egiten duten estune edo ateka unean. Aldi haretatik hona ibaiak eskumara eginik, Nippur eta beste uri batzuetatik aldenduxe ematen du. Ibaiak itxas-ateak ezeze. barrurako benetako ibai>via eta ibai>ate>bide ziran lurraldean zehar.

ak ikutzerik, guk jainkoen babesa dugu-eta". Sumerian eta gero Akaden eta Babilonian kanpotarren agintea txandutzen zan, baina herri bakoitzak bere eskubideekin berdintzen zuan askatasuna:

"Errege batek eskubidea aintzat hartzen ez badu, bere herria zurruburu-ruan jausiko da eta erresuma barreiatua izango" <sup>26</sup>.

*Bizkaiko Foruak* dinonez, bizkaitarrek ez zioten menik giten Jau-nari Foruen aurkako aginduetan: "Baita esan eben: Foruz eta Legez eta frankezaz eta herri eskubidez ebela, Bizkaiko Jaunak Bizkaiko Legeen eta Foruen aurka emoniko edo emon eraginiko Errege-Eskutizik edo Erabagirik, edozertariko izanda bere, edo-ta Legeon eta Foruon aurkako izan badaiteke, zuzenka naiz zeharka, ez dai-tela bete, baina men egin bekio"(1,11).

"Sipparreko uritarra ez bidez zigortzen dela, kanpotar bati barkatzen

bazaio, Shamas, zeru-lurretako jujeak, kanpotarren legea ezarriko du haren herrian, eta halatan printzeak eta jujeak ez dira zuzenbidez arduratuko<sup>27</sup>.

Nor da, izan ere, kanpotar bat herriosemeak zigortzeko edo etxe-ko ez dena bezala juzkatzeko? Etxekoa etxeokoei epaitu behar dute, ez etxe-ko ez direnek. Halako bereizketak eskubideko emoten dira eta eskatzen *Bizkaiko Foruan* ere : “Baita esan eben; Foruz eta ohi-tura eta frankezaz eta herri-eskubidez ebela, edozelango lege-aus-tea edo gaiztakeria dala-ta, herriarena nahiz batena, haundia nahiz txikia, edozein eratako txarkeria ta astuntasuna dauala, kargudun Epaikariak egintzaz ebatzi ahal izatekoa izan nahiz ez izan, bizkaitarrari ezin dakiokela ezelango tormenturik ezarri, ez zemaika bere, ez zuzenka, ez zeharka, ez Bizkaian, ez beste inongo lekutan” (1,12)

“Nippur, Sippar eta Babiloniako jendei isuna ezarten badie edo atxilotzen baditu, isuna ezarritako uria matxinatu egingo da arras eta atzeriko etsaia atxilotuen kartzelara sartuko da<sup>28</sup>.


*Bizkaiko Forua* ere inongo isunen aurka agertzen da: “Bizkaitar guztiak eta Bizkaiko eta Enkartalde ta Durangoaldeko Aitonon semeak beti izan direla euren eskuko, kitu eta zergabako, eta orain be badira Bizkaian eta Enkartaldean eta Durangaldean izan zein erbestean izan” (1,5).

Ohartzeko dira uri eta aipatu herrialdeen izen hirukoitza eta *Nippur=Duranki* izen eta edukinean antza, eta hareago:

“Sippar, Nippur eta Babilonia mugiarazten eta hango jendea aldarri-kariaren deira aginduzko lanera edo soldaduzkara behartzen badu, Marduk, jainkoetan argien, printze eta aholkulariak etsaien eskuetan utziko du errege horren erresuma, eta halatan, bere gudariak etsaiaren lepotik lanpetuak izango dira, Anu, Enlil eta Ea zeru lurretako jainko handiak, batzarrean bere jendea halako beharlekuetatik aske aitortu dituztelako<sup>29</sup>.

27 *Advertencias a un príncipe en forma de presagios*, 9,11, DB n<sup>o</sup> 26  
28 *Ibidem*, 19,24, DB., n<sup>o</sup> 26. Cf: Mesopotamiako hiru uri eta Bizkaiko Jaunerriko hiru herrialde, Nippur sumerieraz, *Duranki* zela, *Duranki* bai-zen Ekur/Arroka, Enlilen temploa, kokatzen zen auzoa. *Durango* aldean ere, Ekur tenploa nabaria da Mañarian Legorrrako San Martinetik Urkiolakora.

29 *Ibidem*, 25-30



Fernado Katolikoak, zin ostean Bizkaiko Jaunari dagokion omena hartzen du herriko ordezkariengandik. Forua berriztean, "Lehenengo esan eben: Bizkaitarrek Lege Bereziz eta Foruz eta usarioz eta ohituraz ebela, Bizkaiko Jaun barri bakotxak, naiz aurreko Jauna ilik dalata, naiz beste edozein bideren batez Jaunerriaren jarraipena eskuratzean, adinez hamalau urtekoa baldin bada, Bizkaira berbera etorriaz, bere zinak eta agintzak barriztau egin behar dituala (...) Eta Bizkaitarrek hori eskatu ezkerro, aitaturiko onartzea ta zina egiteko urtebarruan etorriko ez balitz, aitaturiko Bizkaitarrek, nahiz Lurralde Lauan bizi, nahiz Uri eta Enkartalde ta Durangaldean bizi, ez daioela erantzun, ez urtesaripeko diran Uri ta baserrietako artuenik eta urtesaririk eroatera Jaunagana joan, ezta haren Diruzain eta Batzaileagana bere. Eta Jaun honek agindurik eta betebeharririk bitartean bidal badagi, men egin baina ez beite bete."(1,1).

*Bizkaiko Foruak*, antxinako jainkoak barik antxinako eskubideak aipatzen ditu halakoan: "Foruz, usarioz eta oituraz ebenez, naiz Bizkaiko Lurralde Lauan, naiz bertoko urietan eta Enkartalde eta Durangaldean ez Almiranterik, ez haren ordezkariarik ez izateko eskubidea dabela, horretan aske izanik; eta ez daukela haren deiari erantzun beharrik, ez itxasoz, ez lehorrez, eta hari saririk ez beste ezer emon beharrik edozergaitik bere ez dabela, ezta euren ontziekaz itxasoan edo lehorrean zerbait hartuarren bere; eta hau usarioz eta ohituraz aspaldi aspaldidanik, besterik inork bere gogoan ez daukala"(1, 9).

Hako babiloniar haiek ere ez zuten inongo erregeren alde odola

emateko borondaterik, hobetzat zuten euren buruak zaintzea:

“Erresumako gudari biltzean urritar hoiek erregeren gudariekin mugitzen baditu, Erra ahaltsuak, gudarostearen aurrelari doanak, burruka lerroa autsi eta arerioekin joango da (...) Eurekiko (jainkoekiko) hitzarmenak ezeztatzen baditu, euren harri idatziak aldatu, edo urruneko gudatera bidaldu eta lan astunetara behartu, Nabu, Esagileko eskribauak, zeru-lurretako gudaroste orokorra antolatzen duenak, izadia jaurri eta erregetza izentatzen duenak, hutsal emango ditu errege horren lurrarekiko itunbenak eta gerra egotziko dio adutzat”<sup>30</sup>.

*Bizkaiko Foruak* honela dino honetaz: “Bizkaiko Jaunak soldadutzarako dei egiten eutsen bakotxean, usarioa zanez eta ohi ebenez, beti dohan joan izan zirala, baina Lujaondoko Malato Zugatzaraino bakarrik. Leku ha baino harantzago joateko Jaunak agindu baegioe, barriz, Jaunak berak ilabete biko soldata ordaindu eragin behar dautsela, mendiz honantz izan ezkerero, mendiz harantz izan ezkerero, ostera, hiru ilabetekoa (...) eta aske izate ta herri-eskubidea hau Bizkaiko jaunek beti gorde izan ebela.” (1,5)

#### 4.5. Auzilarien kexuak Egipton

Minduru den zintzoak jainkoen zuzenbidea eskatzen du jakinduriarazko literaturan, baina kalean lapurren eskutan kaltetuak uriko zuzentasun arduradunari kontu eskatzen dio. Khunanup Egiptoko oasitarra, erosketak egitera ibarrera jatxi zenari kalean astoak eta erosketak ostu zizkioten. Rensi arduradunagana joan eta jasan zuen gaiztakeria salatzen zion. Rensik, nonbait kexuaren erretolika bitxia entzutearren, behin eta berriro etorriazten du aurrera, zuzenbidea egin aurretik, horretan bai-da, hain zuzen, idazkiaren egitura:

“Ene jaun, Arduradun Gurena, zeu zara herrialde guztiaren lemaizaina. Alde batera edo bestera intzigiu barik juzkatzen duzun Thot-en antzeko zara. Zaitex abegi oneko, jauna, gizon bat zugana auzi garbian laguntza eske datorkizunean. Ez ezaiozu etsai jarrerarik erakutsi; holarik ez litzake zure duin izango-eta”<sup>31</sup>.

Zuzentza eskabide honek liturgiako otoitzen egitura bera du: le-

30 *Advertencias a un príncipe en forma de presagios*, 35,55, DB., nº 26  
31 *El Cuento del oasisita*, VII, 268-269, DB nº 26.

hengo eregu egiten du, gero erregu, ots, aurretiz ahaldunaren zuzentasuna ta bihotz ona aitortzen ditu, hurren, hari mesedea eskatu ahal izateko. Hanartean ohar ederrik ere ematen dio epaileari:

“Norbaitek legeari oinarria jan eta araua austen duanean, lapurreta jasan duten txiroetariko bat ere ezin da bizi. Hagatik Zuzentzak kontua eskatzen dio. Soinez bete, biotzez hastun nengoen eta halako tirabiraz barne-ustu naiz (...) Nere zoritxarra osorik dager zure aurrean. Zer besterik behar duzu? Zure ezardurak galduko zaitu, zure handinahiak kaltetuko, zure eukigureak arerioak sortuaziko dizkizu (...) Hala ere, nagusiek ahienatu beharko lukete gaitza, eta onari bide egin; artetsuak eta dagoen guztia sortzeko lain”<sup>32</sup>.

Oharraz aparte, salapenetan hasiko da oasitar errimean:

“Lapur, mausari eta harrapari holakoxeak dira nausiak, gaitza estikatze deituak izanarren. Mutirien babes: horixe dira nausiek, gezurra ertzatzeko arduradunak izanarren. Hain bildurgarri zatzaizkidanez, zuri ezer eskatzetik atzendu egin beharko nintzateke; baina ez duzu ezagutzen nire barrena eta isilkor nazen hau orain zuri agirika egitera ausartzen da. Ez da eskabidea zuzentzen dion haren bildur”<sup>33</sup>.

Ipuinaren egitura eskabide errepikatuan datza, baina jujeak eskekoaren mindurikaz urgoitu beharrean, haren oharrak eta irainak edo ahoz-ahozko herri jakinduria biltzen du idazkian:

“Zuzentasun osoaren gordairu den Zuzentasunaren Jabearentzat lan egiten duzu. Zu, luma, papera, idazkortza, Thot bera, kontu gaitz egitetik! Onari ona deitzea konbeni da. Zuzena betiren betiko da eta hilerria jaisten da egiten duenarekin, baina bere izena ez da ezabatzen hemen behean, eta on eginagatik ez da aztua izango: hori bai-da Jainkoaren hitza den araudiko ondarea”<sup>34</sup>.

“*Den justuena ere egunean zazpitan erortzen bai-da*” esakunaren arabera eta, azken baten Jainko arrazioa da giza asmoen onen bermatzeko, bestela “*justizia eta garizuma pobreentzat eginak*” gerta ditezke herri jakinduria beraren arauz “(norberak jasan bidegabekeria) salatzen duena behartsu egiten bai-da, medesea

32 *El Cuento del oasita*, VII, 275-283. Cf: XII dinastiako (1991-1786) ipuina.

33 *Ibidem*, VIII, 268-269, DB n<sup>o</sup> 26. Cf: *isilkor* hitzaz egia benetan barneratzen zekitenen ganora eta bakardade zaletasuna adierazten du.

34 *Ibidem*, IX, 100 s. Cf: *Toth bera* “Toth verdaderamente” erderatzen da, latinez *vere Toth*, izan ere, *bera* “mismo” *vere* dator latinez.

eskatu beharra duen behartsu, hatan ere, eta orduan bere etsaia bere eraila bihurtzen da”<sup>35</sup>.

#### 4.6. Norbere eskuz hartuneko “zuzentza”

Herriko jujeak zuzenbiderik egiten ez dutenean, nora jo? Grekar *iketeia* eratan eskakizuna bilatu, ala “asmoz eta jakitez txikiak handia bentzuten” jakinduriaz? Norbere eskuz, zuzena egin, baina jainko zuzentzaren izenean, *Nippurreko txiroak* bezala edo norbere oldez, Sakanako *Mattin Mottelak* bezala? Harrigarria da *nippurtar* eta *napartar* txiro bion ipuinen egiturak duen antza, toki batetik bestera aldatu kulturaren santzuetariko bat bai-da eta ez beranduko kopia<sup>36</sup>. *Nippurtar* txiroak bere ordu txarretan, hako naparrak bezala, ezin zezaketen zuzentasun asko itxaron legezko arduradunengandik, arduradunok kanpotarrak eta euskal kulturatik urrun zeuden jendea bai-zen edo urian eman ohi den zuzenbidea ez izan baserriko auzietara heltzekoa. *Nuffer* eta *nafar* izenak ere<sup>37</sup> susmogarriak dira, ipuinen egitura bera aztertu aurretik.

*Nippurreko txiroarena* idazkiz K.a. VIII aurretiko denarren, ipuin bezala, sumeriar enperioaren garaikoa da. Europan 1956 urtean argitaratu zan. Herri jakinduriaren gogoko izaten omen ziran holako ipuinak, izan ere sumertarrek kanpotarregandik jasaniko saputzen aurkako mendekua dirudi: Gimil-Ninurta, *Nippurreko txiroa*, bere miseriaz naskatu, bere soinekoak erantzi eta hiru urteko auntza erosi zuan *Nippurreko* plazan. Goseak ase? Ez “auntza hartu eta alkatearen etxera eramane eta zerbait on eta eder opatuko diot”-esan zuan. Gimil-Ninurta opariarekin alkateagana alai joan zan. Esku batekin auntza burutik oratzen zuela beste eskua jasorik agur egin zion: “Enlil eta Nipurrek onets bezate alkatea”. Alkateak erantzun zion: “Ze bidegabekeria jasan duzu? Zergatik erregali hau?” eta Gimil-

35 *El Cuento del oasis*, IX, 110, DB n° 26

36 ZUBIAGA, F. “El pobre de Nippur y Mattin Mottela”, *Fontes Linguae Vasconum, Separata*, n° 89, Enero-Abril, 2002.

37 HAAG, H., “Babilonia”, Dic. B, o. c. p.191-199. Cf: *Nabar>nafar/napar* formetara dator berez eta *Ibarrena/Ainibar>Nabarra. Ibar+ena>Barrena* gehiengo kausan dago.

Ninurtak: “Egunoro jan gabe goserik etzunean nago” eta hauxe era-bagi dut. (Utsune txikia dago idazkian) Alkateak zera agindu zion atezainari: “Emaioik Nipurreko uritarrari ezur bat eta zain bat eta edarazi ezaiok hirugarren motako zerbeza, eta doala ate”.

“Gimil-Ninurtak atetik urten zuenean, atezainari ba dinotso: “Emaioik “egun ona” eure ugazabari jainkoen izenean eta esaiok hitzez hitz: “Egin didakan irain honegatik bakarrik, hiru bidar ordainduazoko diat”. Alkateak barre egin zuan, baina “Gimil-Ninurtak errege jauregira begiak jasorik (zin dagi): “erregearen agin-duz, printzeak eta agintariak erabaki zuzena hartuko dute”<sup>38</sup>.

Sakanako Mattin Mottela ere bizitzaz gogait egina zegoen, ez zuan atsegin aita zenarengandik jasotako mandazain bizibidea eta zirt edo zart egitea erabaki zuan. Mandoa saldu eta ofizioz aldatu. Tolosako perira joan eta mandoagatik eskatzen zuen guztia eskeini zion erostaile batek. “Egon zaitez hementxe ni etorri arte, berehala itzuliko naiz diruarekin -esan zion eta mandoarekin aldendu zen erostun hori”. Mattin Mottela artegetu zan “Urde beltza (...) Mandoa goizean saltu eta egun guztian diruaren zain (...) orain erakutsiko diot horri nor naizen ni (...) “Kontuz ibili-esan zion ostatukok- Lapurra da eta bere antzeko bi morroiek in dago”. --“Urde zikina! Hori ere badugu? Ez daki norekin dabilen! Lapurra baldin bada, hainbat hobe; hiru bider ordaindu beharko du nire mandoa”<sup>39</sup>.

Behin eroi sapuztu bion mendeku-tranze berdinduan, ordearen egitura eta eritmoa osatuz doa: Gimil-Ninurta “urre gorrizko mina” baten sorretan errege gurdi bat eta mendela akuratu eta errege mandatariaren jantzitan marrotu, alkateagana joan zan. “Zer dugu, ene jaun, gau ertain etortzeko?” --Zure jaun, erregeak urre gorria<sup>40</sup> Ekur, Enlilen tenplora, eroateko agindu bai-dit”.

38 El pobre de Nippur, 64-71, DB, n<sup>o</sup> 26. Cf. Nippur gaur Nuffer.

39 SATRUSTEGI, J.M<sup>a</sup>, Mattin Mottella, o.c., p. 27-28

40 “oro rojo” erderatzen da urre gorri, jainkoei eskeintzeko haina kalitate duena, gorri “tint, txit” edo ekur urrea “tenploko urrea”, tokizenetan ekur>gorri bai-dator Ekurza/Gorriza, Legorra/Gorriala, Gorramendi/ Mendigorria, Gorbea/Begorri, etab. Enlilen Ekur/arroka “aitz gorria=mendi temploa” Duranki auzoan zegoen, toki enlilutu/lilutu “Enliri sagaratua”>

Alkateak abegi onez hartu eta afari ederra prestatu zion. Afal ostea luzatu zuan eta loak hartu zuan alkatea. Gimil-Ninurtak, itxarrik, kutxatila arakatu zuan. Alkateak esnatzean, kutxatila idekia ikusi zuan eta "altxorra ostu dute" ots egin, aurrean Gimil-Ninurta zutik zegoela. Gimil-Ninurtak, jantziak urratu, alkateari oratu eta eskua goradi, otoitza errezatuazi zion eta burutik oinetara makilatu zuan bertan. Alkateak, bakean utz zezaion, urre gorritzko mina bi eta jantzi urratuagatik beste bi eman zizkion aurrezkiz.

"Gimil-Ninurtak atera zenean Tukulti-Enlil atezainari esan zion: Igo-  
"rri egioek hire ugazabari jainkoen agurra eta esaiok: "Egin didakan irainagatik lehenengo sorra kendu diat. Oraindino bi gelditzen zaikiki!". Alkateak entzun zuan eta egun osoan goranzten zuan"<sup>41</sup>.

Mattin Mottela ostatuko emaztearen jantzi apainenaz jantzi zuan, "burua zapela harroska batekin estaliz badoa, eskuzorro eta guzti, makila eskuan duela" lapurraren etxera. Atezainari galdetu zion. "Aizu, gizon, etxean al dago nagusia". Halako emakumearen bisita ohartu bezain laster, ateak zabaldu, morroiak hegaleratu eta bana-zeko egonlekua prestatu zion. Gero nor lehenengo oheratu eztabai-datu zuten. Ugazaba, aurrena. Ugazaba oheratu zenean, bisitaria makilka hasi zitzaion bertan, "mandoaren jabe naiz!" esaten ziola. Lapurrak parkaeska: "Hor daukazu ohe ondoko kutxatil urrea. Zeutzat hartu eta zoaz, mesedez, hemendik" (...) "Nola joan zaik? - galdetu zion ostalariak. --Bihar berriro -erantzun zion mutilak"<sup>42</sup>.

Eroi sapuztu biak mozorrotu ziran, Gimil-Ninurta, errege mandatariaz eta Mattin Mottela, badaezpadako emakume itxuraz, biak gauez, sorduna, ohean zetzala, makilatzen dute, sordun biak barkaeska, bakean ustearren, dirua eskeintzen diote; bietan altxorren kutxatila eta ordearen lehen atala aipatzen dela.

Gero Gimil-Ninurta bizargilearengana joan eta, Isingo merikuek

>zan. Durango ondoan Untzilaitz eta Ailuitz "aitz gorriak" dira, ots, *gorkudunak*, Untzilaitz peko *Legorra* <"ala+ekur" larreko baserritik gertu, Urkiolako kaltzada ondoan eta *gorku* ondoan, San Martin ermitea: *ekur/arroka* templo zaharra eta berria, elkarki ikutzen diotela, aitz erraldoiaren pean.

41 *El pobre de Nippur*, 109-114, DB, n<sup>o</sup> 26

42 SATRUSTEGI, J.M<sup>a</sup>, *Mattin Mottella*, o.c., p. 28-31.



ohi bezala, buruko ilea alde batetik mozteko eskatu zion, bronzeko ontzia hartu eta meriku gisan, alkateagana joan zan. Nor zela? “Isineko meriku bat, azterlaria...Non gaisoa eta samina hara noa...” Alkateak zerutik bidalitakoa bezala, hartu zuan medikua. “Ene jaun, nere osagarriak ilunpean bakarrik egiten dute osoro emendioa”, esan zion merikuak. Bronzea berotu, bost iltzetxoak behean. Osakaia hartzeko eskuak eta oinak lotu zizkion eta jarraian burutik oinetara makilatu.

“Gimil-Ninurtak atetik urten zuenean, Tukulti-Enlil atezainari esan zion: “Igorri ezaiok nagusiari jainkoeen agurra eta esaiok: “Egin didakan irainagatik birritan ordainarazi diat. Bat falta zaik!”<sup>43</sup>.

Mattin Mottela barberarengana joan zan, “ofizios bizargilea ere ba zena denbora berean” eta honela mintzatu zitzaion *nafarra*: “Zure kokotzeko auntz-bizar politaren antzeko zerbait nahi nuke nerezat. Sudurpeko bibotetxoa ere ez legoke gaizki” ospe haundiko batar batera bai-noa. “Zure jantzi beltza, kapela eta zaldia lagatzen badidazu, aurretiaz ordainduko dizkitzut”. Zaldun patxaratu bezala igaro zan gero Tolosatik harako lapurraren etxe aurretik. Morroiak dei egin zion, merikuak, hain ardurazko gaitzaarren, baietz, ontzat hartzen zuela ikerketa. Jo! harritu zan merikua zaurituaren egoera ikustean. “Inguruko bi elizatako ur bedeinkatuak behar nituzke orain. Hirugarren batekoa ba duk neuk hemen”. Zaurituak morroi biak bidaldu zituan ur bedeinkatuen bila. Meriku mozorrotuak orduan makila hartu eta “mandoaren jabea naiz. Nire eskuetan zaude berriro” esan zioneko, lapurra parkaeske hazi zitzaion eta diru gehiago bihurtzekotan. “Gaueko hamarretatik hamaiketara diru horren zain egongo naiz neure etxean. Zeuk ikusi komeni zaizun ala ez garaiz ibiltzea” zema egin eta utzi zuan<sup>44</sup>.

Bigarren ordekoan ere mediku mozorro berdintsuetan ikusten ditugu eroiak, bizargilearen etxea eta ilearen edo bizarren itxura berezia eta medikutzako artemarteak eta non enplegatu ziurra, aurreko bisitan ordedunari eginiko zaurietan, hain zuzen.

43 *El pobre de Nippur*, 115-139, DB, nº 26

44 SATRUSTEGI, J.M<sup>a</sup>, *Mattin Mottella*, o.c., p. 33-35.

Gimil-Ninurta urduri zebilen hirugarren amarrua asmatzen, bata-ri eta besteari begira eta orduan “gaztuen kitua eginberri zuan gizon bat ikusi zuan; erregalo bat egin zion...Alkatearen ataurrean ohiu handia jaurti behar duk. Hik oiuhu egitean, hire atzetik joango dituk denak eta nik alkatearen atea jo eta “auntzaren jabea naiz!” esango diat”. Esan eta egin: Gimil-Ninurta bera zubipean gorde zan. Zarata entzutean, alkatearen morroiak eta etxeko denak oiuhu egin zuenaren atzetik joan ziran, alkatea bera izan ezik.

“Gimil-Ninurtak, urt egin zuen zubipetik eta alkateari oratu eta eraso-ka, eskua jasota otoitza errezatu eragin zion eta burutik oinetaraino makilkadaz ehio zion gorputza, oinaze bizia egotzirik. “Egin didazun irainagatik hiru bidarrez ordainduazi dizut”<sup>45</sup>.

Mattin Mottela Tolosara hurbildu eta ardo trukean bertzoak esaten zituen bat aurkitu zuan. “Adizak -esan zion- nahi al duk erdi koplaka ontzako urrea eskuratu?” Berarekin mandora igon eta jarraitzea baino ez zuan. Halako etxera heltzean, morroi bik urtengo zioten zaku banakin eta orduan “mandoaren jabe naiz” ohiukatu behar zuan eta arre. Koplariak berea oihukatu eta egin artean Mattin Mottela erreka zuloan izkutaturik gelditu zan. “Mandoaren jabea naiz!” entzunik, lapur biak oihugilearen atzetik laisterka ekin zioten, fardelak bertanbehera utzirik. Mattin Mottela, zaldia eskutik zuela, erreka zulotik urten, lapur morroien zaku biak zaldiaren bizkarrera egariaz aldendu zan<sup>46</sup>.

Hirugarren orde ekintzak ba du alderik *Nippurreko txiroaren* egitura lotuarekin, baina berdintasuna handiagoak dira: hirugarren pertsonaren laguntasuna, sordunaren etxekoak oiuhu batera eta “auntzaren jabea naiz” edo “mandoaren jabea naiz” otsera asal-

45 *El pobre de Nippur*, 115-139, DB, n<sup>o</sup> 26

46 SATRUSTEGI, J.M<sup>a</sup>, *Mattin Mottella*, o.c., p. 41-42. Cf: *Mattin Motella* ipuin liburuari Mattinen beste pasadiso asko kontatzen dira eta aipaturiko hiru mendekuak hiru titulotan banaturik datoz “*Tolosako feria*”, “*Sasi medikua*” eta “*Koplaria*”, bigarrenaren eta hirugarren titulorekin erdian “*Mozorroa*” sartzen dela “irain baten orde zaku ordeko” egiturarekin zerikusirik ez duena. J.M<sup>a</sup> Satrustegik aitortzen duen bezala, *Mattin Mottela* bildumako ipuinak Sakanako baserritarren ahotik entzunak dira.

datzea, anartean eroi sapuztuak zubipean edo erreka zuloan izkutatzea eta, azken baten, justiziaren peskizatik era beretsuan ihes egitea. Tukulti-Ninurtak “orduan utzi zion eta mortura ihes egin zuan”<sup>47</sup>. Mattik Mottelak, guardi zibilak atzetik zebilzkiola jakinik, “egun batzuetarako ihes egitea erabaki zuen”<sup>48</sup>.

Ipuinok herri jakinduria bezala aipatuak dira eta “asmoz eta jakitez txikiak handia bentzuten” edo “azeriari azeri t’ erdi” esakunak bermatzeko exempluak dira. Arduradunak herriari zuzena eta serbitzu ona egin beharrez, herriaren lepotik bizi direnean, herriko etsai bihurtzen dira eta adarra jo behar zaie eta, ahal bada, egurra dantzatu, “makilasaldarekin eroak ikasten” esaten bai-da, edo hako alkateak “bera jotzeko makila berak eraman” esan bai-daiteke edo eta lapurrez: “lapurren festa laburre”, “lapurrari lapurreta egin eta Jaungoikoak parre”, etab.

“Txikiak handia” edo pobreak aberatza edo ezinduak ahalduna, mendekoak agintaria, morroiak ugazaba, herri txikiak herri handiak, etab. aipatu genitzake. *Nippur (Neffar)* uria errege eta Enlil jainkoaren uri nausi izatetik batzuren eta bestetzuren agintepeko herrizka izatera heldu zan eta *Napar (Nafar/Nefar)* herria bere eskuko erresuma izatetik inoren meneko izatera etorri zan. Gurean bezala, Antxinako Sortalde Hurbileko hizkuntza arteziko hizkuneak aurkitzea nahiko arrunta da “*Enki/emqy*” “Enki/jakintsu” adibidez, edo kultura askoren altxor diren jakinduriako esakerak han eta hemen aurkitzea, baina harrizkeoa da benetan milaka urteren luzean eta milaka kilometroren urruntan hemengo ahozko literaturan hango ipuin luze idatziaren arrasto ziurrak ematea<sup>49</sup>.

47 *El pobre de Nippur*, 159, DB, n<sup>o</sup> 26

48 SATRUSTEGI, J.M<sup>a</sup>, *Mattin Mottella*, o.c., p. 45.

49 Nere harridura J.M<sup>a</sup> Satrustegiri agertu nionean, bera ere txundituta gelditu zan eta aipatu aldizkarirako zerbait idazteko eskatu zidan.

## ONDORENA

Mitoak, erritoak, hizkuntzaren arketipoak, toponimia, hitzen analogia sorguak eta gramatikazko xede eta egiturak, jakinduria, jainkozko lege zaharren eta giza lege berrien arrastoak eta ipuinen santzuak Antxinako Sortalde Hurbiletik harakoak eta euskarak berekotu, landu eta euskaldungoak gogoratu eta ospatuak, gure jatorrasuna eta jatorria azaltzeko hainbat santzu dira.

Barazkien hazi landu eta hasierako soloari lortuen jatorriko lurraldea bera da Neolitosko aztarren zaharrenak sortu zituen kultur gunea ere. *An/Eni* jainkoaren herritik, haren santutegi *Aina-mendi* eta euskal itxasoa izan da Osinaldeko Europa bidean mediterraneanar kultura zaharrak izan duen bide, ate, kokagune eta kolonizatzaileen herria, Neolitos garaitik honako Euskal Herria, toponimian aditua den euskara mito biziak egiaztatzen duen bezala.

Euskaldungoa “herri *garatua*” zan, Kretako ondareaz jabetu ziren grekarrek “*demos kratos*” aipatu zuteneko, ots, herri *garapena* herrigintzan eta ez beste inongo errege edo jauntxoren gainerian, aitortu zutelako. Greziako demokrazian, izan ere, batzuk besteak baino *garatugo* ziran, izatez, eta zapalkuntza jasan zuten herriek eska zezaketen jainkoen edo herriko ohitura zaharren izenean herri agintea edo idatziz egiztatu ere etorkinen edo erdaldunen aurrean.

Sumerreko erregeek ez zuten bere kabuz legerik asmatu, ezpaere jakinduria zaharretiko herri ohiturak eta eskubideak borutu eta zigorez bermatu. Arazoa Akadeko erregeek sor zezaketen menderatuen gainean euren legeak ezartean, bada etxekoa ezin zezaketen kanpotarri egotzi araudi beraz bezatu, Frantziako Iraultzak, demokraziaren izenean Ipar Euskal Herrian egin zuan bezala.

Hala ere, demokraziaren aztarren sakonak hasieratik praktikatu zutenen hizkuntza biziak, euskarak, ba-daki. Ez dago bera bezalako paleontologiarik, edo hitzez hitz eta ideaz idea hasierak azkenarekin lotu ahal izateko hermeneutika zehatzagorik, bada, hizkuntzak herriaren bizikera guztiak oratzen ditu bere egituretan eta jakinduria azaltzeko erabili dituen hizkune eta esakunetan.

## V. HITZEN ANALOGIAKO JAKINDURIA

Jainko legeak eta giza legeak bereizten ditugunez gero, egoki zan jainko legeak jainko arketipoz izandatzea eta giza legeak, berriz, giza arketipoz. Jainko legeen uneari, bestalde, jakinduria zaharren garaia deitzen diogu, han jainkoen sorkuntza ama delako umezaroko hezlea eta gizarteko legeen uneko jakinduria berrian, ostera, gizakiak berak esku hartzen duelako bere esparruaren antolapenean. Ama agintetik gizarte agintera doan aldea bera dager bien artean edo gizartearen haurtzarotik gizartearen heltzarora doana. Herri baten kultur gunea aztertzeko, egoki da aldi biok bereiztea.

Baina nork gida gaitzake paleontologia horretara hizkuntza zahar eta azterbera den euskarak berak baino hobeto? Hasierako hizkuntza monosilabaduna izan zan eta euskarak monosilabadun hitz asko ditu eta eurak dira, izan ere, esanguratsuenak, eta edukinez beteenak. Arketipoak ere monosilabak direnez, haienkandiko lehen analogiak ere monosilabodun hitzak dira, konsonante bateri lotuak dira eta bokalismoa edo bokalen posizioa aldatuz baliatzen dira otsak eta edukinak ugarituala bereizten. Arketipoengandik hitzak analogizatzeke ohitura apaizen ardura izaten zan Sumerren, Babilonian eta Egipton, hitzak *esan/izan* indarra eduki zezan, halako imusinoz asmatua izan behar bai-zuen<sup>1</sup>. Antxinako hiztegiok orduko jakinduria orokorra oratzen zuten, herriaren ahotik edo berriren berriz taulako idatzira aldatzen zela. Hiztegi idatzira aurretik milaka urtez lehenago hizkuntza ahoz-ahozko ariketa izan bai-da, euskararen gertatu izan den bezala.

Euskararen hermeneutika aztatzeko egoki da monosilabismotik hasi eta hizkuntzen beste guneak aglutinazio eta zauli garaira jotea, giza jakinduriak berak ere, historia egitean, sinbolo, mito eta erri-to unek bereizten dituelako. Sinboloa emana izan zitzaion herri-ari eta handik orokorrenak hartu zituan bere adierazpideen arke-

1 LIMET, H., "PANTEÓN (religiones mesopotámicas), DR, o.c., p.1357. Egiptoko onomastikari buruz, ikus (MORLA, V., *Los libros sapienciales y otros escritos*, o.c., p. 37)

tipotzat eta monosilabodun otsetan egin zuen lehen ariketa. Ariketa haietatikoa da lehen euskararen jakinduria eta monosilabo hoiek, ots, kontsonante soilez eratu hitzok, edukinez beterik agertzen dira oraindino hiztegian, hitzak, zenbat eta arketipoagandik hurrago dagoen, hainbat eta edukin ugariagoa bai-du<sup>2</sup>.

### 5.1. An analogia sorguaren magala

An “zeru” magala une eta begirune guztietan agertzen da, jainko umeen sorkuntzako *ama* bailitzan, bere *unetik*<sup>3</sup> sortuak izan bai gara. Bera da *mana*, gu bere *manu*-peko, bera *inude*, gu *inutu*, bera da *unai*, *nauna*<sup>4</sup>, gu *meneko*, bera da *muin*, gu bere *muineko*.

An/Anu monosilabodun arketipoa edukinez joria da hagatik: *une* tokiari eta aldiari begira, *un*, *muin* sustantziari, *ano*, *anoi*, *eñe* jaki-edakiei, *uin*, *mama* urari, *on* kalifikatzaileari, *ene* norentasunari, *haen*>*hain* gonbaraketari, *in* ekintzari, *ino*, *onu*, *ena* adierazpide, goralpen, aholku edo Jainko egiari, *nai*>*nahi* bihozkerari, *ama*, *ume*, *aina*, *nini* familiako kideei, *en*, *ni/mi*, *neu* lehen pertsonari, *una*, *hona* adierazle, *unu*<sup>6</sup> zenbaki, *-en*, *-an* kasoak, etab.

Monosilaboen eskua betetzean, izen aglutinaduak jarraitzen die An arketipoa aurrizki dela: hala zeruko *ainu* eta lurreko *ainubiak*, bere *meneko mendi-munoak*, itxasoko *marrak*, lurreko *maldak*, *mortuak*, *mugak*. Ama jainkosaren *anze*=*magiari* esker, *Antu*> *antzo* dator, *mando*>*mantzo*, eta *antza* dutenen *ansia*. Jainko familia gizatasunez janzten da An/Enki, Inu/Inko, Eni/

2 Bokalak zabaletik itzira arketipoaren parteidetasuna zehazten du, adibidez: *An*, *aina*, *anaie*, *onu*, *ene*, *eni*, *ni*, *ama*, *eme*, *ume*, *man*, *men*, etab. Konsonantearen errepikak edo M N Ñ mailak ere helburu berdina dute. (Ikus F. ZUBIAGA, *Origen y desarrollo del lenguaje, según el vascuence*)

3 “Anu-ren *unea* bezain handia da bere indarra” (*Gilgamesh*, I,III, 4ss.) Enkidu, Gilgames gaitzetzaren aurka sorturiko giza berriaz esaten da. Cf: “*Gishnumunab* (...) *gizakiak* bere *une-muinetik* egin zituena” (*Enuma elish*, VII,89). Cf: An gizakien *muin* dela, gu bere *muineko*>*muñeco*, edo *uneko*>*nenuco* gara.

4 Ama-umeen arteko hitzak balore berezia dute euskaren oroitzan: *en*<sup>6</sup> “apaiz nausi”, *nauna* “abade”, *naina* “aitona”, *aina* “inude” hareago monosilabodunak badira. Forma zaharrok erritozko santutasun arketipoa erantziz gero, *jauna/jaina*>*jaun*, *xain/zain* izatera etorri dira.

13° laburgoa: ABEREDI IZENAK ARKETIPOEN ARABERA						
AN	UTU	RA	ILU	KA	BA	AS
aine/auntz	uddi'idi	ar'ar'i'iri	ele, oilo	ku'i'gallo	ave'pollo	txarri
âne'mia	uzu'uso	uro'urso	uli'euli,	katu/gato,	behi'vaca-	sarrio
ñiu'ñandú	toro'axuri	ora'ardi	elae'labi	conejo	bos'buey	txahal
ainara	otso'tsobu	arrei'ariel	león'likos	ganso	betizu	txahal
ánade	zorro'ozar	arrano,	lupu'lobo	gallina	buc'oveja	cheval
antzar	azagari	erbi'orein	luki'alce	carabao	brevis	cerdo
miri'emú	oso'txori	irondelle	alano	ganado	abelgorri	cerda
malviz	txorru	arrendajo	alazán	giberri	abele'biga	chevre
mika'mirlo	txonta	urretxindor	elefante	corzo	bestia	asno'
amulo	durdura	erresimula,	lemur	cordero	aper'verres	asto
onagro	tordo'zozo	ureus'orix	leopardo	gorrino	verrac	txekor
moxal	zurita,	orkatz	lince	carnero	becerro	txakur
moloso	torcaz	rebeco	liebre'	cabra	búfalo	seter
mastín	udo'tejón	artza'ursu	lapin'lirón	gamo	burro	zaldi
nutria	topo'suge	urde'rayón	loro'lasun	aeques	perro	acémila
murena	turón	urruxa	lagarto	camello	basurde	jamelgo
morsa	ziraun	ordotx'reno	lucio,	caballo	basabe	escarabajo
mierle'musa	durdo, ata	urón'urxa-	lixa'loina	gamón	bucardo	
andeja,	dorada	ardilla,	lombriz	can'katu	pato'pavo	
angila	tonino	ratón	eltxo'listor	columba	paloma	
mero	atun	arrain'urta	alimaña	corneja	pájaro	

Ohar: Abereen bezaketa astiro osatuz joan zan. Abere uzuak jainko arketipoz izendatzen dira, abere bezatuak giza arketipoz. Ikustekoak dira bata bestearen eratorri: ar/aper/capra, ele/abele/txaal, amulo/kamelu, oilo/pollo, ardi/bucardo.

Enigo, ama/amako, ime/imeko>imago<sup>(5)</sup> eta analogiaz: un/ungo, aĩnai/aĩnagu, manu/manuko, men/menke, aina/anaxe, eñe/esne, man/manex, edo beheragoko maila adierazten: men/menpe, edo kontraesana: enda/endeka, man/manka, muin/muñeca, etab.

Manua eskutik duenak mandatuko makila eta mailukia ere nausi<sup>5</sup>, nabusi, nagusi, merio, amain, gu morroi, mirabe, berak ezarten ditu mandatu eta manamenduak, guk men egin diezaiegun, berak eman zizkion amari me<sup>(6)</sup>=aduak<sup>6</sup>, amak bere manda-

5 En<sup>(5)</sup> "apaiz nausia" ensi<sup>(5)</sup> "uriko nausi" dator giza arketipodun eta nauna "abadea" nausi, neusi<sup>(5)</sup> osatzen da edo nabusi, nagusi, negus<sup>(5)</sup>, ama>amain.

6 Anen emazte jainkosari An.tu, Nin.tud, Nin-mah zeritson eta haren ala Inannak, Enki nebearen bidez, ostu omen zizkion Anuri bere me=aduak. Emetasunari eman zitzaizkion mandatuaren lekuko aparta da euskara. "Aduak" sortzetik Jainkoak bakoitzari eman-izakera eta dohaiak dira.

tuz umotu eta in egin eta ama izanez amatu, maite, maitatu, bere eñez inutu eta naustu bai-gaitu eta mainaz amainatzen eta mendutzen, berak amenguz mintzen, amaierak amatatzen gaitueno. Euskararen hain lekukotasunaz hurbil ikusten da, baserriko familia sendoetan bederen, behin ere ukatu ez den, ama-agintea.

Anuren mendea izadiko sorkari guztietara heltzen zelako frogagarria, laburgoetan eman ditugu hagandiko analogia batzuk. (Ikus 13° eta 14° laburgoetan aberetza eta landaretzari dagozkien adibideak)

Hizkuntza zaulian ere asierako monosilaboak atzizki ezarriaz, gramatilikalizatu egiten dira hitzen eta esaldien arteko lokarri zeregina egiteko, hala sumerieratik eta euskeragino, NOREN kasuan<sup>7</sup> bederen eta ugaritierarekin eta hebraierarekin batera GEHIEN kasuan ere: -n, -en, -im<sup>(u/h)</sup> -ino, NON/NOREN/GEHIEN/ZENBATERAINO kasuak eta adizkerak, orobat ZER kasuko eta galdetzeko adizkerak “ea etorri den, ba dakit etorri dena”, unea eta aldia izen eta aditzkera zaulituen -an, nen-, nin- “etortean, nentorren, nindekarran”, etab. eta sumerierazko eme-sal hizkerak jainkosarekin eta emazteekin hizketatzeko noka -n, -na “egin dun/dona” dugula aditz forma berezia, etab. Etorkizuna eta bein>fin lortzeko, -n “etorriren, etor daiten” seinu bera darabil eta orobat agintea “goazen, noan”, etab.

An arketipoak adizkera asko -ni atzizkiz “ipini, memini<sup>(i)</sup>, eism<sup>(a)</sup>”, etab. burutu ezeze, an-, en-, in-, im- aurrizkiz indartu eta berezi egiten ditu: “anpatu, endurtu, inautsi, imponer”, etab. (Ikus aurrizki-atzizkiak 15° eta 16° laburgoetan)

Monosilabo askok dozenaka edukin ditula ohartuz, An/Anu

5 Gizarteko agintegoan ensi<sup>(s)</sup> “uriko nausi” da eta en>ensi datorren beste, nauna>nausi dator eta geroko forma gizatueta nabusi, nagusi, negus<sup>(e)</sup>.

6 Anen emazte jainkosari An.tu, Nin.tu, Nin-mah zeritson eta haren alaba Inannak, Enki nebearen bidez, ostu omen zizkion Anuri bere me=adua. Emetasunari eman zitzaizkion mandatuaren lekuko aparta da euskara. “Aduak” sortzetik Jainkok bakoitzari eman-izakera eta dohaiak dira.

7 Hain zuzen ere, Nin.Nanna “Nanna andrea” Anen alaba zan, gure artean “neskatoa” aman alaba den bezala eta alyim<sup>(u)</sup> gure alaen>alen da edo Elohim<sup>(i)</sup> “jainkoen jainko” edo “Jainkoena”, Olen-tzaro forman agertzen den bezala. Euskararen aurrizki edo atziki erabili izan da tituloen gehiengo, hala Enangeru/Angeruen, Endone/Doneen, Enandre/Andrena.



bezalako magalak, zerua-lurrak bezala, tenplo bateko hizkelkiaren adierazpide eskakizunak orni zitzaken. Euskaraz AN/INU arketiporik landuena dena, Sumerren jainkoen gurasotzat zuten.

## 5.2. Utu analogia sorguaren soloa

*Utu* ere begi guztien *itua* da, *otatik otustan tolesak idorotzen sogile duia* eta zuzen ebasteko *txutxu*. *Utu osartua* da, *hodei* edo *ostots dela*, *itera joten du*, *beti atxina*. Bereak dira *ud*, *eudi*, *diztira*, *txispa*, *su*, *trumoi* eta euren arteko *tulubia* eta *ateriak*, *uden uxuria hodeitik*, *uiholen turrusta*, *ostarkuaren oditik*. *Utuk zuzentzen* ditu *udak* eta *aitak -te* atzizkiz, hala *Inote*, *Jote*, edo analogiazko *eurite*, *gosete*, *etab*. *Utuk* egunero egiten dituen lanak: *edatu*, *sortu*, *itxartu*, *atzarri*, *itoitu*, *atera*, *idegi*, *ixiotu*, *so*, *sutu*, *txi*, *tolau*, *etorri*, *itzuli*, *jo*, *jun*, *joan*, *otsi*, *atotsi*, *atatu*, *sartu*, *zulatu*, *zuntzi*, *zipertu*, *dzangatu*, *ito/itto*, *ostu*, *ostendu*, *utzi*, *itxi*, *itzali*, *iduli*, *itxungi*, *etab*.

An antzoak amaren narotasuna bezala, *Utuk aitaren ots ozena osatzen du*, *Utu dohantasun* eta *juzo doiaren zuzia* da, eta *deadoz deitzen* diona *duindu* eta *damutua sorosten* eta *soltuzen du*, *hilobietako Iduzki Sainduak adierazten dutenez*. *Utuk udez joritzen* ditu *soroak/soloak*, *usak* eta *suaz tuldu* eta *zoldutzen uztak*, *beragandik udukitzen* bai-ditugu *toinak* eta *dohaiak*.

*Utu* arketipoaren *eduko* monosilaboak: *otu*, *otoi*, *oto*, *ota*, *doi*, *dui*, *itu*, *itxu*, *ud*, *odi*, *idi*, *uso*, *hotz/hitz*, *oju*, *oihu*, *uxu*, *izu*, *oso*, *so*, *su*, *txi*, *ate>atx>aitz*, *uts*, *utxa*, *edu*, *adu*, *eita*, *haita*, *zio*, *etab*. Familiar: *aita*, *ato*, *oto*, *tio*, eta NORTZAKOA -tzat atzizkira: “*amatzat*, *laguntzat*”, *etab*. Izenlagunetan *tto*, *txo*, *yo*, *zu*, *su*, *si*, *yi>hi*, *zenbakiz dui*. Jainkosa amak *Utu* arkekipoarekin aglutinatzen dira: *Antu*, *Nin.tu*, *Nin.tud*, *Nut*, *Maat*, *Mut*, *etab*. egipzieran -t eme seinalea izateraino, edo gure artean haurdun zegoen emakumea *tuturroa* buruan jantzi edo “*eguzkiz jantzi*” esakeraz antzezteraino (Ager 12,1).

*Utu* jainkozko arketipoekin aglutinatzen da: *Aton<sup>(e)</sup>*, *Adonai<sup>(h)</sup>*, *Donar<sup>(al)</sup>*, *Doniane*, *Tinia<sup>(etr)</sup>*, *done*, *deun*, *donu*, *donario*, *toin*, *aiton*, *atün*, *duin*, *soin*, *zuzen*, *zuzun*, *etab*. arketipo bikoizdunak aipatzearen. *Utu+Ra* elkartzean, *idi+uro>toro* egiten du, jainkoetan *Hator*, *Tor*, *Adur* eta *adore*, *torri*, *etor*, *uturri*, *isuri*, *izor*, *uduri*,

*idoro, doru, dorre, suar*, etab. analogiak. Analogiaren zioak ugarriak dira: arketipoaren antza, forma, izakera, xedea, ekintza, mitoa, etab. Hagatik *Utuk*, bere *zuziaz zuzentzen* gaitu, *itera*<sup>8</sup> ibil gaitzen,, bere *suaz txigortzen*>*zigortzen* eta bere *izuaz osten*.

Hizkuntza zaulian *Utu -tu, -du* atzizki bihurtzen da sumerierazko *An.tu*, *naditu*, *gudu*, etab. bezala: *ota+tu>otatu>tutu*<sup>(9)</sup> “babe-*bestu*”, *su+tu>sutsu>zuzu*, *Ra+tu>artu*, *Aitor+tu>aitortu*, etab. *Utu* arketipoak, aditzengan du eragin berezia *-tu, -du*, mugida edo ekintza osatua adierazten: “*amaitu, amadu*” eta *-te, -tze* arian ekintza adierazteko arrakastan: “*egite, konpontze*”, etab. Forma hoietaz eta *-ten, -tzen* hoi konposatuez baliatu izan dira erromanikoek: *amatu, amado, ocurrente*”, etab. Sintaxian *otoi* esaldietan *dager, otian, utinam*<sup>(9)</sup>, *uxala* oihuekin, *otoitza edin/iten* edura heldu *daiten*. ZERTZAT *-ntzat* kasu konposatura ere lotzen du helburua: “*ezagutu zagiezantzat/zagiezan/joan dadintzat/dadin*”, latinak, berriz, *ut, ad*<sup>(9)</sup> loturekin: “*etor dadin=ut veniat*<sup>(9)</sup>”. *Uturen* zoria mendi ostetik itoitzean eta ostean datza, beraz “*ostera, ostantzean, obstante*” lokarriez lotzen dira osterakoak. Aldien gurpilean, “*lehorte*” edukinean bezala, etorkizuna marka dezake *-te* aditzetan “*etor daite/daiteke*” edo itauntzeko, *ote-, ete-*: “*etorri oteda?=utrum veniat*<sup>(9)</sup>/ez dakit etorri *eteden*”/“*baiote?*”, etab.

*Utu* zuzenaren zioak gramatikaraino edatzen dira *-eta/bait-, oti*<sup>(9)</sup> atzizki, aurrizki edo lokarrien bitartez, sumeriar jakindurian bezala “*ez bortxatu inoren alaba, barridean beti jakingo litzake-eta/bait-litzaken*”, etorri *bait-da/etorri da-ta*, ez dator, gaixo da *otean=ouk erjetai oti aszenei*<sup>(9)</sup>”. *Utu* arketipoak aditzaren lehen pertsonako NORK *-t, -da-, -zu, -zu-* ordezkaten du: “*ditut, ditudan, dituzu, dituzun*” eta ZER ugarikoa, *-it-*: ekarri *ditut*. Era berean NOIZ ugaria *-etan* jaurritzen du: “*etorri denetan=quoties veniat*<sup>(9)</sup>, etab.

*Utu* arketipoak aditz asko *-tu, -txi, -tzi* “*ertu, jatxi, ortzi*” atzizkiez burutzen ditu, zapaikera utzez edukina zehazten duelarik,

8 Toponimian *itera>iter*<sup>(9)</sup> “*zuzen, bide*”>*izera>izar>zar* egiten du: *Iteria>Izera>Zeharra>Zarra*, etab. *Iteratu>zehartu>zertu*<sup>(9)</sup>>*cierto* dator.

9 *La Enseñanza de Shuruppak*, 71-74, DB. n<sup>o</sup> 26, p. 45.

## 14° laburgoa: ZER: LANDAREDI IZENAK ARKETIPOEN ARABERA

AN	UTU	RA	ILU	KA	BA	AS
ametz	zotz/txotx	ari	olo/lino/lio	gari/col	vid/brecol	esi
makal	zurgai	arte/arce	olibo	ocal	bicu/pera	seto
madroño	zuhaitz	aretze/erez	ler/lertxun	iko/kurkux	banana,	aza
manzano	tantai/tilo,	areki'	alerce	okaran	plátano	acelga
makatz	ote/toxo	árbol erei-	lizar	okaran	plátano	acelga
madari	toronja	notz urretx	aliso	grosella	palmera	azafrán
mizpira	durazno,	urki'orre	álamo	kereixa	abedul	azaite
enebro	dulunia	romero	laranxa	gerezi	burki	azenario,
membrillo	tamar	uraza'	limón	gurbitz	avellano	zanahoria
melón	tappuah	oroldi	ahmendro	gurbitz	avellano	zanahoria
mahats	tassur	retama	albérchigo	calabaza	borraja	escarola
anda'inar	udare	erroi'	legumbre	kardu	barazki,	escanda
mihimen	asun	arrega	lekadun	candeal	berza/berro	sémola
musgo	zurzuri	arándano	alubia	grelo	puerro	espinaca
amelo	zubil'tejo	orange	lenteja	canela	hortiga	txermen
eneldo	tronco	arto'arbi	lechuga	garbantzu,	finochio	sagar
menda	zuz'a/ziza,	rábano	alga	gaztaina	gortost	txerpi
malva	tulipa	arveja	lore	gortost	gortost	txerpi
matricaria	chirivita	arroz	aulaga	coton	pepino	ezuki
mereilu	tipula	orburu	líquen	koats	vaina'piper	acebo
		artichut	alfalfa	camelia	pimenta	estopa
		repollo	lirio'loto	kipula	perrexil	acerolo
		erruda	alhelí	clavel	baraxuri	

Ohar: *Uzta/kosta* datorren bezala, *ari/gari, aran/okaran, menta/pimenta, erro/porru, arol/eskarola, urki/burki, uraza/borraja, etab. datoz, gizalanak gizatu ekoistea > cosecha* eta haren *kosta/coste* adierazten du hitzaren azalpenaz

antu>antzi, atatu>atotzi, aratu>arazi, ertu>ertsi, erditu>erditzi, goratu>goretsi, beretu>berezi, baitu>bezi, eta *at-* aurrizkiaz bizkortu eta edukinez ugaritu egiten ditu, halako hizkunta artezian ere euskara grekoaren eta latinaren aurrelari egiten duela: *atondu, atoratu, atotzi, atuzo*<sup>(6)</sup> "uxatu", *attendere*<sup>(7)</sup>, etab.

### 5.3. Erra analogia sorguaren arloa

*An* eta *Utu*, familia bereko jainkoak izaki, hizkuntza arketipotzat ere elkaren betegarri lana egiten dute aglutinazioan eta gramatikan, zutabe biok euskarari teilatua egiten diotela. Erra arketipoaren zeregina sumeriera Eufrates ibarratik Abay (Nilo) alderantz edatu asmoa izan zuan enperio zaharrenak, haien jainko nausiak ere, *Ra* egitiarra eta *Ilu/El* amortar-kanaandar-arabiarra arketipotzat onartuaz. *Ra/Erra* Utu beraren sinboloa da berez, baina

otsez berezia. Ots bezala armonika berria sartzen du hizkuntzan eta sinbolo berdina den aldetik sinonimia askorako prestatzen da: *otoi/arren, tori/hartu, txi/erre, ud/ur, zuzi/argi, usu/arin, itoi-tu/urten, torri/erdu, otsi/ortzi, ostera/ordea, zio/arrazio, edu/eredu, doru/erastun, zubi/arku, odei/orei, dundu/urdin, etab.*

*Erra* arketipoaren monosilaboak alde batetik lurrari eta betetik sikologiari lotuak dira. Edukinen ugariagatik euretariako batzuk h-bereizgarria daroe: *ar, har, are, ari, arau, harro, arru, erru, ira, irri, ora, oru, ore, ur, hur, uri, hiri, hiru, era, oro, orro, orri, urri, harri, aurre, haur, herri, erro, oroi, euri, ori, hori, etab.* Zenbakiz *hirua* eta izenlagunez heren petsona da: *ar, era<sup>(a)</sup>, hura, urli.*

An eta Utu arketipoekin aglutinatze da: *Erra+An>erran, arren, erron, erein, erne, eroan, erdu, harrotu, arautu sorkuntza lanean, Erra+ate>Arte, ur+ate>urte>urten, urdai> urde, Urtzi, ordai>orde, ordain>orden, Erra+tu>aretu>hartu, arto, oru+tu>hortu, urratu, eratu, eraso, etab.* *Erra* arketipoaren arloak: *are, arpe, ibar, oru, orube, etab.*, ekonomi arloan: *arres, hartu, erosi*, familiko erraian: *haur, arreba, errain, arbaso, herrigintzan: arreta, arrenkura>rencor<sup>10</sup>, arrazio/arrazoin* eta herri aretoan: *aurki, arau, orde, orezko, arduradun* eta orden eta erresuman: *ara/araba, errege, arkhe<sup>(g)</sup>, rege<sup>(l)</sup>.* Hagatik, *Errak* erratuan *errua* erantzten digu, *arneguan* *arnasa* ertzen, *arriskuan* *urgazten* eta berarekin *orztean* *errukiz* erosten.

Hizkuntza zaulian *Erra* arketipoak NORI/NORA/ZERTARA kasuetan aritua da “amari, zerura” eta *arren, -arren* otoitz lokarrian “bizitza heriotzaren jarraiko daitela, *arren!*”<sup>11</sup>, “Jainkoarren”, edo amorematekoan “*Erra* alde dago, urrun dagoenarren”<sup>12</sup>. *Erraren*

10. *Arrankura/Arrenkura* “*Erran* kura>gura” NOREN kasu eta guzti, mito bizi dirau hizkuntzan, nahiz gaztelaniak *rancor/rencor, gurasoen* agirikara moztu duen edukinez. *Errensuge* “*Erraren* suge”, *arranpalo* “*Erraren* ontziko masta” edo *arranberritu* “zenduak Iruzki Sainduaren artezira bizi-berritzeko zuten usteaz” hitzak arketipoa seinalatzen bai-dute, M. Müller erlijio azterlariaren hako “nomina sunt numina=izenak jainkoak dira” egiaztatzen duela.

11. *Las Instrucciones de Ank-Sesonqy*, X,25, DB, n<sup>o</sup>10

12. *La Enseñanza de Amenemope*, XXXV, 5, DB, n<sup>o</sup>10.

16<sup>o</sup> laburgoa: AURRIZKIEN ANALOGIA ARKETIPOEN ARABERA

AN	UTU	RA	ILU	KA	BA	AS
ana-/ama-	ato-/to-	arra-/ra-	lo-/lu-	aka-/ca-	be-/fe-	etxa-
ain-/am-	att-/atx-/ad-	erre-/re-	li-/lli-	oko-/co-	ep-/ef-/epi	se-/ze-
on-/un-	otia-/oit-/oiz-	era-/ere-	ale-/ela-	com-	ob-/upo-	ja-
in-/im-	txu-/xu-/su-	ar-/er-	el-/al-	oki-/ki-	para-	ez-
en-/em-	so-/oz-/uz-	ira-	ela-	por-/pro-	oc-/ec-	as-
ante-	sub-/sup-	oro-	la-	kata-	ber-/per-	eis-
andi-	dis-/dans-	uru-/ur-	al-	gana-	uper-	ex-/es-
amfi-	tra-/trans-	urru-	alla-	gara-/gala-	pre-	s-

Ohar: aurrizkiak izenen eta tokizenen osakeran erabilten dira euskaraz, grekoan, latinean eta erromanikoetan bederen eta denen sorgua berdina da.

zinoa *arrazioa* da, *rason*<sup>(6)</sup>, “*Erra* jainkoari atsegin zaiona<sup>13</sup>” bai-da, eta *ZEREN/ZERREN* egiturari funtzezko eta helburuzko *arrazioz* erantzuten dio: “eginzak zerbait Jainkoarren, *harek* zerbait halako itzul diezaan<sup>14</sup>, “Ura eskatuko dute, *arretenan* bezala, euren eleak edaraztearren<sup>15</sup>. Erromanikoek ere mito berean “*qua re>quare> car*” galdetzen dute, eta “en *razón* de que” egiaztatzen, euskarak “berak egin duelako (*arrazioz*)” bezala. *Erraren* beste *arrazioa* “*ra*-mu<sup>(6)</sup>/*amore* da arketipoak itzuliaz. Adizkeretan *Errak*, geroa iragartzeko, artezi berezia du *-ar*, *-ren* seinura: “Egiptoko ubideak lehortzeaz dagoz/legorturen dira<sup>16</sup> eta erromanikoetan *-ra*, *-ría*, *-ere*, *-ero* formak egiten ditu. *Haroa* seinalatzen *Utu>-te+aro>-tzaro*, *-zaro* atzizkiak “*Oronzaro*, *Olentzaro*, *hautzaro*”, etab., *-ari* atzizkiak materia “*hortuari*, *gosari*”, ofizioa “*hortulari*, *pelotari*”, etab.

Aditzak osatzen ditu *-ri*, *-rri* “*agiri*, *igarri*”, etab. eta *-are/-ar*, *-ere/-er*, *-ire/-ir*, *-or* erromanikoetan. Era berean, *arra-*, *erre-*, *er-*, *era-*, *ere-*, *ira-* aurrizki doala, adizkerak bermatzen ditu: “*ar*raltxatu, *ar*patu, *er*agotzi, *er*rebiratu, *er*etzi, *ir*agarri, eta *re*erromanikoetan, *re*move, etab. (Ikus 15,17,18 laburgoa)

13 Rason “*Ra* jainkoaren gogoko dena”, to’ ebah “gogoko ez dena”. (*En las raíces de la sabiduría*, C.B, nº 28, VD, Estella, 1980, p. 15

14 *La Instrucción para el rey Mericarê*, 130, DB., nº 10.

15 *La profecía de Neferty*, 67-68, DB. nº 28

16 *Ibidem*, 25, DB. nº 28, p.11

#### 5.4. *Ilu analogia sorguaren alorra*

*Ilu* jainko arketipoak *lau* zenbakia ordezkatzan du eta, Erra ereduarekin batera, hirugarren pertsonarena egiten: *auli, illu<sup>(1)</sup>, él, ella, la, lo*, etab. Hizkuntza erritualizatua asmatu zutenen sumertarrentzat argi zegoen arketipoen ordena hau. *Ilu* maiz deabruzat ere jotzen zuten, *ahuleriez* eta *hilduraz* zerikusia zuelakoz. An sendiko zen *Enlil*, Anen ordezkaria, bera ere muker xamartzat zeukaten. Monosilaboetan ez da besteak lain aberatza: *ala, ele, âl>ahal, ahul, hel, hil, loi, lo, lehi, eli, ulu, lelo, ola, olo, oilo, euli*, etab.

*Ilu* arketipoaren *elea* Ugariteko<sup>14</sup> mitoak landu zuten eta euskarak haren *ala/ahala* edo *hiletan leloa ulertzen* du: "Aldarrikaz elekatu zuan: *hil* da Ba'lu!" (1.5 VI 22-23). Balu *Iluren* biloi *ahula* zan: "Ahul batek ezin *âl/ahal* dezake borrokan egin" (1. 6 I 50), eta erabat, Balu galai *alena*, baldin *Iluren lehia aldeko* bazuan. Hagatik *Iluri* egin deiak *iole!, ale!*, etab, dinoe. (Ikus 1<sup>o</sup> laburgoan)

*Ilu* arketipoarekiko konposizioa *Enlil/Elohim, Alien, Iluno* dator, *Aloinamendi, Montealén*, etab. lekuko eta gizatasunez, *Bahu, Beel, Belamendi, Montebello*. Bere edukinen *larrea*, zeruan *litx, laino, luna<sup>(1)</sup>* eta *ilun* da, *lurrean leun, laun, loin<sup>(1)</sup>, largu*, eta *luma*, uretan *loi, latx, laku*, eta *lizun*, familian *alaba, iloba, loba, lioba, leinu* eta *lagun* eta gizartean *ola, laki, laket>licet<sup>(1)</sup>, aulki, eleka* eta *logos<sup>(1)</sup>*, legeaz *lagetu* edo *lotzeko* eta *lipistan lazeriatzeko*.

Hizkuntza zaulian *ahalduneko* esakerak laguntzen ditu: "hire burua ulzi *ahal* dezaket"(1.3 V 24). "*Ahal* dela/bai *ahal=uxalá!*<sup>15</sup>/*ez ahal/esakerak Iluren ahala* aitorten dute opatzeko, baldintzako eta ezbaikoetan: "etorriko *al* da!=iojalá venga/inork ez dezala jakin/jan dezala/baldin baletor/"Baldin Motuk ezpain bata lurrean jar baleza (1.5. II 2). NOLA/ZELAN galdegaiak Anu+*Ala* arketipoen indarrak baliatzen dira *-la* atzizkiz erantzuten dutela: "Jainkoek jan eta edanala" (1.6. III 12), "Noñatan heltzen direla Gapnu eta Ugaru" (1.3 III 36)/kaletik zetorrela/mendira igon zelarik, etab. Osterakoen kon-

14 DEL OLMO LETE, G., *Mitos y Leyendas de Canaán*. (MLC) Oharren zenbakiak *Mitos y Leyendas de Canaán* idaztienak dira.

15 *Uxala>ojala* oihuak *Utu+Ala* jainkoen izena aitortzen du.

17<sup>a</sup> laburgoa: ATZIKIEN ANALOGIA ARKETIPOEN ARABERA

AN	UTU	RA	ILU	KA	BA	AS
-en/-ana/o	-tu/a	-ar/-er	-illu/a	-ica/o	-be/-pen	-tze/-txe
-enea	-tio/a	-ara/O	la/-le	-ko/u	-iva/o	-es/a
-ania/-ina/i	-ti/-di	-aria/o	-ullu/a	-go	-ba/-bia	-ez/a
-eina/-ein	-tto/a	-era/o	-el/a	-ki/-gai	-av/-v/-f	-sia/-iz
-aña/o	-dui/-ito/a	-aire/-er	-lo/a	-gi	-pia/o	-za/o
-ona/-on	-txu/i/-ich	-or	-li/-lia	-ca/o	-fa/o	-ese/a
-une/-un	-so/-jo	-iri	-il/-l	-aca/-ac	-ap/-p	-ex/-ech
-men	-su/-ju	-ur	-al	-aga/-age	-pen/-bera	-esse/-ssi

Ohar: Atzizkien soina aurrizkiena bera da, nahiz batzuen eta besteen zeregina ezberdina izan izenaren konposizio eta erlazioan. Atzizkiok Europa guztiko tokizen-abizenetan aurkitzen dira.

posizioan ere parte hartzen du: “Halabaina, ez du etxolarik”(1.4. I 9)

*Ilu* arketipoak *-li* atzizkiaz burutzen ditu adizkera batzuk: “*ibili, jali, itzuli*”, etab. eta *al-*, *el-* aurrizkiaz indartzen hitz eta aditz batzuk, grekoan bederen: “*alegin, elerran, el-leipo, el-izo*”(8), *el-ligo>eligo*(9), estun>elestun, sari/elhesari, etab.

### 5.5. *Ka analogia sorguaren kaizua*

Jainkozko arketipoen jarraian hizkutzan aurrerapena ikusi dugu. Hanarteko lorpenei giza arketipoen gehigarrian hizkuntzaren arrakasta eta jakinduriaren garapena dakuskegu.

*Ka* arketipoaren *kaizua* gizakiak bizi duen *kaia* eta *kabia* da bere monosilaboetatik atera genezakenez: kosmoan *ki*(s) “*lur*”, *Eki, egu, egi, kai, ke, oko* eta *gizaki* beragan: *ka*(s)“*korpitz*”, *ekua*(s), “*egoitz*”, *egia, eiki, gei, igi, ka, uka, uko, hego, eko, gu, ego*(0), etab.

Jainko arketipoak gizatzen ditu atzizki jartzen dela: An/Enki, Inu/Inko, Eni/Enigo, ama/amako bezala, *-ki, -ko* jatorrizko zatiki seinale direla<sup>16</sup>. *Kingu* jainkoari, “esan/izan” arabera, *Ka* aurrizki duelakoz gaineria egotzi zitzaion<sup>17</sup>. Izen arruntetan jainkozko formak gizatzen ditu: *une/gune, in/egin, ume/kume, anoi/geinhü, aro/kai-*

16 Enkidu Anuren zatiki “bloque” bezala hautematen da, bere indarra dela-ta. (*Gilgames*, I, VI, 3, DB, n<sup>o</sup> 7)

17 *Enuma elish*, IV, 81-82. Cf. Gurean *Ekain, Kanamendi*, etab.

*rou*<sup>(a)</sup>=*garai*, *oru/ekur*<sup>(s)</sup>=*koro*, *loria/gloria*, *iza/giza*, *ortzi/egortzi*.

Tokizenetan jainkoei egotzi lekuak giza eskuko deskribatzen ditu *An/kana>gana*, *Anu/kano>gano*, *goien>guen>kina>kin*, *ota/kota>goita>goiza/guti>gutxi*, *ara/kara>gara*, *garai>gari*, *oru/ekur*<sup>(s)</sup> “mendi temploa”=*koru/gora* eta *ilu>gailu*, *kaila*, *gaila*, *egal*, *colle>col*: “*Kanamendi*, *Kainomenta*, *Gozamendi*, *Katamendi*, *Garamendi*, *Kalamendi*, *Galmentei*, *Ekurmendi*, *Goramendi*”, etab.

*Ka*, berez hilkorra denez, *ukatasuna* dagokio *-ka/-ke*, *-ga* atzizki ezarriaz: *izen/izeka*, *arte/artega*, *baitu/bekatu*, *besa/besaka*, *indar/indarga*, *zelai/zelaika*, *itxura/itxurga*, *man/manca*, *mano/manco*, *gartu/garbatu*, *batu/bagatu*, *barreiatu/barkatu*, *nai/neke/nagi*, *ba/bake*, *restar/rescatar*, *anditu/andekatu*, *alaitu/alakatu*, *lot/loka/-loco*, *atxi/aska*, *zuritu/zuri tzeke*, *nasai/naska*, *susa/sosiega*, *naro/narga*, *zur/zorga*, *estu/eskatu*, *plere/plicare*<sup>(n)</sup>, *jo/joku*, *juso/juska*, *jus/jugu*<sup>(n)</sup>, *fos*<sup>(a)</sup>/*fusca*<sup>(n)</sup>, *páis/pago*, *paisano/pagano*, etab.

*Gizakiak ekua*<sup>(s)</sup>+*ate>egoitza* du eta bere *ekinaz ekotzen* du *egokitu* zaion *gizalana*; *ekoizle* da, *ekosaria ekun egiten* du eta *ekoizpeneko giberrri* eta *abelgorriak*, *barazki* eta *landareak* bere arketipoz *gidatzen* ditu. (Ikus 13, 14 laburgoetan) *Ekua+berme>governatu* dator, *kubernao*<sup>(a)</sup> alegia, *etxeko kasta guritu* eta *gose-egarririk gordetzeko*, *geinhatzea gurasoei egokitzen* zaie eta *ugazaba/ugazamei* *etxeko agintea*, *amaren manuko izatetik*, *gurasoen gainera* eta *gizabideko agintera* datorrela, batez ere, *etxeko kasta>gazteak gatzigatuz*, *ikas ahal dezan*. *Eguraldia iragartzeko gende* abila izan da *gaurdaino ekur santutegiko gurua* eta aldi baten *agure>augure*<sup>(n)</sup> *abade gurasook “kuriati”*<sup>(n)</sup> esku handia izan zuten Erromako herri gobernuan.

Hizkuntza zaulia josteko ariare *gertu* dauka *-ko*, *-koz*, *-kotan*, *-neko*, *-lako* atzizki soil edo konposatuak erabiliz: *helburua “etortzeko*, *etortzekoz*, *etortzekotan”*, aldia *“etorri deneko”*, zioa *“etorri delako”*, ZEINTARIKO bereziak taldeka bereziagotzen ditu, *-netako*, *-netariko* atzizkia: “*ondo egin duenetako/duenetariko neska/hako* beranduegi *etorri direnetariko*”, etab. ZERGATIK kausa zehatza adierazten du *-gatik* atzizkia: “*bidea erratzeagatik*, *kausa ezbaikorra*, *-nagatik* atzizkira: “*hik eman digunagatik*”, etab. Zioak ondorea es-



## 18° laburgoa: GONBARATZEKOEN ANALOGIA ARKETIPOEN ARABERA

AN	UTU	RA	ILU	KA	BA	AS
ain/en-/oin	duin	aren	lain	gino	bein/bai	zein/asina
ansí	zoin	arean	aulan	cuán/qué	bezala	zelan/selon
antzo	edu/uti	urreean	lez	gisa/guisa	veluti	jas/yes/ez
onan	idem/adin	orrela	olan	kide/eguale	bardin	sic/asi/sí
nola	oso/total	oro/era	ala/ola	cual	bezain	sano
muy/anitz	txit/sumo	real	alaen	como	como	sane
inobre/inaure	super	are	alyim	geiago	presque	ya/según
ainbat	tanto/tal	aria	alako	igual	parecido	zenbait
máxime	thusto	eurrez	lar	guzti	vix/pene	aski/asko
nahiko	doi, soil	erruz	alaso	gutxi	harto/bien	aseki/assed
minus	ttantta	ralo	labur	ka/quia	poxi/poco	eskaz
noski	utique	real	alegia	eiki	vere, bai	certe
ante	tint/edo	ordea	aliter	contra	bestela	semeios
nahiz	todavía	or	alor	agian	baina/pero	siquiera
modo	talante	raso	ley	criterio	baremo	sentido
norma	edu/tipo	eredu/orden	laia	clase	forma	especie/sail

Ohar: sailean analogia bereko izen, izenlagun, aditzadilagun eta zenbait lokarri batzen dira

eskatzen du -nez+keró/-naz kero/-enaz gero eratan: “Hainbeste izan dugunezkeró, denentzako ailegatuko da, etab.

Jainko arketipoek bezala, adizkerak -ki, -gi atzizkira osatzeko *gei* da “ebaki, eregi”, etab. edo *ek-*, *go-*, *oc-*, *ac-*, *ik-* aurrizkiez hitz-adizkerak eraberritzeko: “obitu/akubitu, arri/ekarri, eron/igarón, urtu/igurtu, nizo/ek-nizo<sup>(9)</sup>, ceder/acceder, bermu/gobernu, etab.

### 5.6. Ba analogia sorguaren barrutia

*Batek Ba* arketipoaren *barruan barro* egiten du kosmoan *ibai, bea>behea>via<sup>(18)</sup>, bidea, ibarra* eta *basoa* dira eta gizakiagan *bere barrrena>barna, psike<sup>(9)</sup>, bizia*, eta “*barne bide*”>*fede*, “*barne via*”>*fe*. Hagatik *bidezko* eta *bidegabe* edo *ezbide* dena handik analogizatzen du. *Bidezko* dena *fidagarria* da, *ben-bena* eta *ber-bera>vera<sup>(1)</sup>* “egia” direlako, behin bere arketipoz jainkozko ena>*bena*, edo era>*bera* egitean. *Ka* arketipoa *ka, kia* besteen hitza ukatzen datorren bezala,

18 Etiopian *Abbay* deitzen da “Nilo Azul”, eta Egipton *Hapi* “Nilo” *ibaia* bera zan *ibilgunerako ibai+ate>bidea, bizitzako* zereginetan eta heriotz ostein, *ibaian* beste aldera barkan “atabuta” *ibaitzean*.

*Ba, ba, bai*, norbere sentikera eta asmoetako hitza den *fedea*<sup>19</sup> aitortzen dator. *Ba* arketipoaren aglutinatzea hasieran atzizki doa *An/Nabu*<sup>(ba)</sup>, *Utu/Su.ap*<sup>(s)</sup>, “*sube kosmikoa*”, *aina/neba*, *oto/osaba*, *aita/izeba*, *oru/orube*, *Ilu/loba*, *Ala/alaba* eta gero aurrizki doa: *An/van*<sup>(a)</sup> “*Anen seme*”, *Utu/Apsu*<sup>(a)</sup>=*botxo*>*potzu* (*puto/a*) “*Uturen seme*”, *Ra/bar*<sup>(ar)</sup>, *Girra, Farau*<sup>(h)</sup> “*Erraren seme*” eta *Ilu/biloi*>*filiu*<sup>(l)</sup> “*Iluren seme*”, *El/Beel* “*jaun*”. Jainkoen beste sorkarietan ezagun dira *Otxin/potxin*, *Adu/patu*, *Adar/padar*, *Ur/Ubur*<sup>(s)</sup>=*Iburni*, etab. Berak baituko mendiei izena ezarri die: *Bamendi/Mendibe*, *Pimenta/Mendabia*, etab. Gizabide berdina du izen arruntetara: *ano/vinu*<sup>(l)</sup>, *anoi/penu/fenu*<sup>(l)</sup>, *atalas/plateia*<sup>(a)</sup>>*plaza*, *uts/putz*, *oste/post*<sup>(l)</sup>, *ostiu/posta/puesto*, *ara/bara*>*bahar*<sup>(ara)</sup>=*ibar*, *aro/abaro*, *orue/borea*, *uri/buru*>*buru*, *haur/puer*<sup>(l)</sup>, *urt/port*, *erdu/verter*, *aratz/baratz*, *iritu/virtu*<sup>(l)</sup>, *ili/vila*, *ilitu/bildu*, *ala/bala*, etab.

“*Behar/deber*” adierazteko Erra arketipoarekin analogizatzen du: “*Errak barriro eraikitzen hasi behar du*=*Ra tiene deber de/debe de*<sup>20</sup>”. “*Aserre berbarik ez da berriz erran behar*, ez handi ez txiki; (*bada*) horrek “*ka*” aztoratzen du”<sup>21</sup>. Jakinduriak berak bete-beharra frogatzen du *bai-/bait/-/bai* “*Inor ez hil*, horrek ez *bait*-dizu onurarik ekarriko”<sup>22</sup>. “*Zeuk egin bait-duzu*>*baituzu/zeuk egin dozu-bai eta zeuk erantzun*”. Arketipo berak paratzen du erantzuneko arrazioa: “*berak egin bai-du, beraz, erantzun dezala*”. Erromanikoetan helburua=*fin* bilatzen du *para, pour*<sup>(l)</sup> lokarriekin: “*Dí la verdad en tu casa, para que te respeten*”<sup>23</sup>.

19 *Fedea* lehendabizi *barne* jarrera da, norbere hitza asmoarekin bat egiten duena, “*bai fedea, ala fede*” esakeretan ohi bezala. “*Fede onekoa*” barnez zindoa da, nahiz sinistez erratu izan, halatan da “*euskaldun fededun*”, hitzez aitortzen duenaren araberrako deino. Besterik da sinismena, giza barnetik datorren fedezko erantzukizuna. Hala Garibay: “*Frai Bizentek esala, fedea zina lizala*” eta testo zaharretan: “*Nik ematen drautzut fedea zuri ez beste emazterik egiteko...*” (L.MICHELENA, *Textos arcaicos vascos*, p.150-153). Giza harremanetarako beharrezkoa da halako *fedea*, tratuetan nor *fidatu* bestela inoren hitzaz? Orain pape-reko *berma* da *fede* hori bermatzen duen *firma*, *berma*>*firma* bai-dator.

20 *La profecía de Neferty*, 22, DB., n<sup>o</sup> 28.

21 *Las Máximas de Ptha-Hotep*, 7-5, DB. n<sup>o</sup> 10. Cf: “*ka*”=ganora, gana.

22 *La Instrucción para el rey Mericarê*, 45-50, DB. n<sup>o</sup> 26.

23 *Ibidem*, 45

*Batek* baikor edo baldintzan ebazten du. *Balinba* oihua baldintzaren hasikina da eta Ilu arketipoaren ahala analogizatzen du: “*Balinba* hau gizakien azkena izatea”<sup>24</sup>/*baldin* beste erremedio-rik ez *balego/zurea* ez *bada>ezpada*, norena da?” Ustezko ezko-rrean *ezpabere/ezpaere* egituraz lotzen du: “Zagoz isilik, *ezpabere* hartu egingo duzu/*ikasi* lezioa, *ezpaere* zigorra duzu”, etab.

Moduzko baldintzak *bai-* aurrizkitzen dio menperatuari: “lokar-tu egin da, nekeak *bailegon*” eta usteak Erra *bera* jartzen du leku-ko, egia denetz: “ona den *ber/ona* izan dadien *ber=a ver* si es bueno/*a ver* si de *veras* es bueno”, edo apalago ebazten du, gizabi-dezko ustea, *bide* darabilela: “joan *bide* naiz=*parece* que debo de ir”. Osterakoek erizpenaren baimena *beheratzen* dute *baina/baia* *pero* loturekin: “gozoa da, *baina* otz dago=*es dulce, pero* está frío”.

Arketipo honek, atzizki ez baina, aurrizki *ba-*, *av-*, *b-*, *be-*, *bar-ber-* berezi edo indartzen du aditza: *beheman*, *bezi>avezar*, *bares-tu*, *berdindu*, *beretxi*, *bermatu*, etab., eta greko-erromanikar *para-*, *peri-*, *uper*, *iper-*, *per-*, *pre-*, *pro-* aurrizki ugarietz bermoldatzen.

### 5.7. As analogia sorguaren esparrua

*As/hasi* dator *hasiera* eta *azkena* arketipoen, *esparruan esi>hesia* *hesitik* eta *exe>etxe/etzea* eta *heziketa* datozen bezala. Landaretza *xertuz*, abere basatia *heziz* doa *etxekotzen* eta *eztaiak jende* eta *sein* berriak dakartzkio *etxeari*, *as* eta *asperen* berriko *hazkundean*. *Asa* birietan *asperatuala*, *jaioberriak* *izate* berirako *espiritua* bezala, *erritoaren txertuak* jainkoengandiko *zi-d*<sup>(s)</sup> “*santu izate zehatza*”<sup>26</sup> ezarten bai-dio. Bere monosilaboetan batzuk *h-* bereizgarria dute: *hesi*, *hezi*, *etxe*, *etze*, *as*, *ax*, *exe*<sup>(ga)</sup>, *axe*<sup>(l)</sup>, *haize*, *iza(n)*, *xee*, *hazi*, *hasi*, etab.

*As* arketipoak *santutasun zehatza* ezartzean, nortasuna gehitzen die hitz berrituei: *ekua*<sup>(s)</sup>/*esku* eginez, *ekur*<sup>(s)</sup>/*eskuri*, *ekuru/seguru>zigur>ziur*, *ekuritu/zikuratu*<sup>(s)6</sup>. *Zikurat* dorreko edo *xain-*

24 *Las Lamentaciones de Ipu-ur*, V,10, DB, n<sup>o</sup> 26.

26 RIES, J. “SAGRADO (La expresión de lo sagrado en el mundo sumero-babilónico”, DR, o.c., p. 1577-1578

ko *etxeei Esagila*<sup>(s)</sup> “*etxe gaila*” ere zeritzaien eta lehen piramideari, *Sakara* “*etxa gara*”. *Esagilarantz* joian *sentoraleko* edo *sendabideko senda* edo *santutegiko* “*Vía sacra*”. *Santutegiko* erritoak, *eztituaz* bezala, *santu izate zehatzak txertatzen* zituan fede berrian *hasiak*, *Anu/xaun>jauin*, *Inu/Jeinu*, *Eni/jein*, *An/Shan*<sup>(u)</sup>, *Utu/Shedu*<sup>(s)</sup>> *Xesu*<sup>(ga)</sup>, *Erra/Esharra*, *aroi/saroi*, *ele/sail*, *barru/esparru*, *Antu/Shamsu*<sup>(a)</sup>>*santu*, *Arthe/Astarte*, *Ande/Sanda*, *inutu/jeinatu*, *anotu/sanotu*, *aran/saran*, *arpe/sarabe*, *arru/zerro*, *inda/sendá*, *enda/jende*, *ante/zendea*, *Inko>Xainko* edo *Enki>Xekina*<sup>(ara)</sup> *Jainkoaren* ikono “*antze*” *aurrean exeri* edo *xaiki*, *eskuartzeko eskubidearekin*. Horri *esan* zioten *hizkuntza askotan iza(n)=esse<sup>(l)</sup>=essere<sup>(ti)</sup>=ser=eismi<sup>(g)</sup>*, *as* “*bizi arnase*” *berria* edo “*lehen balore*” edo *axe<sup>(l)</sup>*, *exe<sup>(ga)</sup>=ardatza*. Bere *esparruko mendiei izena ezarri die: Etxamendi/Mendexa, Esmendi/Mendes*, *etab*. Bere *jabetzako landaretzari eta eskilatuko abelei etxe* *labela ezarten die: ele/txahal, ato/asto, ur/ezkur, uro/Ishkur*<sup>(s)</sup>/*xekor, or/txakur, etab*.

“*Etxeko sein* eta *semeak sen esleituko jendea eskolatzeko eta eskua ezarteko etxejauna* eta *seinzaina* eta *auzoa jaurritzeko exerlekua eskuratzen* ditu. *Gizarte berrian etxeko eskua* eta *eskubidea duenari etxe deritzaio*, *ezpaere* “*petxa*” eta *gramatikan txeia, che, se, ése, je<sup>(l)</sup>, hich<sup>(a)</sup>, sfas<sup>(g)</sup>, zeu* *izenlagun dira* eta *ze, zer, zetan/zertan, zelan, zergaitik, zerren* *galdegaiak*. *Hitzak aitortzen dutenez, As hazaiera* *hobekoa da*, *Ka ondoan*, *hala jabetu/gabetu, zale/gale, saldu/galdu, sanar/ganar, sal/cal, salvar/culpar, seme/kume, chaval/cabal, sachara<sup>(l)</sup>/grasa, aiza/gaitza, saber/caver, ixotu/gaixotu, sena/gana, seinu/keinu, sano/gano, saindu/gaindu, sanado/ganado, etab*.

*Esku hitza analogia iturri egiten da, esku/kutxa* *ere badela*, *arke-tipoak itzuliaz, eskuratu, esku izan, eskutu/ezkutu, eskubide, eskondu/ezkondu* da *erritozko forma estutuan eta eskatu, eskaritu, eskaini, eskantzatu, eskatimatu, eskuzabal* *denean*.

*Ugariak dira jatorria adierazteko esku*<sup>-27</sup>, *sch-*, *sc-*, *aurrizkiak eskualdun, scoch, escita*, eta *ez gitxiago -ska/-sko, -xka, -zka, -zko*,

27 Hizkuntzetan *esku+ara>eskuara* da eta, arketipoak itzuliaz, *esku/gu'ez Axun*, *Etiopia zaharreko hizkuntza*.



Lagash uriko Gudea, neosumeriar artea (2142-2122). Erregeak gonan idatzia erakusten ditu aginduak eta ohartzeko dira *esku* bien artean antzetzten duen *kutxa* (*kutxa/esku* arketipo bereen itzuliketaz eratzen diren hitzak bai-dira) berari emana izan den *eskubidea* antzetzten bailiardun, edo “neure *esku*” “neure *eskuetan* dago ahalmena eta *epaia*” adierazi nahi bailuen.

-*sco/-sca*, -*zki* atzikiak beti ere *As+Ka* aurretik dela eta *xeeta-sun*, *sendi*, *jatorri* eta jokera adierazle: *iduzki*, *iruzki*, *oilasko*, *kopaxka*, *gorrizka*, *negruzco*, *urrezko*, *arrazko*, *oinezko*, *morrisca*, *grotesco*, etab.

Arketipo honek *se-/sa-*, *ja-*, *etxa-*, *as-*, *az-*, *ex-*, *s-*, *ast*-aurrizki aditz zahar asko biziberritzen ditu: *ihesi*>*sahietsi*, *urt*>*jaurt*, *erria*>*exeri*, *erun*>*etxa-*

*ron*, *aurri*>*jaurri*, *erion*>*jarion*, *erantsi*>*jaraunsi*, *egon*>*jagon*, *beratu*>*aspertu*, *batu*>*azpatu*, *bildu*>*azpildu*, *oratu*>*astoratu*, *undu*>*astundu*, *ago*>*eisago*<sup>(9)</sup>, *eligere*/*seligere*<sup>(10)</sup>, *fero*>*spero*<sup>(11)</sup>, *perio*>*experio*<sup>(12)</sup>, *traer*>*extraer*, etab.

Hizkuntza arteziak *etxe/etze/exe/zi* alofonoez sebitzatzen da zioa eta ondorea, mukuluduna eta astratoa bereizteko, hala *xeken/zeken*, *egotxi/egotzi*, *jaso/jazo*, *sail/zail*, *sagi/zagi*, *antsi/antzi*, *artesi/artezi*, *sorta/zorte*, *seinu/zeinu*, *xori/zori*, *sen/zen*, *casar/cazar*, *sina/zina*, *sador/zator*, *sentzun/zentzun*, etab.

Hizkuntza zaulian *ZEREZ* kasoak gaia, gailua eta *ZELAN* kutsuko aldia, eta zioa josten ditu: “burdinaz, aitzoz, mendiz”, “etorri denez gero/etorri denaz batera”, “ibiliaz bakarrik”, “ondo dakizuenetz”, “esan duzun legez”, etab. Adizkeretan *NORI* adierazten du, -*st*, *sku*, -*tse* atzkiez “daust, dusku, dautse, etab.”

## ONDOREA

Hizkuntzak monosilabismotik hasi eta aglutinatzetik zehar, hizkuntza zaulira egiten duen gorakada ikustean, euskararen ume-tarora, gaztarora eta heltzarora nabaritzen dira euskara beraren morfologian historia eginik. Baina morfologia utza berez ez zan nahiko izango mitologiaren ospea entzun ezik eta hara gidatzen gaituen arketipoen argia ikusi izan ez bagenu.

Arkeologiako aztarrenek adierazten digutenez, Neolitosko kultura, tokian tokiko teknika barik, bata besteen partele izan direla hasi Mesopotamia eta Egipto gunean eta Sartalde guztian. Hizkuntza den arteziak ere handik honako zabalkunde berdina izan duela adierazten digute, hizkuntzaren sinbolo eta arketipo berdinak eta haiekandik hitza analogizatzeko izan duten ohiturak.

Egia, zuzena, eskubidea eta jakinduria bera jainkoengandiko dohaia zenez, eta lehendabizi jainkoen izenez aipatua, gero giza arketipoez zehaztua, jakinduria maila hoiien lekuko ziurra euskara dugula. Bere eskutik antzeman dezakegu justiziaren historia ere jainko eta giza eskubideen ganora kondaira -aurretik eta honagino.

Hala ere, beharrezkoa genuen Sumer edo Egiptoko mitoen berri izan eta haien jakinduria idatziaren aztarrenak aztertzea ahozko euskal jakinduriaz gonbaratu, edo eta antxinako lege idatzien edukinak gureek ahoz-ahoz euskaraz emon eta gaztelaniaz idatzi zutenekiko kutsua antzemon, ahozko edo idatzizko kondairaren ostean kutsu bereko hizkuntza dagoela jakiteko.

Hizkuntzaren gidaritzza gältzen denean, literaturarena gelditzen da, baina oso murriztua eta aldatua, klasikoen eskutik maiz gezurtatua izan ezpada. Hizkuntza, ostera, ziurra da, "sinistu hizkuntzari, bera bai-da benetan sinistagarri den lekuko bakarra" M.Müller, erlijio azterlariaren arabera<sup>28</sup>, hizkuntzak pentsamenduaren sorgura, ura garbia eta edangarria den lekura bai-garoaz.

28 "Ahora bien, la lengua es un testigo irrefutable, el único que merece la pena de ser escuchado" (Ries. J. "M. MÜLLER, F. M. (1823-1900)", DR, O.c., p.1261-1262)

## VI. HIZKUNEA ETA HITZAREN HERMENEUTIKA

Analogiaren sorgua eta hitzaren sorreraz lain, hiztegia nola antolatua izan den jakitea dagokigu. Entzulea hitzen eta irudien arteko iskibiduan galdu ez zedin, lehen mezuen adierazle, hizkune edo esan formulak sortu ziran. Jousse<sup>1</sup> hizkuntza antropologia azterlariaren arauz, ahozko hizkuneok izan ziran hizkuntzaren lehen pausoak, adimenaren eta oroitzaren lagungarri, eskuketa eta gainerako seinuen zehaztaile, abotsa nabaritu zenean. Behin iruditeria norbere baitan kordatuz gero, soinuaz parekide diren deierak elkarren jarraian esanaz batera, elkarkide egiten dira, bataren edukina bestearekin antzemoteko edo hitzak, irudiaren arabera, behingozko azalpenez adierazteko. Analogiaren guneak beretik ematen zuan soinu berria, bata besteagandiko berezko eratorri, *ama/ume* bezala. Hizkunea hitzaren arteziaz edo magiaz baliatzen da, ahotzaren iskintxo txikienaz ideak abian jartzen ditu bokalen estutik zabalera, adibidez, burutu ditezen, hitzen doinua ustiatuz, ahalegin txienaz bultzada handia amaten diola adierazbideari; *Utú/ítu*, da, *Utú/ítxu*, etab.

Hizkunearen teknikak hitz soinukideak elkatzen ditu, soinuarekin batera ideak ere aurrera pausoa egiten duela: hori bai da hizkuntzaren lehen pausa, hasierako monosilabetan ikusten denez: *Anu/on*, *Ino/ino*, *Utú/otú*, *Erra/erri*, *Ilu/lo*, etab. Edukin askodun monosilaboak bokalismo aldakorraz edo konsonante alofonoz bereizten du edukina, behin behineko definizioak eginaz. Hitz aglutinaduetan ere artezi berak jarraitzen du *Antu/antzo*, *Ande/anze*, *Inko/inka*, *Tutu/txutxu*, *otatu/osatu*, *Maat/maitte*, etab.

Hizkuntzak, ahozko hiztegiarekin batera, hasieratik sortu zituen soinuen oroitzua errazteko *esan/izan* magia duen artezia, esanala, ulerbideari bide berria egiten diona, *anze/anzi* hizkuneak ere deinua eta teknika orekatzen dituen bezala. Zaulitasun garaira heldu orduko, hizkuntza, euskara bederen, *izen/izan* bezalako adierazpide diren hizkune mokaez baliatu izan da. Ez dino "izena

1 SCHEFFER, P. "JOUSSE, Marcel (1886-1961)", DR., o.c.,p. 916-918

duen guztik ba du izana”, esakune eratara. Biak dira jakinduriazko esakerak, baina bata aglutinazio garaikoa eta bestea zaulitasun edo gramatikalizazio garaikoa. Hizkuneak hitz biren otskide-tasuna bera du lokarri, hona protoeuskara eta esakunea, berriz, gramatikazko lokarriaren esakera, euskara heldua, biak ere hitz ahoskatuaren garaikoak.

Hizkune artezia mokau txikira saiatzen da eta halatan esakunea bera ere laburto emateko adina egiten, ideiak zehatz eta labur ematean bai-dago mezu emakerako denboraren aurrezkia. Hortik ezagutuko da, haren baten “euskaldun, hitzetan labur” esakera, ez ziur totelduragatik, ahozkeraren gutxitan asko aditzen emateko adina delako baizik. Hortik datorkie esakerei ere, soinetatik ideak gogoratzeko artezia eta zati bikoitzak puntuan amaitzeko jokera: “goiz gorri, arratz euri” edo “kalean uso, etxean otso”, adibidez. Bestalde, hizkunearen artezira eginak, nahiz ideen funtsa jasotzeko prestuago izan, zailtasun gehiago izan ditzake, erdal lokarrien bidez hitzak josteko ariketan, hitza bits gertatzen zaiolako halako luzapenetan.

Hizkuntzaren haurtzarora den monosilabismoa, euskararen historiako lehen urratza den bezala, hizkunea da adierazpideen eta, beraz, ahozko literaturaren lehen abiada. Hizkuntzalariek teoriarik ezan ezaketena, euskarak argi eta garbi praktikatzeko duela ikusenezake eta, beraz, euskara, mito biziaren zuziak edotariko giza jakindurian, historian sakontzeko<sup>2</sup> hermeneutika gida baliagarria da. Hizkuntzaren monosilabismo garaia gizakiaren haurtzaroarekin batera dator eta hau izadiak berezko dituen legeekin antolatzen zan, ama-jainkosa aginteko gizartean bezala, hizkuntzaren aglutinazio garaia, berriz, jainkoen bigarren belaunaldian elkarrekin edo gizakiekin ezkondu zirenekoa, hizkuntzaren gaztezarora da eta mitoen jeinu eta eroien garaikoa zan eta batabestearen nausigoan edo agintari eta mendekoen eraginera gidatzen zan, enperioetan bezala, eta,

2 Hala historiaren filosofian Vico J. B. autoreak, adibidez, mitoen arrastoari jarraiki, gizadi kulturaren hiru adin bereizten zituan historian zehar: haurtzarora, gaztezarora eta heltzarora: haurtzarora, jainko eta jeinuen, gaztezarora, eroi eta erraldoiena eta eltzarora, adinduen zentzunarena. (RIES, J. “Vico, J. B. (1668-1744)”, DR. o.c. p. 1818-1820)



azkenik, hizkuntza zauliaren garaia gizakiaren heltzaroa da eta gizarteko herrigintzarekin dator eta herria batzarrean irazi legek eta foruekin jaurritzen da. Errito zaharrak, adibidez, haurtzarokoak dira, eta eskualdetako batzarreak heltzarokoak. Euskaldungoak ostaz du enperio oroitzapenik, ausaz, haurtzaro luze batetik, heltzaro goiztiarrera izan da bere bidea, hizkuntzaren jainko arketipoetatik giza arketipoetara doana. Eta hemen giza arketipoen hazkundean nabaritzen dira haren gaztaroa eta heltzaroa. Gaztaroa beti nabarmentzen da ohiturako lege apurketan eta guraso jainkoekiko eztabaidan eta hori da *Ka* arketipoaren gaineriako ganoran nabaritzen dena<sup>3</sup>, jarkera horren porrotak dakar heltzaroa, *Ba* apalgoaren filosofian agertzen dena eta *As* asperenak ematen diola azkenik santutasun eskarra. Jakinduriaren exegetek “kosmo jakinduria” edo “jakinduria zaharra” deitzen diote lehen kultura aldiari, “gizarte jakinduria”, bigarren aldiari eta “jainkozko jakinduria”, hirugarrenari.

Euskal historian Euskal kulturako zuzentza eta eskubideen historiak ere euskararen egituretan sustrai sakona bila dezakelakotan, ematen dugu hizkunen kapitulo honetako ariketa. Hizkune monosilabo eta jainkozko aglutinazioen zahartzaroa eta giza araketipoak jainkozkoekin ezkondu zirenekoa.

Herrien jakinduriaren azterleak hizkuneen berdinketak eta bereizketak hitzaren artezi eta esakera laburretako ariketa bezala ematen dituzte, hizkunearen hitz bikotea berez elkarkide jotzen dutelarik<sup>4</sup>. Euskal hizkunea berdintasunean oinarritzen da, batez

3 Gnostikoen arabera, giza konplexuan materiako munduaren sorle den norkeriaren grina da *Sofia* “jakinduria” itxutzen duena, haren baitatik datorke damua eta haren espiritutik, salbabidea. Gnostikoak teologiazko jakinduriaren ereduak dira eta azken aldiko jakinduria hau da jakinduria guztiaren sintesia. (SEVRIN, J. M<sup>a</sup>, “VALENTINISMO”, DR, o.c., p. 1803) Cf: Antxinako Sortalde Hurbileko jakinduriaren arabera, giza konplexuan *Ka* gorputza da, *Ba*, baita=psikhe<sup>(6)</sup> eta *As* “asperatu>espíritu” da, ots, jainkoengandik erritoz lortzen den santutasun zehatza. Horrexek dira giza arketipoen ereduak ere. Cf: ZUBIAGA F. *Analogía, arte del lenguaje, según el vascuence*, o.c. p. 67-68.

4 “En la literatura de sentencias es caso típico la equiparación “sabio/justo” y “necio/malvado”, que confiere una relación intrínseca a lo ético y sapiencial”. (MORLA, V., *Libros sapienciales y otros escritos*, o. c., p. 38.

ere, *Anu/une*, *Utu/itu*, *totil/sotil*, adibidez, eta bereizketak egiteko *-ka/ke*, *-ga/ge* atzizkiez serbitzatzen da: *Ba/bake*, *As/aske*, *zuur/sorga*, *eskier/eskerga*, etab. (Ikus 12° laburgoan) Eurotan lege eta eskubiden gaiaren ardurazkoen direnak aipatuko ditugu.

### 6.1. An arketipoko hizkuneak

Herria zuzentasunean eta eskubidean antolatzeko, legegilea eta agintaria nor den jakin behar da. Mendekoak ere bere eskubideak ezagutzen ditu, familian, hauzoan edo herrian. Nor da, beraz, jaun eta jabe? Nor<sup>5</sup> agintzen du? Eta mokau laburretan emango dira erantzunak: *Anu/unai*, *Anu/onu*, *Anu/on*, *Anu/un*, *Inu/in*, *Inu/ino*, *Anu/hona*, *unu<sup>(l)</sup>*, *one<sup>(l)</sup>*, *Eni/ena*, *Eni/ni*, *Eni/hain*, hasi monosilaboetatik eta aurrera. Edukin guztiok hartu zitzaken Nor hori An “zeru” jainkoa da, Sumerren jainkoen eta gizakien aita.

*Ino/ino* hizkunez Jainkoa lehen hitzuna dela dino, den guztia bere hitz ahalguztidunaz sortu zuelako. Hagatik *Inu/in* hizkunea ere, “*gizakiak egin*, *baina Jainkoak in*” geroagoko esakuneak zihurtatzen duenez. Beraz, Inoren ekintza *in* da eta giza ekintza *ekin* > *egin*, hau hasierako haren jarraipena bai-da, *Ka* gizatasunez jantzia. Hagatik *gizakiak inoz* eta kantuz ospatzen du, *Inotean antzo*.

*Anu/onu* berez dator hizkunez, erabagiak hartzekoan, *Anuk* biltzen duelako jainkoen batzarra, adibidez, *gizakiak enegugarri zire-nagatik*, Ugoldeko uraz eta suaz zigortuak izan zitezela erabagi zutenean<sup>6</sup>. Haraz gero legegileek ere Anuren onua jarraitzen zuten.

*Anu/hona*, *unu<sup>(l)</sup>*, *one<sup>(l)</sup>* da, berari dagokiolako lehenatasuna adierazteko edo zenbatzeko nortasunekin. Bera da *Anu/unai* ere, aintzin egotea eta aintzindariari izatea dagokiolako ainak eta antxumeak manatzea edo ume anutuak inutzea. Beraz, *Anuren* unaigotik

5 Sumerretik Urartura, ibabetik mendira, Mesopotamian zehar honek ziran An jainkoaren deierak *An<sup>(s)</sup>*, *Anu<sup>(a)</sup>*, *Eni<sup>(nu)</sup>*, *Inu<sup>(ur)</sup>*. Funtzekoa zan jainko izen honekin euskara ere bat etortzea, *Inote* ospakizun eta ohiuzkoe-tan agertzen denez, “nolako jakinkoak halako hizkuntza” frogatzeko.

6 *Gilgamés*, XI,I, 9-114.

7 “Izan ere, *Anu-ren une=muina* bezain handia da bere indarra” (*Gilgamesh*, I,III, 4ss, ANET,72-79,83-90, 92-97, 514-515).

## 12° laburgoa: JAKINDURIAZKO BERDINKETA-BEREIZKETAK

AN/ANU: Anu/onu, Inu/ino, Eni/ena, man/maña, Inko/ungo, mai-luki/melek<sup>(6)</sup>, mente/mende, mentu/mendu, anze/anzi, antzu/antzi, antzi/antxi, untza/untsa, nabustu/nabastu, nado/natu, mendeku/mendigo, numen/nomen<sup>(6)</sup>, iñozo/inoxiu<sup>(6)</sup>, necio/nece<sup>(6)</sup>, ainanino/inanne<sup>(6)</sup>,

UTU: Utu/dui, itu/itxu, otin/Otxin, Sin/zin, Hator/adore, atton/atün, itun/itaun, sutu/juzo, xintu/zindo, duin/zuin, toin/soin, totil/sotil, utzu/uso, ituna/isuna, auxi/auzi, utzi/uzi, otatu/osastu, done/don, toin/duin, duce/juje, txigor/zigor, dona/sona, doctore/dotore, docere/ducere<sup>(6)</sup>, sila<sup>(6)</sup>/zil, tiretu/directu<sup>(6)</sup>, atarratu/asarratu, atoratu/azoratu,

RA/HORUS: Erra/erre, oroi/orroi, erri/erru, Erra/ar, Erra/ira, erretu/ertu, arren/erran, erresa/res<sup>(6)</sup>, Eros<sup>(6)</sup>/erogo, Eros<sup>(6)</sup>/Erios, ersu<sup>(6)</sup>/erresu, orde/ordeu<sup>(6)</sup>, errezatu/erraztu, rogu<sup>(6)</sup>/ruego, rason<sup>(6)</sup>/razón, eregu/erregu, ergel/argal, arkhe<sup>(6)</sup>/argi, re/regal<sup>(6)</sup>, orube/orbe<sup>(6)</sup>, ordain/orden, eretxi/eresi, eresi/eratxi, eresi/erazi, Aruru/haur,

ILU: ele/el, Ala/ahal, Ilu/lo, altu/altsu, alaina/lain, olim/ilun, olim/lain<sup>(6)</sup>, ilutu/luto, ilutu/ilotz, ilutu<sup>(6)</sup>/ilusio, altu/altzu, elekatu/alakatu, logos/logios<sup>(6)</sup>, lauru<sup>(6)</sup>/loria, elge/lege, legal/leihal, alte/alde, lite<sup>(6)</sup>/lid, legea/lehia, ley/laya, laki/lagi, laketu/legetu, loretu/lortu,

KA: kai/kia, ekia/egia, ikui/igui, giza/guisa, kanore/ganora, emqu<sup>(6)</sup>/queen/kin<sup>(6)</sup>, guen/kin<sup>(6)</sup>, gal<sup>(6)</sup>/galai, kide/gida, cura/gura, gratia<sup>(6)</sup>/grasa, capio<sup>(6)</sup>/cappo<sup>(6)</sup>, kusu/kusi, causa/gauza, korde/corde<sup>(6)</sup>, korde/gorde, kardia<sup>(6)</sup>/gardi, kari/caro, castigo/gaztigu, ekoizte/kosta, cabeza/capaz, gailen/galen, gaixto/gaixo, quaerere<sup>(6)</sup>/querer, garbai/garbi, egortzi/aegroti<sup>(6)</sup>, guritu/gurtu, guritu/gurdo/gordo, galdu/saldu,

BA: ibai/epai, ibai/via/fe, bide/vida, bide/fide<sup>(6)</sup>, apen/pena, vereda/verdad, bizi/vis<sup>(6)</sup>, beretxi/pretiu<sup>(6)</sup>, beena/bene<sup>(6)</sup>, behatu/beato, buro/foru, buru/aburu, bage/vago, bera/vera<sup>(6)</sup>, benaz/penaz, beztu/avezar, botere/borta, poder/puerta, piel/fiel, obari/opari,

ETXE: as/hasi, hesi/hezi, xabe/sabia/o, xaun/sano, xabetu/sapere<sup>(6)</sup>, sein/zein, izen/izan, espe/spe<sup>(6)</sup>, esan/izan, zer/ser, eztai/ezti, seta/zeta, zen/san, sanatu/santu, santzu/sancitu<sup>(6)</sup>, zendua/saindua, espain/espen, etxeko/esku, eska/esca<sup>(6)</sup>, eskuratu/asegurar, eskari/ezker, esku-ra/segur, senda/sendo/sandu, zendu/zaindu, sede/xede, etxe/etsai, eskarmentu/escarmiento, etxakona/ezaguna, eskarniatu/escarnecer, saindu/zaindu, izaritu<sup>(6)</sup>/uztarritu, eskeratu/sekretu, eskondu/ezkondu,

antzezen *daanutu/inutu* "gose/elikatu" hizkunean ere. Hagatik *Anu/on* kalifikatzen da, "*ona Jainkoa bakarrik*" bai-da.

*Anu/un* dator hizkunez, gizakia *Anuren une* muinetik sortua delako, Sumerreko mitoak aipatzen duen bezala<sup>7</sup>, edo geure artean seme-alabak gurasoen espaleko aitortzen ditugun bezala. Eta izantasunean *Anu/un* dugularik, aldian eta tokian *Anu/une* dugu.

*Eni/ena* "zerua/egia" esatera dator. Hagatik *ena*, *huna*, *hona* gure barbaroaren makulua da, *Eni* "jainko zerua" hartzen dugu dinogunaren lekuko, "bai, egia santua" aitortzen dugunean bezala. Forma gizatuan ere erabilten da "bon, bono" eta elkarrizkatuaren esana zehaztu nahi dugunean, *bena*, *baina* erabilten dugu.

*Eni/ni* dator izenlaguna, giza nortasuna *Anuren unetikoa* denez gero, eta bereziki emaztea *Anu/no* da, sorkuntza eginkizunean haren magala duelako. Gizakiak *An* sendiko *nini* egiten du burua, amaren umea amaren *un/ume* amak *umo* duen heinean. *Eni/ni*, *mi*, *mih*<sup>(7)</sup>, *meu*<sup>(9a)</sup>, *moi*<sup>(7)</sup> eta aldameneko izenlagunak.

*Eni/hain* da gonbaragailuetan, gehiengoetan *-en* den bezala, handi dena *An* menetik antzezen delako, "*Eni heineko, hain handi/hain altu*" esaten dugunean bezala, *Ainibar/Ibarrena*, *Anielarra/Larraine*, etab. *hain* alturatik antzezen eta deskribatzen ditugu tokizenak ere.

*Nanna/aiene* dator hizkunez, *An* jainkoaren alabak *aiene* minak mingatu zituelako gizaki zigortuaren hondamendia ikustean<sup>8</sup>. Berarekin batera *Antu/Nin*.tu amak, nekearren, antzi egin zuan amatasunean *Antu/antu*>*handi* datorren bezala, seme-alabekiko *nahika*>*neke* orduan, *Antu/antzi* mitoko gertakaria memoratzen baiz du euskarak hizkunean. Jainkoen goralpeneko *inoak* eta *aieneak* abestea Sumerreko kultura idatzian agertzen dira lehendabizi.

*Ande/antz* dator eratorriz eta hizkunez. *An* sendiko jainko hau *Andamendin* ospatua izan da gure artean. Gizakiak jainko *antza* duela haren *aintza* du berarekin eta haren *antzeko aintza antsiatzen* du eta nolabait eta noizbait *antxituko* duelakoa du bere baitan, guraso-seme-alaben arteko *amets* senak hortarantz, Inkoa-

ganantz baileroan (Job, 4,15). Hizkuneok gizarteko oinordekotza eta giza sikologia teologia mailara jasotzen dute igarri ere egin gabe.

*Antzi/antxi* hizkuneak “biziki nahi/lortu” esan nahi du eta “nahi duenak lortzen” geroagoko esakerak gauza bera iragarten du.

*Man/maina* dinonak *ama*-agintea aipatzen du eta amaren esku da *maina* hitzaz azaltzen dena. Beste era batera, *manu/manu*<sup>(9)</sup> = “esku” erataraz azaltzen da, agintzeko artezia “esku arteziakin” lotzen bai-da. *Mainatsu* egiturak > “*mañoso*” dakar errotik.

*Man/men* hizkuneak “agindu/obeditu” baino gehiago esan nahi du, “*ahal duenak eskumenean du*” adibidez, *manu/manu*<sup>(9)</sup> euskarak eta erromanikoeak “ahal/esku” oroitzen duten bezala.

*Men/min* hizkuneak bokalaren zabaletik esturako itxituraz, *An* arketipoaren partaidetasuna neurtzen du txikitik handira, eta hizkuneak baretasuna norbere menean zein lorgaitza den adierazten digu, norbaitek *min* hartu duenean. *Minduak men* ezina du, hatarako norbaiten *mana* eta *maina* beharko luke.

*Mendi/mende* dator hizkunez eta norbere eskarmenduz. Jainkoeak ere mendi santutegitik mendetzen zuten lurbira<sup>9</sup>. Mendira igoten duenak ibarraldea begien *mende* dauka, *mendia* bera, maiz mendetu ezina edo mende gaitza du, ostera, gizakiak.

*Mentu/mende* hizkunea aurreko hizkUNETIK dator eta asmotan burukatzen dena borogatu gelditzen dela dino, “*asmoz eta jakitez txikiak handia bentzuten*” esaten denean bezala. Euskarak *mentu*, latinak *mente*<sup>(9)</sup> eta mendiaren magala analogizatzen dute -*men*, -*mentu* atzizkietan ere: *salbamendu*, *oroimen*, *adimen*, etab.

*Mentu/mendu* jarraiko hizkunez, gizakiagan heziketa lana gorai patzen du “*nolako mentu*, *halako mendu*” arabera, adimenak emendioa egiten bai-dio gizakiari eta abere usuengandik bereizten du bere ganora. Giza *mentuak* gizartera bezala, landaretza eta aberedira zabaltzen du bere *mendua* “txertua”.

*Amoratu/amorratu* arketipo baten gogorduraz soilik lortu da hizkune hau. Maitasuna herioaz, “eros<sup>(9)</sup>/erios” bezala, lotzen dutenak

9 “Berak menditik gidatu zuan” (*El Diluvio*, 44, ANET, 42-44)

edo ezkonduen arteko tukuak, arrazoi ematen die esakera honi, "maitasuna herioa baino gogorra" bai-da (Kant 8,6).

*Inko/ungo* hizkuneak "Jainko/bakea" dino eta, hain zuzen bakea Jainko dohaitzat ematen da "eta bakea lurrean haren gogokoei" otoizten denean bezala. *Ungo* bake duina da edukinez, "bake" ostera, ukapenean datza, arketipoz "Ba gabe dagoen Ka=hilotza" bai da.

*Inko/aínco*, *Inka/inka* esakerok *Inkoari* egin kexu eta unearren larria adierazten du, gaztelania lekuko, "con *aínco*=Dios y ayuda" eta "halainka" zinginak ziurtatzen. Halainka (jo!) Jainkoaren izena alperrik ahotan ez hartzearen esaten omen zan.

*Maat*<sup>(e)</sup>/*maite* elkarrenak dira jakinduriatzko jainkosaren ardurak eta *maite* izatea, *amatu/amadu* "ama izatera heldu/maitatu" denarena den bezala, batak bestea dakarrela, ots, amak dakiela, beste inork baino hobeto, *maitatzea* zer den. Hagatik esan ohi da "ama bakarra da". Egiptoko jainkosa hau *Maidi* bezala ezagutu izan da eta *Maia+atze* errittoa eta ilea bere omenez irazi ziran.

*Mari/marra* hizkunea ulertzeko *Mari* jainkosaren jokabidetan behin ere zapaldu behar ez ziren *marrak* kontuan hartu behar dira, humeen pausoak zuzenetik gidatzeko, hesiak jartzen bai-zizkien: "ez hil, ez ostu, ez gezurrik esan, etab". Bideok *marratzea* gaiztakeria zan, halakoak *marro* egiten zuan "demarrar" eta *markatu*, *markiztu* eta *martzuka* gelditzen. Zenbat holako etimologietan!

*Untsa/untza* "zuzena/ardatza" dino bai teknikan eta bai gizar-teko ungoan. Izan ere, bakearen oinarrietarikoa *untsa* da, hizkuneak, berriz, "untze batek bestea ateratzen du". *Untsa* "un/on+ate" osatzen da eta zuzentasuna "unaren/onaren atea" dela dino.

*Natu*<sup>(o)</sup>/*natu* hizkuneak "jaioa/akatsa" dino eta "eguno emakumek ez du erditu ogenik bako semerik" dino Sumerreko jakinduriak<sup>10</sup> eta "jaioak hiltzea zor" edo "jaiotzea, beste kulparik ez", gureak. Hagatik *amatu/amaitu* ere hasiera eta azkena adierazten eta *amaitu/amatau*, zerbaiten bizi muga edo epea "arnasa amaitu, argia amatau" gaztelaniak ere "amatar, matar" aditzetan dinon bezala.

*Inutu/Inoso* dator *Inoteko* ospakizunetik hara, *inude-unaiek*

*Inu* jainko *inutzaileagandik* analogizatu bai-dute ofizioa. Hortik *inoso/inoxiu*<sup>(11)</sup> “inutua/iñuxente” dela dino latinak, eta *noxiu*, ostera, “errudun”. Idea berau dator “*Santa Barbara, Santa Kruz, Jauna balia zakiguz. I nozenteen ogia, jauna miserikordia*” otoitzean.

*Nekatu/neccare*<sup>(12)</sup> dator bere bidetik: *nahi+ka>neke*. Euskarak “*lana/pena*” adierazteko darabilena grekoak eta latinak *neku*<sup>(12)</sup> eta *neks*<sup>(12)</sup> “heriotza” esateko darabiltena, guretzat *nekagarri* dena, eurentzat heriogarri bai-da. Hala ere *nekea* bizitzarekin lotzen du jakinduriak: *nekatuta jaio zan/neke gaberik ez da bizitzerik*.

*Manatu/mandar* “agindu” dator euskaratik gaztelaniara. Gizona=*man*<sup>(13)</sup> *manatzaile* eta *emaztea amainatzaile* eta *maneatzaile*? Esakunak dinona: “*gizonak manatzeko ohorea, emazteak kide-rra/Maina duenak mainatzen, mana duenak manatzen*”. Beraz, *mainatu* formatik dator gaztelaniazko *amainar* ere.

*Nabustu/nabastu* hizkUNETZAT hartuez gero, Neolitosko langintza dugu begien aurrean *nabusiak* bere arloa *nabasten* bai-du. Baina analogia arlotik arlora doanez, nork har lezake bere arlorik maiteena *nabasteko nabastarrea*? Halatan, “nork lantzen ditu *na-shuba*<sup>(14)</sup> harriak beretzako” galdetzen du Sumerreko maite jakinduriak Inanna eta haren senar Dumuziren arteko auzian<sup>11</sup>.

*Mailuki/melek*<sup>(15)</sup> “mailu/errege” hizkuneak errege seinutik hartzen du “errege” izenak analogia hau, hako hizkirimirian bezala “*basoan jaio, basoan hasi, herrira etorri eta bera nausi*”. Makila edo *mailukia* eskuman eramatea Antxinako Sortalde Hurbileko errege eta mandatarien seinua zan (Ikus or. 49)

*Mendeku/mendigo* hizkunea ez da ulertzen, Egitoko jakinduria gogoan izan gabe. Hala bai-dino: “erregea aberaztasun bidea da (...) Sekhemet eta bera da, ordea, bere aginduei men egiten ez dionarentzat; bere begitarteko ez dena eskeko izango da”<sup>12</sup>. Horrela ulertzen dugu erregearen eta jauntxuen *mendekua* norainokoa izan daiteken. Latinak ere *mendicu* “eskeko” darabil eta *vindicta*, ostera, “mendeku” zoria adierazten, ots, “indarrez egotsiko zigorra”.

11 *Pride of pedigree*, 40 ss., ANET, 637

12 *La enseñanza legal*, V, DB. n<sup>o</sup> 10, p39

## 2.2. Utu arketipoko hizkuneak

An jainkoaren mezularietan *Utu* "iduzki/eguzki" dager eta bere arketipoko monosilabo guztien sorgu da: *tu, tto, zu, zu, otu, otoi, doi, dui, doe, itu, itxu, ud, idi, uso, hotz/hitz, oju, oihu, oto, ota, oso, so, ate, edu, adu, eita, etab.* Eskarmendu arruntak azaltzen digu, adibidez, *Utu/itu*>*hito* norabide eta noizkoen *so*-unea dugula, eta berdin *Utu/itxu*, haren diztirak *itxutu* egin dezakela *sogilea*.

*Utu/itu* "Utu/uduki" ere esan nahi du, deadoz hari otoi egiten diotenak dohaia udukitzen dutelako<sup>13</sup>. Hagatik *Utu/so, Utu/otu* eta *Utu/otoi*, datoz jarraian, berari *soaz* batera, jauresleak *otumenean* duelako eta eskaleak *otoian*. Otsez ozen den otoia ojuz egiten da eta hagatik *Utu/ots, Utu/oju/ohiu* dator, beraz *otseen/ozen*.

*Utu/jo* dator iduzkiaz dugun eskarmenduaz, *torri* ta *jo*, hori bai du eten gabeko *jokera* eta haren *Jotea* ospatzen dute antzinako ja-kinduria otumenean duten herriek. Hagatik *Utu/joaileen* tutorea da<sup>14</sup>.

*Utu/tu*>*zu, su* dator nortasun eta zenbakietan, *ono/tto* eta *hona dui* euskal forma zaharretan eta erromanikoen forma arruntetan gelditzen denez. An zero magalean egunez ez da beste nortasunik agertzen jainkoekin hizketatu nahi duten gizakientzat, *Utu* baino.

*Utu/edu* hizkuneak "Utu/eredu" *Utu* da bigarren arketipoa eta bere *edupe* zegoen *eduba*<sup>(s)</sup> Sumerreko eskola, *itaun/itun edura* totoak doitu eta dulabre egiten zituena. *Uturen edutik* dator, beraz, "zu *edu* ba naiz" gonbaraketa, eta "ni *edo* zu" bereizketa.

*Utu/dui* da hizkunez, bere bidea iterakoa delako, eta errugabea-ri zuzunbidea egitearren, iburniraino jaisten delako<sup>15</sup>. Bera da Ziusudra *duindu* eta Ugoldezik *soltü* zuena ere. *Soltü*>*soltar* da eratorriz. Otako iduzkia solora jaisten da, "sole" deritse erromanikoen eta zuzena egitea dagokionez, gaizki juzkatuak *soltutzen* ditu.

*Utu/zio* hizkuneak "Utu/arrazio" dino. Otatik otustan eta denari so doanak dena daki, denaren lekuko da, hodeien artetik eta lurreko

13 *Himno a Shamash*, 164, DB, n<sup>o</sup> 26. Cf. *Shamash*<sup>(a)</sup> = *Utu*<sup>(s)</sup>.

14 *Himno a Shamash*, 65-68, DB, n<sup>o</sup> 26. Cf. *joaile* "bidazti, ibiltari"

15 *Himno a Shamash*, 57-58, DB, n<sup>o</sup> 26. Cf. *itera* "zuzen"



zirrikituetatik burua itoizten duenarentzat (Ikus or. 13) ez dago gor-derik, beraz *Utu* da zuzen ebazteko *zio* bereziak dituen juje duia.

*Tutu/txutxu*, berez *Tutu/sutsu* dena, analogiaz *txutxu* “tuku” ere ba da, suaren argitan *Tutu/zuzi* den bezala eta bere dizdiraz zioa iziotzen duena<sup>16</sup> eta *zuzu/juzo zuzutza* egin dezakena.

*Utu/huts* hizkuneak kosmoko *hutsetik* gizabideko *hutsa* analogizatzen du. *Uturen* jokerak izadi tulunbioko *hutsunea* igaroten duen bezala, gizakiak Jainkoarekiko *hitzune>itun* egiten laguntzen digu, edo gizarteko bakardadea, *hutsa* hitzaz komunikagarri egiten, euskaldunen hilerriko Iduzki Sainduaganako jaierak ere bizi ta heriotzaren osteko *hotsi* beharra eta *otza* ostikatu irrikatik eta itxaropenetik bai-dator.

*Uxin/isun* “hutsune/multa” dator hizkunez eta batzarrean erabagıtako itunaren arabera, legez kontrako *hutsune* edo *uxinak* legezko *isuna* duela agintzen du.

*Otin/Otxin* “gorroto/Miel *Otxin* pertsonaiarekiko zigorra” adierazten duen hizkunea *Utu/huts* bide beretik dator. *Usin/osina* ere kosmoko *hutsaren* parte da eta *hutsari* egozten zaizkio galpenaren erruak eta gorrotoaren *uxina/isuna* daroa sor zaion zigorrean.

*Utzu/uso* “*utzia/silegia*” dino, *utzi/uzi* “*utzi/banatu*” bezala. *Ud/ux* formak “solo, oru” adierazten datoz *Udala*, *Uxarra* bezalako tokizenetan. Neolitikoaren hasieran gizakia lurra lantzen hasi zeneko *utzi*, *zuin* bidez *uso* banaketak egiten azi ziran auzoan.

*Auxi/auzi* hizkuneak “aiene=inka” *auzitan* dagoela dino, auzoan *auzu* dena *ausi/autsi* egin delako, txakurrak bere zaintzapeko muga auste berehala *ausiz* salatzen duen bezala. Nork konponduko du *auzilarien* artekoa? Auzimaisuak edo auzapezak lana izango dute minak kitatzen eta, herri jakintzak dinonez, hatarako “*auzilarik behar ditu hiru zaku: zaku bat paper, zaku bat diru, zaku bat pazientzia*”. Baina hasiera baten *auzo/auzu*, auzoa bera zan *auzu* zer zenetz ebarazteko.

*Duin/dueño* “(eukitez) duena/jabea” esan nahi dute; “*duena/*

*duina* denez gero, *duin*>*deinu*>*dignu*<sup>(1)</sup>>*dino* dator euskaratik latinera eta erromantzerara. *Duin*>*zuin* kalitatearen galdekizuna sorrazi du eta jabegoaren *zuinak* edo sortea. Duintasunean ba dago esakunik: “*norbere duin ez dena ez da ezeren jabe*”.

*Done/don* hizkunea “*sandu/jaun*” esatera etorri dena euskararen eta erromanikoetan. *Aton*<sup>(2)</sup>/*done* “iduzkiaren soloa/santu” *dino*, *Jaum* tituloa, berriz, jainkoena zan Akaden<sup>17</sup>, gurean santu batzuk titulo biak erabili dituzte “Jaun Done Joanes”, adibidez. *Doniene/Domine*<sup>(3)</sup> “*sanduen/jaun*” egiten du, bestalde, latinak .

*Sila*<sup>(4)</sup>/*zil*, hizkunea “*neurri/auzu*” adierazten du. Sumerreko Ur-Nammu erregeak salneurriak antolatzeke *sil*a baloreko ontziak egin zituan. *Sila* baloretan estimatu neurria bera da *zil* dena<sup>18</sup>. Euskarak “*zil* da, *laket*>*licet*” latinak. Palieraz ere *sil*a etikan<sup>1</sup> “*hitz zuzen, ekin-tza zuzen*” esan nahi du<sup>9</sup>, eta analogia hau hako neurritik dator.

*Tori/sori* banaketa lehian “*hobe behin tori*, ehun aldiz *tati baino*” esan ohi da eta, halatan, eskuratzen dena *norbere soriko* da eta, beraz, “*zor zait*”. Horra, bada, *sori/zor* hizkune egina eta “*agindua, zor*” esakunez aldarrikatua eskubideen sailean. Sorta banaketak ere sortea du, beraz, *sorta/sorte* dator. *Txori/zori* datorke, ostera, antxinako aztiak “*txori* begiraleak” bai-ziran<sup>20</sup>.

*Zuzuen/zuzen* dator, gehiengoko kasuaz izen arrunta egiten, *zuzu* onak *otatuz* babesten duena *tutu*<sup>(5)</sup> bai-dator.

*Utukku/tuku* eratorri eta hizkuneak *Utukku*<sup>(6)</sup> “*aingeru zaindari*” txutxua edo sutsua dinoela, “*suak bezala tuldu* egiten bai-duzu lau alderdietan (...) *iluna argitzen eta zeuk izar estuntza idekitzen duzu eta sututzen gari soloen bizarra, herrien bizia*”<sup>21</sup>.

*Udug/dux*<sup>(7)</sup> ere badator “*aingeru zaindari/gidari*” adierazten,

17 Akadiar idazkietan (K.a.2.000) izen askok *Jaum* tituloa zeramaten. (“Yahvéh” (IV) Dic. B. o.c., p. 2054-2058)

18 *Las Leyes de Ur-Nammu*, Prólogo, DB, nº 15. Cf:

19 P. MASSEIN, “*Sila*”, DR. o.c., p. 1651-1652

20 *Zori* igarletan “*txori* begiraleak” = “*dagil issuri*” aztiak ziran Asirian eta Babilonian (LIMET, H. “*Adivinación (asiro-babilonia)*”, DR, o.c., p. 23-24)

21 *Himno a Shamash*, 12-18, DB, nº 26. Cf: *Shamas*<sup>(8)</sup>=*Utu*<sup>(6)</sup>.

bada sumeriar jakinduriaren arabera “zure aldetiko *udug* zure aurretik doa”<sup>22</sup>. Bertatik analogizatzen da *dog*<sup>(i)</sup>, *dogo*<sup>(ii)</sup>/*duce*<sup>(i)</sup>, aberearen sena edo gizarte gidaritzako ardura.

*Txigor/zigor* hizkunea ere *Utu/su* jujeari dagokio, errugabea soltü edo askatu eta erruduna *zigortu* egiten duelako, Akadeko jakinduriaren arabera: “erailketa asmo duenari adarrak mozten dizkiozu, lukurreru okerrari iduzkia osten. Espetxea erakusten diozu zuzen ez den jujeari; *zigortu* egiten duzu, erregali ordeaz, zuzutza guzurtatzen badu”<sup>23</sup>. Ugoldean, uraz landa, anunnakuek zuziez zuzitu zuten gizakia<sup>24</sup>. *Txi+-kor>zigor* hizkunean iduzkiaren ekintza *txi* “erre” makilaz-edo emandako ordeaz gonbaratzen da, “*Jainkoak makila gabe zigortzen bai-du*” jakinduriaren arabera.

*Sin*<sup>(a)</sup>/*zin* hizkuneak “iretargi/*zin*” dino eta *sinistu*<sup>(s)</sup> “emakume” sumerieraz, nonbait emakumea izakeraz jainko honi *zinez estu* edo estuago dagoelako<sup>25</sup> argizagi horri eta bertatik analogizatzen dugu *sinestu/sinistu/sinetsi* jainkoarekiko loturari eta jainkozko edo gizarteko erritoetan *zin* eginez borutzen bai-ditugu asmoak eta agintzariak. Erritozko loturatik gogozko atxikitasuna analogizatzen da. *Shintu*<sup>(bab)</sup> “adua, *Shin* jainkoaren erabagia edo hari sagaratu” dino babilonierak eta *xintu* “arautu, esaneko, zehatz” euskarak.

*Zindo/zintzo* hizkunez, *zin* egitetik egiztatzen da norbait *xintu* eta *zintzo* den. Analogiaz frutakien *zindotasun* fisikoa eta gizakiaren barne *zitzotasuna* bereizten ditu: intxaur *zindo* eta mutil *zintzo*, “*zindoan* artean ustelak”. *Xintua* da, beraz, *sinistagarri*: “*sinetsi Jainkoari zeruan eta amari lurrean*” euskal jakinduriazko esakunaren arabera. Hagatik jujeek ere *zin* egin eta *zina* eskatzen dute.

*Tammuz*<sup>(h)</sup>/*damuz* hizkunea *Dumuzi*<sup>(s)</sup> jainkoarekiko dolutik analogizatu da, bada, izadiarekin batera urtero hil eta berbiztera behartua edo *damnatu*<sup>(h)</sup> zegoen eta Inanna emazteak *damu* zuen

22 LIMET, H. “DEMONIOLOGIA (religión sumeria y acadia) DR, o.c., p. 416-147

23 *Himno a Shamash*, 95-99, DB, n<sup>o</sup> 26. 22

24 *Gilgames*, XI, I, 104-105

25 LEBRUN, R. “LUNA (en Mesopotamia)”, DR, o.c., p.1040-1041, CF: Sumeriar *Nana* jainkoa *Sin* da akadiarrez eta haren jaiara handik honainoko santutegiak egiztatzen dute *Sina mendi*, *Itxinamendi*, *Txindoki*.

*Dumuzi=Tammuz* senarraren heriotza. Hortik gaizki eginaren *damu* edo garbaia eta *dolu, dolumin*, berriz, norbaiten heriotzagatiko *damutzat*. Herri jakinduriak zera dino *damuaz*: “*damua garaiz/ondo eginen damurik ez/damurik ez, parkamenik ez*”.

*Ate/atze* hizkunearen arabera, *atetik at* da *atzea*, *ate* barruan *etxea*, *ots*, *etxatiarra*. *Atea* *etxearen* aurkaldetik dago, *ez ostetik*. *Ostetik* datorrena, *atzea* da. Horrela “*oste=atze*” sinonimoak dira. Latinez *oste* “*etsaia*” da, *etxea/etsaia* bereizten dira. *Ostetik* datorren *etsaia* ostikoz ostikatzen du abereak, eta gaztelaniak ere bide beretik “*hostigar*” dino, *oste>post*<sup>(1)</sup> *gizatzen* delako, eta *osteena>busten*.

*Atarratu/hasarratu* dator hizkunez: uriko ataurrean gerta ohi da: gudatean *ateak* eta *ataka* takatzen dira barrutik, *etsaiak* kanpotik atakatzen dueneko. Hagatik Antxinako Sortalde Hurbilean uriko *ataurrea>torrez* takatzen zan *etsaiaren atake* aldirako.

*Atari/atarri* gertatzen sarritan, *takatu/sakatu, tartetu/zartatu* *etsaiak* horma zulatzeke modurik *ez duenean* ohi bezala. *Ate>atx>aitz* dator eta Utuk *atari>terra*<sup>(1)</sup> *ateak* dauzka lurbirako bere sartu-urtenetan. Herri jakinduriak honela dino: “*edukan eure atea hertzirik eta ez erran eure auzoez gaizkirik*”.

*Otsi/ostu* “*egortzi/ostendu/ebatzi*” analogiak *Ut* iduzkiaren eguneroko osterean, lurrean *otsi*, mendi ostean *ostu* eta *ostendu* egiten delako. Eguzkiak *ostean* amaitzen du, beraz, eguneroko *ostera*.

*Justu/juskatu* kontraesaneke hizkunea da, eta nonbait *otatu>tutu*<sup>(1)</sup>*>zuzu>zuzutu* “*gorde, zaindu/saindu*” Utuk Ziusudraz egin *justutzea>justitzia* oroitzen digu. *Justu* izateaz gabetzea hori da *juzkatzea>juzgar*, *ots*, norbait *jusopean* dela aitortzea.

*Otatu/osatu* Utuk Utanipistin gizakiarekin Ugoldean egin salbarena “*jaso/sendatu*” adierazten digu. Gora jasotzea, beheko ariskuetatik toki seguruan jartzea da, hagatik “*oilok otara doaz, lo egitera*”, han *otatu>“tutu”*<sup>(1)</sup> dagokez. Bestalde, “*osasuna ez da erosten, Jainkoak emon eta Jainkoak kentzen*” baino, esakerak dinonez.

*Iteratu/directu*<sup>(1)</sup>, Utuk *itera* jotzen du bere bidean, eta bere edutik ikasi dute, ezkerrean edo eskumara okertu gabe, *juzo/jus*<sup>(1)</sup> zuzenaren *jujeak*, eta *directu>derecho* deitu zioten Lation

herrien eskubide araudiari eta “eskubide” *derecho* da gaztelaniaz.

*Hathor/aitor* hizkuneak *aitor* izatea edo jatortasuna nondik datorren erakusten digu, *Aitoren seme*, *Aitoren alaba* edo “*Aitor* seme-alaba”, analogietan, norbait “leinargi” edo “naro” dela adierazteko. *Hathor* jainkosa, Erraren alaba izan zan, bi seme izan zituan: Horus *aitorra* eta Set setatia<sup>25</sup>. Horusi *aitor* izatea bere amagandik, amaren esaneko izan zelako bai-datorkio eta Set anaiari, ostera, “set egitea”, hau da “porrot egitea” bere setakeria jarraitzeagatik. Beraz, Horusek amaz *aitor* egiten du, ama *aitortzen* du, hitza aditz bai-dator. Urzi, iruzki semea, amaren esaneko-tzat dager herri jakindurian: “*Eguzkia joan da/bere amagana/bihar etorriko da/denbora ona bada*”, aipatzen duenean.

### 2.3. *Erra arketipoko hizkuneak*

*Erra* Maat amaren *haurra* da, amak orzantzean erditzen bai-du arratsero orzten, bera delarik orduen ardatza. Bere *arketipoak* ordezkatzan ditu berangandiko analogia arrunt direnak: *erre*, *oru*, *urre*, edo sorkuntzako mitoaren jarraipenak azaltzen dizkigun beste: *errai*, *ar*, *haur*, *irri*, *orro*, *ur*, *arau*, *era* edo gizakien *erruak* beragan sortu zuen *erra*, *ira*. *Erra/Horus* arketipoak egitiarren *artezi* edo magian ezeze, euskarak analogizatu hitzetan eragin berezia du, jarraiko hizkUNETAN ikus dezakegunez.

*Erra/herri* hizkunea sorkuntzako mitoarena da, *Erra/errai* bezala, bera ere Maat amaren *haur* delarik, gizakia haren *erraie-tako herri* delako<sup>26</sup>. *Erra+in>erein* dator hagatik eta *Erra+egin>eragin* ekimen berean. Sorkuntza mitoan *erraina/errana* aipatu eta bereizten dira, *erraien* fisikotasuna hitz erranaren sorkun-

25 PFISTER, D. “HATHOR”, D.R. o. c., p. 722. Cf: Arrakasta handia izan zuan Hathoren seme bion jokerak pedagogia arloan, euskarak seme bion exenplutik haren ondorea jasotzeraino, hatan ere. *Aitor* asaba lehentzat jotea, euskal kultura zaharraren amatartasuna ez ezagutzetik sortu da, eta harego, ereduak goian barik, lurtean antzematetik. *Hathor* jainkosari egotsi pedagogia bera agertzen da Mari jainkosaren seme biengan, Atarrabi, ona eta Mikelats, gaiztoa. Izenon komposizioak beranduko mito direla dino.

26 “bere irudi dira, bere haragitik erne direnez gero” (*Instrucción del rey Mericaré*, 130-135, DB. n° 10)

tzari aurkatzen zaiola. *Erra+un>errun*<sup>27</sup> dator eta arrano erraldoiaren arrautsa eta *erronka* analogizatzen du, edo erranez, *Erra+an* "orduak" *errain* gertatu zena<sup>28</sup>, "*erran eta egin*" herri jakinduriak aitortzen duen bezala, edo *eretxi/iritxi* hizkunera. Era honetan da *herria Erraren errainen* eta *erranen* haurra.

*Erra/arau* da hizkunez. Orduen ardatz eta orratz denak erak, eretiak eta haroak *arautzen* ditu, bereak dituela urteak eta ordeak, arrazioak eta ordenak. *Arauok* beragan dute eredu orokor eta orube>orbeko eredia gizarteko harremanetan *arauko* analogizatzen da eta hizkuntzan *arketipo* aurreratzen.

*Haur/erru* hizkunea ados dator *Erraren* haurrek aita zaharren aurka erabagi zuten arramantzaz, ira eta erra handia sotu bai-zuan beragan eta herria eraso eta arras erasteko eritxia hartu bai-zuan eta bere ordenako arrazioa erraien errokoaz, gero *erruki* eta barku bihurtu izanarren<sup>29</sup>.

*Erra/erre* hizkuneak eguzkiak berez egiten duena analogizatzen du, *erreak erretu* eta *ertu* egiten du, urak urratu eta urtu bezala. Biak dira gaizki eginaren zigorrak jainkoen eskutan<sup>29</sup>.

*Erratu/reatu*<sup>(1)</sup> dator eratorriz eta hizkunez eta zioa eta ondorena analogia berez josten ditutela "erratua/ordea", nahiz eta latina eta erromanikoek gogoratzen ez diren.

*Haur/orro* hizkuneak "ume/negarra" dino eta *orho/oro*<sup>(1)</sup> forma leundua Jainkoari egiten zaion *orazionea* adierazteko eta liturjizuneko *orazioneak* izan dira gero gramatikazko *orazione* ereduak eta handik *oratoreen* predikak edo orroak analogizatzeke.

*Ero/eroi* eta *erotu/erosi* hizkuneak Errarekiko teologian dute oinarria: Erraren ira, ordea eta erabat Erraren errukia eta *eroskundera*. *Eros*<sup>(9)</sup> maitasunak *erotu* du eta Erensugearen aurka egunero *eroi* erraldoiak bezala, aurre eginik, gaitzetik *erosten* du

27 "Oi jainko, zeuk eratu bai-zendun ernarazi zintuen arrautza, ezezagun ertaldiko arrakastaz." (CORTEGGIANI, J.P., "AMON", Dic., R., o. c., p. 62)

28 "Jainko urentasunak bihotzez *eritsi* eta mihinez *erabagi* zuenetik zertu zan" (*La Teología menfita de la Creación*, 55ss. ANET.4-5)

29 *Rescate de la humanidad de la Destrucción*, ANET, 10-11

herria. Teologia honen ondoren hizkune gertatu zan euskaraz *Eros/Erios*, grekoek *Eros/Thanatos* “maitasuna/herioa” aitortua.

*Urte/orde* hizkunea ulertzeko antxinakoen Urteberriko ohiturak ezagutu behar dira. Garai berriaren hasieran gauzak eta ondusunak lehengo jabeen eskuetara itzuli behar bai-ziran<sup>30</sup> edo nola-baiteko ordea eman behar zan “*daukanak ez daukanari*” araberan, egunotaraino umetan abestu izan dugun bezala, edo *Orde* izenaren edukinetan agertzen denez, “mesedea hartu edo egiteko garaia”. Erromako Enperioak *ordea* garitan *ordeu*<sup>(1)</sup> jasotzen zuan, herrien ohituretatik ere onura jasorik. Bestalde, *urte* urteera da eta *urten* aditzaren sorgu, eta *orden*, *ordizie* aditzkerak urteteko ordenak dira.

*Ordain/orden* hizkunea harako *orde/ordeu* formen jakinian ulertzen da, edo herri jakintzako “*ordez oraindu/ordez orde egiten dena baino justizia hoberik ez da*”. Gaizkiaz izadiko ordena suntzi duenak hain *ordaina* ezarri beharko du, gauza kitu geldu ahal dadin eta berdin urtean zehar sorturiko ondasun aldeak adosteko.

*Ersu*<sup>(2)</sup>/*erresu* esakerak lehengo hizkuneari jarraitzen dio. Egitieraz *ersu* esaten dena euskarak *erresu* dino, ots, Jainkoari egin eskari sutsu eta eraginkorra, *erreoparien* erakutzia aurrean zela. Erroman *rogu/rogo*<sup>(1)</sup> dino hizkuneak: “erre oparien txondorra/eskaria”, hizkuneak materia eta forma bateratsu oratzen ditu.

*Erres/arres>res*<sup>(1)</sup> “baitura/abere, gauza” edo ezkongaietako *erres/arras* “baitura/arrak” bezala, elkargoa *erraztu* egiten eta hizkunez adierazten dute. Bide beretik darrai *erresatu/errezatu*, *errezuak* eta *erre-opariak* Jainkoarekikoa *errazten* zuelakoz.

*Arthe/arte*, esakera honen aberatsa ulertu ahal izateko, jakin “*Arthe deo*” eskeintzarria Ainamendi ingurukoa dena, *Artamendi/Arzamendi* santutegietan egizatzen denez. *Ra+ate>Arte* jainkoaren *artezietako* bat *arte/tarte* estuetatik, haitzartetik adibidez, sartu-urtenak egitea zan. Hilobietako harrigizonek *artezi* horretakoak ziran. *Artezi>ardid* dator eratorriz eta hizkunez, *artelana* da, *artistarena*, eta *arte* “pazientzia” eskatzen dio *artegileari*.

*Arrazio/ratio*<sup>(1)</sup> hizkuneak hitzaren pedagogia, hizkuntza ezber-

dinetan bada ere, noraino heltzen zen adierazten digu. *Ra+Aton> rason*<sup>(6)</sup> datoz egitiar jainkoek eta “Ra jainkoari atsegin zaiona”<sup>31</sup> esan nahi du. Ba al dago herria jaurritzeko *zio* edo *arrazio* hobetik? Hori izan da gero ere burua jainkotzat hartu duten agintaritza askotxoren “*ratione*<sup>(7)</sup>>*razón de estado*” jokeraren iturria.

*Arrobatu/robar* dator *Erraren* mitotik harakoa. *Errak*, mitoaren arabera, egunero birritan *arrobatzen* dio Erensugeari bere soina, “se *arroba*” haren aurretik eta erasotik, Utuz “itzuri, ostu” esaten den bezala. Analogiaz dator *arroba/robo* “multzotik kentzen den neherria” eta berdin edozein bidegabezko ostuketa. Itzuri, ordea, norbera itzuriten da arriskutik edo *izuritzen>zuritzen* du erratua.

*Arrenka/arenga* dator hizkunez eta edukinez, izan ere Jainkoaren edo santuaren aurrean bere umearen osasunaren alde *arren-ga* dagoen amak egiten du *arengarik* beroena eta hitza euskaratik datorkiola aitortzeko lotsarik ez luke izan behar gaztelaniak.

*Errenkura/rencor* hizkunea baliagarria da edukinez pixka bat alderatu denarren. *Erren+kura* hitzak *Erra* jainkoak haur bihurrien zoriaz izan zuen ardura adierazten du, haien arramantzagatik arras erraustuak izatera ordenatu bai-zuen, baina *errenkurak* harturik, arras galtzetik erosi gero. Hortik *errenkuratsu>rencoroso*, baina nondik “arduratsua” “aiherkor” bihurrikeria hori?

*Eretxi/eresi* hizkunez adimen eta mintzamen aditzak kidetzen dira, giza psikologian duten lokarri estuagatik. Orobat *eretxi/airesi*<sup>(8)</sup> “uste/oponio” dator eta erlijiozko *eretxietan* norbere oponioari arras erastea *airesi* edo herexia gerta daiteke. Zerbait soinez erastetik adimenez eta gogoz erastera doa analogiaren erroa, *eratxi/eretxi* ere ba dela hizkunez.

*Harremana/armonia* “tratu, neurri, doitasun, arau/neurri/orni” hizkide datoz. Bere sorburu: *Amon+Ra*, jainko biren aglutinazioa, Tebas eta Egipto Behearen batzea egin zutenak, *Oikupta* “etxe batu” bai-da. Jainkoek bat egiteak herriaren *harremonak* egizatzen zuan, eta gida hori nausitzen zan mediterranean inguruko-

31 Equipo “Cahiers Evangile”, *En las raíces de la sabiduría*, C.B, nº 28, VD, Estella, 1980, p. 15. Cf. *Utu>zio*, *Arra+Utu>arrazio* analogizatzen dira.



salerosketan, “*Amore? Hartuak emanaz sapore*” eta ez “*hatzeko pronto, emateko tonto*” izanik, herri jakinduriak ohartzen duenez.

#### 2.4. *Ilu arketipoko hizkuneak*

*Ilu laia* bere arketipoko monosilabodun guztiakin lotzen dugu beste barik: *ele, al, il/hil, lo, ahul, uli, auli, ili, loi, olo, olio, ola, ulu, el, hell, ole!, ile, etab.* eta guzti horen inguru idoroko dugu *Iluren elea* eta *leloa*, bere *ilobekiko* aglutinaduak ere *laudatan lagun* ditugula.

*Ilu/lo* hizkunea, *Ilu* Ugariteko lorioan bizi zen agure “aita urtesu”<sup>32</sup> lez agertzen denari dagokio, *lorio/loria* oroitzen dugunez eta bide beretik *loria/lauro* “goralpen/ereinotza” aintzaren ezaugarri ezagutzen denez. Bestale, *ilutu/loti* dator “*Iluri sagaratua*”, edo *Ilutu/lotu* “*Iluri emana*”, erlijioa “*lika/liga*” *lotura* den eta datorren bezala. *Lo/loka* dator kontrako hizkunez eta *lotu/lokatu*, aburuzko loturak askatu dituenaren psikologiak azal dezakenez.

*Ilu/lohi* dator hizkunez. *Iluren* sinboloa ez zero, ez eguzki ez denez, *lohitzune, laku, leze* eta *latxetako* dizdiretan du lorioa<sup>33</sup> edo *lezoi>lectu<sup>(l)</sup>>lecho*. Bizia ere halako urgunetatik sortzen da eta *alor/lur* beste hizkunea zertatik datorren azaltzen digu.

*Alha/ahal* hizkuneak “*elika/indarra*” bata bestearen ondore direla dino, “*jan barik eztago bizitzerik*” esakunak dinonez eta hagatik “*jan, mutil handia izateko*” esan ohi da.

*Eli/ele* “*Jainko/hitza*”, *Inu/ino, Utu/hitz* edo *Erra/erra(n)* bezala, jainkoek berez hitzez egin bai-zuen sorkuntza lana eta gizakiei, abereei ez bezala, eman bai-zioten hitza asmatu eta halako alegiaz bersorkuntzari lotzeko. *Iluri* deitzeko *ulu* bereziak *ole!, hell!, ala!* ziran, harekin *elekatzea/alakatzea* eta bera bai-zan.

*Ilu/hil* hizkunea sumertarren ustetan deabruzko jainko<sup>34</sup> honi dagokio, eta *hilde/lite<sup>(l)</sup>* “*agonia<sup>(g)</sup>*” dator *hiltamuan*. Gaisoa eta heriotza jainko sorkari ziren deabruei zegokien, eurotan *alu<sup>35</sup>* ahul

32 *Lucha entre Ba 'lu y Motu*, 1.6 I, 36 (MLC)

33 *Ibidem*, 1.5 VI, 1-2

34 LIMET, H., “*DEMONIOLOGÍA (rel. sumeria y acadia)*”, DR, o.c., p.416-7

35 *Ludlul bel nemeqy*, II, 71-82, DB, n<sup>o</sup> 26.

duraz hulatzen zuena eta euskarak *alu/ahul* hizkunez oroitzen duena. Elkarrenak dira, hagatik, hizkunez *hildu/ulzi* pareta ere.

*Ilutu/litz>lux*<sup>(1)</sup> “*Ilu* jainkoari sagaratua/*Iluren litzak*=argiak” dago, badaezpadako argiak, maiz hil-argiak, dira, beraz, *ilutu>iluso* dator eta hareago *ilutu>hilotz* eta *hildu*, beraz, *ilutu>lutu* eta *luctu*<sup>(2)</sup> “negar” ere bai, latinak ere gogoratzen duenez.

*Iloba/love*<sup>(3)</sup> “*iloba/maite*” dino eta *vollo* latino-erromanikoa baino forma zaharragoan, *iloba/alaba* “*Iluren ume*” analogia den bestean, “*anaia/nahi*”, “*Maat/maite*”, edo “*Mari/amari*<sup>(4)</sup>”, nor maite eta bera, amaz “*amattu/ amadu*” hizkune egin den bezala.

*Laki/lege* hizkunea ulertzeko, errotariak ehioituaren mozkina hartzeko zuen eskubidea izan gogoan. Nehurri auzua zenez, *laki/lege* analogia erraz gertatu zan, kultura une berriko ekanduak *lakatu* zuena eta handik *laketu>lagetu* “*auzu, atsegin*” dator eta latinak ere, iguinik gabe, *laket>liket*<sup>(5)</sup> egiten du, hain ederto. Bide beretik doa *lakatu>laga(tu)* “*adierazi, isilekoak agertu/utzi*”.

*Legal/leihal* egituraz elkarren eratorriak dira eta legea betetzeak bat lehial egiten duela dino, Israelgo farestarrek bezala. Era berean, *lege/lehi* dator, salmoak dinonez “*zure legeen lehiak nago beti (119, 20)*”.

*Legena/legen* “*lege(are)na/legen*” halako hizkunez sagaratu zen aldi bateko izurria, kutsugarria zenagatik, halako araeuz estutu zutelako. Lege pean zegoen, legepera behartua eta, beraz *lege+pera>lepra*<sup>(6)</sup> dator grekoentzat ere.

*Lein/leinu, lehen* gurasoekandik datorren ondareari *leinua* deritzaio, erderazko *linea* ta *linaje* bezala.

*Alor/lor* erein *lurrean* nekearen nekez *lortzen* dute laiari elkartuek lana burutzea edo *lorrak*, abe astunak, *lorratzeko* indarra, adibidez. Bide beretik dator *alor/lur* eta haren emaitzen *lorpena*, “*lurrak ematen baza io, emanen du*” jakinduriaren arabera.

*Lar/ler* dator hizkunez, *larregiak lerrazi* egiten duelako giza-kiaren gihardura eta zapaldu legearen marra, hagatik *lar* beti da *larregikeria* “*lartxu, gauza onerako*” esan ohi den bezala.

*Labur/lapur* da hizkunez eta eratorriz: ondasunak *laburtu*

bai-doaz *lapurraren* eskuetan. Zioa eta ondorea aipatzen dira konsonantearen zurrundura hutsaz. Hagatik esan ohi du herri jakinduriak “*lapur festa, labor*”.

## 2.5. *Ka arketipoko hizkuneak*

Giza arketipoen monosilaboak harekiko edukina nondik norakoa den igarteko egokiak dira *kai*, *ki*<sup>(s)</sup> “*lur*”, *eki*, *egi*, *goi*, *ekua*<sup>(s)</sup> “*egoitz*”, *egu*, *gu*, *oka*, *oge*, *oko*, *uko*, *uka*, *kia*, *ke*, *ek*, *ka*, *eko*, *hego*, *ego*<sup>(o)</sup>, etab.

*Eki/egi* mendi *egiko* marrak mugatzen du giza ikuspegia, *egira* arteko *egia* da berak *egiazta* dezakena: handik harakoa bere mende ez dagoen “*An/ena*” bai-da. Mendian zenbat eta gorago, *egi* zabalagoa, zenbat eta beherago, *egi* hurbilagoa eta oreka berean dakus bere ulergarrien *egia* ere. *Ekia*, eguzkiaren ditzira da hurrean.

Giza/gisa hizkuneak *gizakia* aitortzen du bere gauzetan gardi eta egile, ots, bere egoitza bere *kisa* gertatzeko gauza dela adierazten du. Era berean dator *kana/gana* hizkunea, batak gorpuzkeraren taxua adierazten, bestea, gogakera, *kanore/ganora* bezala.

*Kide/gida*, norbere *kidea* daite bizitzan *gidarik* onena, hagatik ondo asmatua dirudi berdinketa. Hortik adizkide, jolaskide, etab. konposiziora prestatzen da, beti ere “*kidekoa kidekoarekin*” gomen datzen jakinduriak, eta “*hire kidegaz ezkon hadi eta aiza ondo beti*”.

*Gal*<sup>(o)</sup>/*galai* hizkunea, beste asko bezala, Sortaldean du sorrera eta *gal* “*printzeari*” eregu egiten dio edo erregetzarako behar den jasa eskatzen du. *Gailen/galen* hizkunea elkarren aurka dator, ostera, eskarmenduaren buruz: zenbat eta gorago *gailendu*, orduan eta handiago izango bai-da *galena*, *gale/kale* bezala.

*Kura/gura*, *ekur*<sup>(s)</sup> egituraren antzera emana da eta *gurasoen* ardura eta maitasuna adierazten du: bata bestearenak dira, *kura/quarerere*<sup>(o)</sup>>*querer* bezala edo *ekur/ekuru*>*ekuri/egura*. Hortik du sorgu santutegiko *agure/guru* ardurak ere, *agur* eginez, jainkoak *gurtzeko* edo *augur*<sup>(o)</sup> *egura*-aldiaren iragarle azkarrak bairan, eta herriz, *curio*<sup>(o)</sup> “*jaun*” eta elizaz, *kyriu*<sup>(g)</sup> zirela.

*Korta/gorde* hizkunea ere aurrekoaren jarraipena da, mendiko gorkua abelgorrien guritzeko *ekur+atea*>*korta* ere bai-zan.

*Kardia*<sup>(a)</sup>/*gardi*, esakera hau Menfisko<sup>36</sup> egitiar teologiatik dator, “bihotza” egiten bai-zuan ulerbide bakar, hagatik *gardi* “eritzia” ere sorgu beretikoa da. Besterik da, hizkunea gerkera-euskararen arteko oroitzatik etortea, euskera-latinez *korde/corde*<sup>(n)</sup> formula agertzen den bezala. Euskarak, *gardi* “eritzi” edo *korde* “zentzu” analogizatzen du, soineko organoari “bihotza” deitzen diola eta grekoa eta latina, ostera, *kardia*, *korde* organo fisikoarekin gelditu zirela. Ba dago *korda/korde* azaltzeko analogiarik ere: hemen barazkien taxuketa, *korda*, edo gauzen zentzua, hartzen da ideen taxuketaren antzeko.

*Kasa/ikasi* da hizkunez, *kasa* “era, eritxi, ardura, etxe”, etab. delako eta berak bere *kasa* erakasten duelako. Herri jakinduriaren arabera, “*ikasle onantzako eztau erakasle txarrik*”/“*inor ezta ikasi jaioten*”/“*ikasten ez dauenak etxean, ez daki kanpoan*”/“*lenengo ikasi eta gero berba*”, etab.

*Kasta/gazte* hizkunea aurrekoaren jarraipena da: *casa* “etxe” + *ate* > *kasta* dator eta norbere *kastak ikasazten* ditu bere *gazteak*, hatarako behar diren *gazitiguak* emanez. Beraz *castigo/gaztigu* edukinaren gorabehera, ere elkarrenak dira eratorriz eta hizkunez. Herri jakinduriak ere zera dino: *gazitigatzen ez den falta, beste askoren aita*”/“*ondo maite duenak, ondo gazitigatzen*”, etab.

*Kusu/kusi* > *ikusi* hizkunea txorimaloaren zeregin eta begira-menetik dator. *Kusu* deitzen zaio baratzeke soegileari eta halan dager Marduk errege jainkotuak herrian duen eginkizuna, sumerierazko bere laugarren tituloak “*barashakuxu*” deitzen bai-dio<sup>37</sup>. Utu zuzenaren begiraletan ere Utuku/*Kusu* dager, arketipo itzuliez, iburni aldeko<sup>38</sup> “*aingeru zaindari*”.

*Ikusi/ikuzi* lehengoaren ildotik dator, ikusmenak dena arakatu eta zakarrak salatu eta garbitzen bai-ditu. Begirada bat naiko izaten da, *ikuzi* baten ordeko da.

*Kauta/gauza* dator, baliozko *gauza kautan kausitzen* bai-da, eta

36 *Teología menfita de a Creación*, 54, ANET, 4-5

37 *Enuma elish*, VI, 138. Cf: Hona, sumerierak euskararekin batera duen sintagma egitura: *baratzakuxu*, larrabehe, bagoauso, -ko huts emanez.

38 *Himno a Shamash*, 31, DB, nº 26.

hagatik esan ohi da norbait edo zerbait *gauza* dela “balio” duela esateko. Hortik dator latinaren *causa* eta gaztelaniazko *cosa* eta *kauta* sorgutik *kautela* auzietako “kexu, aitzaki” adierazten eta gaztelaniazko *recaudo*. Herri jakinduriak zuhurtzian, honakoak ditugu: “*gauza ona urrien kanbixetan da*”/“*gauza guztiek bere neurri-xe*”/“*gauzak heldu diren bezala hartu behar*”, etab.

*Gaixto/gaixo*, antxina baten uste izaten zen bezala, *gaisoak* *gaizki* eginen ordea jasaten zuten, beraz, *gaixo* egotea ogenen baten seinalea zan. Uste honen kontra, errubako *gaisoen* kexuak izan dira jakinduriatzko idaztien emaitzik ederrenetarikoak.

*Garbai/garbi* “damuak” barkamena eta beraz errutik *garbi* gel-ditzea dakarrela esateko, bata bestearen ondore direlako, *garbi/garbo* bezala, “*garbitasuna, bai da txukuntasunaren ama*”.

*Ekoiste/kosta* elkarren eratorri eta hizkune dira “*cosecha/coste*” bezala. *Ekua*<sup>(s)</sup>+*etxe*>*ekoitz/egoitz* dator eta bere ondarea da *ekoitzez* “*ondo kostata*” ekun eta ukaiten dena.

*Garaun/granu*<sup>(l)</sup> dator eratorriz euskaratik erdarara. Galburuak, garatzen deneko, garan biltzen du *un* goxoa eta *gara+un*>*grano* dator. Analogiaz giza *garatu*>*grato*>*grado* da erdaraz, eta *garta*>*garatza*>*gratia*<sup>(l)</sup>>*gracia* dator euskaratik erdarara. Hareago, garia garatuez gero, *garba* egiten da eta *garba*>*grave*<sup>(l)</sup> “*aztun*” dator bere pisuaz. Analogiaz, giza *garaune*>*craneu*<sup>(l)</sup> dator latinarentzat.

-*ganatu/ganadu*, mendian aske bazkatzen zuen abelgorria, neguan kortara *ekandu*, jabeaganatu zan Neolitos garaian. Eta *ganadue* jabeak berekanatu>*ekandu* aberea da, gaztelerak ere hortik *ganado/ganar* egiten duela, bere bizibidea delako. Herri jakinduriak ere hala dino: “*mendiko ganadue, zurre*”/“*ganadue berantza datorrenian, mendian edurre*”/“*ganaduak pertsonaren urrengo dira*”, etab.

*Küperü/kobru* hizkuneak “*alegina/alogura*”, *kuper*<sup>(l)</sup>, *kypru*<sup>(l)</sup> lanaren prezioetik ematen bai-du langilea, “*gana cobre y no huesos de hombre*” esakerak ez bezala. Lana edo salgaia *kuper* dirutan *kupe-ratzen* da, beraz *kuperatu*>*cobrar*, *recuperar* dator. Hortik “*nor-bere küperüz bizi*”, “*kobru eman aginduari*”, “*cubrir necesidades*”.

## 2.6. Ba arketipoko hizkuneak

Ba giza arketipoaren jakinduriak aztertzeo egokiak izango ditugu monosilaboetan berak analogizatuak aztertzea: *ibai*, *be*, *bê*, *ba*, *bai*, *ibi*, *ubi*, *hobi*, *hobe*, *epe*, *epai*, *habia*, etab. Bide=*via* honetatik ikusten dugu giza konplexuaren ordezkari honek zeren antza eta esperantza duen bizitzan, *ibai*>*via* bai-datorkio Egiptoko geografiaren eskarmenduan, *ibai*+*ate*>*bide* bezala. *Ba/ave* “txori” iruditan dager geroglifikoetan. *Ba* jarreraz *baikor* da eta *bai/fe* datorkio, *bide/fede* bezala. *Ba/be* dago, *apalgoan* dakusalako bere *beza*, *ba/epe* mende igarokorrari lotua eta *ibai/epai* beatzen duelako behingoz.

*Ibai/epai* hizkuneak arbasoen jainkoek gizakiari urez emandako orde aipatzen du. Gero ere, badaezpadako auziak jainko ibaiaren pentsutan uzten zituzten, juso ordetua zan, jujearen “ordele” ibai-jainkoa bai-zan eta halako epaiari “ordalia” deitu zitzaion<sup>39</sup>. Beraz *ordele/ordalia* ere euskarak erraz ulertzen duen hizkunea da.

*Bide/fida*, *fede*, *ibai/vía* bezala, *bidaztiak* bere *bideaz/fede* egiten du Sortaldetik honako kulturetan. “*Etxeak behar eta bideak ekarri*” esakunean bezala, *bideak* berak dakarkio zoria eta hari jarraitzen dio, hataz *fidatzen* bai-da. *Ibaia bidetzat* hartzea *Abbay/Hapi*=Nilo ibai-bidea ikustea baino ez dago, Erra bera ere belariz goiko-beheko uretan bidaiatzen ikusten zutenentzat *bidea/bizia* da. Honen antzeko analogiaz, *vereda/verita*<sup>(6)</sup>/*verdad* egiten dute erromanikoek.

*Apen/pena*, “*jaiotzak heriotza bai-du zor*”, giza Ka hilez gero, *apendua* datza eta *Ba* haren soinetik *behenatu/penatu*, berriz. Ba kabia, ka gabeko, txoria “ave” itxuran antzezten da “*ave pennata*”<sup>(7)</sup> “txori hegadun”, eta, beraz, *penatu/pennatu*<sup>(8)</sup> dator, zigorrak berak, *Penu*<sup>(9)</sup>=*Fenix* txoriari bezala, ematen diola lurretik jasotzeko hegoa.

*Beheatu/beato* hizkuneak “zendua/sandua” dela dino, ehortziak, asaben taldekoak bezala, asabotuak eta *beheko beheatuak* zorionsuen munduan *beatu* “zoriontzu” ematen zirelako.

*Basa/fas*<sup>(10)</sup> hizkuneak “beza/auzu” esan nahi du, bidezko eguna

39 “Norbaitek inor salatu (...) eta jainko-ibaiaren epaira behartzen badu, eta jainko-ibaiak salatua errugabetzat eman, behartu zuenak zilarrezko 3 siklo ordainduko ditu”. (*Las Leyes de Ur-Nammu*, 13, DB, n.º 15)

“*fastu*” edo auzu den “*fas est*” ekintza dela adierazten.

*Borta*>*forzza*<sup>(1)</sup>, “*puerta/fuerza*” hizkide eta eratorri arruntak dira, hala nola *atari*>*adari*>*adar*, aberea eta haren indarra adierazten. Era berean *borta/bortxa* dator eta ate *bortxatua*, “*abrochada*” gaztelaniaz, antxina dorrez uritutako ateak bezala. *Uri* hitza *buri* gizatu zan, *Ibarruri*>*Ibarburü* bezala, eta uritu>*ortu*>*portu* legez, hala *Ortegal*>*Portugal*. *Borta*>*puerta* eratorritik *bortu*>*portu*>*puerto* analogiatzen da, itxasoko edo mendiko ate izan, hala *Bordele* eta *Bordegaray*. *Borta/forte*<sup>(2)</sup> dator eta *bote-re*>*poder* ate arrabortxatuen “*reforzados*” analogiatik eta esakertan aipatua “*iburniko* ateak ez dute gainartuko bera” (Mt 16-18).

*Obari/opari* ekoizpenak jainkoen tenploari *oparizat* eramateko erritotik dator. Era askotako *obariak* eta *opariak* ere ezagutzen ziran, *Rê+gal*<sup>(3)</sup> “*erregeari, printzeari*” egin *erregalia*>*regalo* bezala.

*Berba/breve*<sup>(4)</sup>, *berba/previa*<sup>(5)</sup> hizkuneak euskararen eta latinaren arteko lehia sorten du. *Ber-bera*>*vera/veru*<sup>(6)</sup> “*egia*” dator eta *berba* eta haren barne-edukina *ber-bera* direla esaten du. Horra, *berbako gizona*, edo eta eritxi guztia *berba baten esateko* esakerak. Latina euskararen bidetik dator “*berbea emon=verba dare/berba egin=vervum facere/berba baten=uno verbu/ze berba da hori=quod verbum audio?*, etab. Gainera, *berba/breve* dator “*berbetan* labur, ekintzan largu”, nolabait grekoen paraboletatik ihestearren. Hagatik, “*berba gitxitan esateko=breve faciam*” dino latinak, *berba labur=brevis syllaba*, etab., nolabait, *berbetan* hasi ordukoa=*previa*, ots, “*beinbehinekoa*”. Beraz, “*berbarik onena, laburrena/zenbat eta berba gitxiau, oba*”, herri jakinduriaren arabera.

*Bihotz/abots*<*abo+ots*>*ahotz/boza*>*voz* hizkunea Egiptoko jakindurian<sup>40</sup> ulertzen da, edo sikologiak eta euskal jakinduriak agertzen digunaz: “*abotzean igarri bihotzean zer duen egari/bihotzaren giltza mihina/bihotzak zer dinoen ere, mahia mintso*”, etab.

*Pensu*<sup>(7)</sup>/*pentzu* hizkunea pisuaren gorabeheratik analogizatua

40 “Eta gerta bezala, bihotza eta mihina nausitu ziren soin atal bakoitzean, jainko eta gizakien goputz eta aboan bera (Path) dagoela irakatziaz”. (*Teología menfita de la Creación*, 53-55, ANET, 4-5)

dator. Pisuak egia dino, baino norbere arazoa inoren *pentzu* usteak ardura ematen du. Urrea kontu handiaz pisatzen den bezala, hala *pentsatu* behar da ardurazko gauzatan, herri jakinduriaren arabera: “*pentsatu gabe esaten duenak pentsatzen ez duena esateu/bi aldiz pentsau eta behin in*”.

*Buruz/puruz* dator hizkunez, *burutu* “jasan, lortu”, hagatik esan ohi da “*ikasiaren buruz/puruz*”, “*ekinaren buruz/puruz*”, “*de puro listo*”, “*askatasun puruz=pura libertas*”, “*solo puruan=in solo puro*”, etab. Bertatik dator *purikatu* “*purificar*”, *burukatu*>*borogatu*>*frogatu*, denetan *buru* dela analogiaren sorgu.

*Burutu/frutu* “*burua atera/frutu*” hizkune honek galburuaren irudia jarraitzen du, *burutzen* deneko, *frutua* dakar eta gainerako *frutakiak* handik analogizatzen dira. *Frutuaren* pisua *brutu* “*peso bruto*” dator eta grekoak *brizu* “*pisutzu*” egiten dute. Hala ere, latinak *fructu* jansten du eta hortik *fruitu* kalkatzen da euskaraz ere. Analogia sorgu honek lehenago *garatu*>*grato* eratorriaz esana osatzen du, euskara amonak zenbait gauzatan erakutzi baidion latinari, nahiz euskarak *burutua* askotxok *brutotzat* eman.

*Buro/foru* dator *Foruen* erabakiak herriak *borutu*>*aforar* egiten zituelako eta halako zinak indar bereziaz agintzen zutelako. Hatarako herria Zuhaitz pean batzartzen zan eta, haraz gero, auzi eta erabakion gunea Erroman ere *Foro* izenaz ezagutua izan zan.

*Beta/beda* eta *bedate/bedatze* “*beda aldi/udaberri*”. *Haita*>*beta* gizatzen da, ezarri legea *beda/bete* egiten da, hitza bere eduko aditz egiten dela: *betatu/vetar* dator, beharrezko arauak *batatzetik* dator *bedatzea* “*udaberri*”, orduan izaten bai-dira *bedak* eta orobat *betatu=bete*, “*legeak betetzekoak bai-dira*”.

*Beta/beza* “*aldi unea/vez*” egiten da bakoitzaren aukeran dagoe-larik eta orduan “*facie*”, *faz*, *betarte*, *alimu*” esan nahi du: “*nork leukaken bere beza!*”, eta orduan, “*betarte argi/faz risueña*”, ezpaere “*betarte galdua/faz mudada*”, etab. euskaratik erdarara.

*Baratze/paratze* edo *baratu/paratu* datoz eratorriz eta hizkunez. *Baratzea paratzeko* aratu egiten da, *aratz*>*baratz* gizatzen bai-da hitza. Bestalde, *baratzeak* zaintzeko bertan *baratzea* “gel-



ditzea” eskatzen du, jendea, heiztari edo artzain izatetik, bertan *baratu* zenekoa bai-da *baratzea*, *baratze*>*paraje* “hurbila” egin zenekoa, alegia. Gaztelaniak *parar* dino eta latinak *pre-parare*<sup>(l)</sup>. Herri jakinduriak: “*baratzetik asea*, *baratzetik gosea*” dino.

*Bagatu/pagar*, jakinik *baitu/pagatu* elkarren aurkako direna, *bagatu* zorretik “*aske*, *bako*, *vacuu*<sup>(l)</sup>, *vago*” ustea da. Ka zordun deino, Bak *bagatzen* du, Ka *baga* “utsik” *vacío* dago, *bakean* dago, *pacatu*<sup>(l)</sup> dino latinak, *apagado* gaztelaniak. Hizkunea arketipootatik analogizatzen da. Herriaren ahotan, berriz: *paga ona*, *akuilurik onena*”/“*pagatzaile txarrak asko agindu*”/“*pagatzeko azkena*, *hartzeko lenena*”/“*pagatzaile txarrari*, *epe laburra*”/“*nolako paga*, *halako lana*”, etab.

*Ipuindu/pinusso*<sup>(l)</sup> “*ipuina esan/oponioa eman*” euskaratik gerkararako hizkuneak adimen eta esan aditzak kideko egiten ditu, maiz gerta ohi denez. (ikus 6°, 7°, 8° laburgoetan) Hala ere *ipuina* eta *oponioa* edukinez ezin bestean alden du ditugu elkarrengandik.

*Barrendu/prender* “*barneratu/oratu*” norbere *barrenean barrundatzen* duguna ulertzen “*com-prender*” bai-dugu”. Latinak preposizio azkoz ustiatu zuan *barrendu* psikologiazko ariketa, hala *apprendo*, *comprehendo*, *reprehendo*, *deprendo*, *disprendo* eta berarekin erromanikoeak. *Barrundatu* formak ere *barruntar* eman du gaztelanian. Eta hara herri jakinduriak dinoskuna: “*nork bere barrena ezaguntzen gaitzena*” filosofoentzat edo hizkuntzako genetistentzat ere aukerako oharra.

## 2.7. As arketipoko hizkuneak

As arketipo honen monosilaboak hurbilduko gaitu behein-behinezko analogien bidera: *as*, *ax*, *aiz*, *haize*, *xe*, *xee*, *je*<sup>(l)</sup>, *se*, *etxe*, *etze*, *eze*, *esi*, *hezi*, *hasi*, *hazi*, *iza*, *xei*, *ez*, *xa*<sup>(ga)</sup>, *exe*<sup>(ga)</sup>, *ja*, etab.

